



Bapatean
2024

BAPATEAN 2024

Grabaketak: Xenpelar Dokumentazio Zentroak, Bertsozale Elkarateetako sail desberdinei zein borondatezko grabatzaileei esker jasotakoak.

Bertsoen hautaketa eta transkribaketa: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua.

Argazkien hautaketa: Olatz Amundarain.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Felix Irazustabarrena eta Karlos Aizpurua; Bertsolaritzaren Doinutegian oinarrituta eta Doinutegi Batzordearen babesarekin.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako *Ondarea* dirulaguntza jaso du.

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiko *Oreka* dirulaguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa

Argitaratzailea:

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

20.150 Villabona

ISBN: 978-84-82983-68-8

Lege Gordailua: D 00096-2025

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
Argibideak eta irizpideak.....	6
Plazako bertsoaldi hautatuak	9
Sariketatako bertsoaldi hautatuak.....	119
Bertso saioen mugimendua	141
Tauletako kontzeptuen azalpena	145
Aldizkako ekitaldiak: txapelketak, sariketak eta lehiaketak ...	151
Saioen aurkibidea	157
Bertsolarien aurkibidea	163
Izen eta izengoitien deskribapena	167

Hitzaurrea



PLAZAREN ATZEAN

Entzun eta pentsatu: arrazoi bat, erantzun bat, kontrapuntu bat, irudi bat, esperientzia bat, sentimendu bat... Lotu hamar zortzian edo zazpi seian azken puntu batean, errepasatu oin zerrenda, eta hasi. Bota. Eta entzun, entzun funtzionatu duen. Zure buruan bezain garbi josi ote duzu ahoan? Aurpegiek, txaloeak, begiradeak, irriek... plazak esango dizu hala izan ote den. Hori da plaza.

Oholtzan zein oholtzatik kanpo plazaz gozatzeko aski tarte eskaini digu 2024ak, eta gerora ere hala izango dugula igarri daiteke belaunaldi berriei begira. Tximeletaren efektuak ez luke, ordea, duen famarik izango dena mugimenduan jarriko duen hegala kolperik gabe. Hain justu, aurtengo honetan bete dira 50 urte potolo Leintz Bailaran lehen bertso eskola sortu zenetik.

Bada nahiko aitzakia, beraz, bertso eskolek egungo bertso plazetan duten eragina aitortzeko. Gaur egun plazara pausa emana duten bertsolari guztiek zapaldu dute bertso eskolaren bat noizbait. Baina bertso eskolak ez dira bertsolarien harrobi bakarrik, badira "Urtarrileko saiorako zein bertsolari ekarriko ditugu?", badira "Nik egingo dut soinuaztapen ekipoaren eskaera udaletxean", badira "Zenbat gozatu nuen atzoko bertso poteoan!", badira "Nire amaren elkartearen egin genezake"... Zenbat bertso eskola ote daude liburu honetako plazaren atzean?

Inongo datu maitale eta ikerlari ez naizen arren, ari direnei eta ariko direnei begira, plaza osasuntsu dagoela esango nuke. Hala ere, harri bat altxa eta bertsolari bat ateratzen denaren mitoa inoiz baino mitoago den inguru hauetan ere, bada oraindik tximeleta kolpeak eragin beharra. Bertsoaren sorkuntza izaten baita bat-batekoa, ez bertsolariarena, ezta plazarena ere.

Jakina da bat-batekoari letren artetik ihes egiten diola bere-berekoa duen esanindarraren zati batek papereratzen den garaian. Baina irakurle, izango duzu zerekin gozatua esku artean duzun urteko plazaren lagin honekin.

On egin diezazula!

Unai Mendizabal Jauregi



Argibide eta
irizpideak

ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkartek urtero argitaratzen duen bertso bilduma da *Bapatean*.

2.- *Bapatean* 2024an, 72 bertso saioetatik hartuta, 86 bertsoalditako 665 bertso datoz transkribaturik, gai, doinu izen eta ohiko informazio guziarekin.

3.- Liburuaren corpus nagusiak herritarrek antolatutako bertso saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolarien plazako saio kopuruen arabera. Kopuru horietatik kanpo geratu dira sariketatako plaza eta bertsoen zenbatekoak. Gainera, plazako bertsoaldien hautaketarako, aniztasuna helburu, beste aldagai batzuk ere hartu dira kontutan: herrialdeasuna, generoa, adina, saio mota, doinu ezezagun edo berriak...

4.- Badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. 2024an 366 saio grabatu dira entzuteko euskarrian; 549 oren orotara.

5.- 2024. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketatakoak.

6.- *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* (2) (Bertsozale Elkartea, 2023) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako *Bertso Doinutegiaren* (3) arabera izendatu dira. Bestalde, Bertsozale Elkartek onartutako *Bertso estrofak izendatzeko irizpideak* (4) lanaren arabera izendatu dira neurriak liburu honetan.

7.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan (XDZ) jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

8.- *Bapatean* egitasmoak Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburuordetzaren *Ondarea* dirulaguntza jaso du. Horrezaz gainera, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren jarduera babesten dute: Eusko Jaurilaritzak (Kultura sailburuordetzak; Ondarea), Nafarroako Gobernuak (Euskarabidea) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hizkuntza Berdintasuna).

9.- Jende askoren emaitza da liburu hau. Borondatezko grabatzaileen zerrenda luzea da eta guztioi esker jaso ahal izan dira grabazioak. Beraz, eskerrik beroenak bihotz-bihotzez saio erdi, oso bat edo hamaika grabatu eta XDZra helarazi dizkiguzuen hainbeste bertsozaleri.

10.- Bertso lerroak idazteko bi tradizio ditugu bizirik: batetik, puntu osoa lerro bakarrean idaztekoa (Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarren) eta bestetik, hemistikioka idaztekoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia). Bi tradizioek bizirik segi dezaten, bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideei jarraiki, holaxe jokatu dugu:

- Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea.
- Arestian aipatu kasuetan, araberako neurrien izendapena baliatzea (adibidez: zortziko txikia beharrean, lau puntuko txikia).

Aurrerantzean ere, eta guztioi esker, ahozko ondare hau biltzen, antolatzen eta hedatzen ariko gara hau bezalako argitalpenen bidez.

Bertsozale Elkartea

(1) <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/bilaketa>

(2) <https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/12651-bat-bateko-bertsoak-idatziz-emateko-irizpideak>

(3) <http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/bilaketa>

(4) <https://bdb.bertsozale.eus/web/liburutegia/view/3418-bertso-estrofak-izendatzeko-irizpideak>





Plazako
bertsoaldi
hautatuak

AMURRIO

2024-01-04

Bertsolariak

Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Sustrai Colina, Julio Soto, Joanes Illarregi,
Alaia Martin, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio.

Gai-emailea

Irati Anda

Txapelketa Nagusiko finalisten saioa. Aurtengoan Julio Soto aritu da Nerea Ibarzabalen ordeztasun Amurrio Antzokian.

J. Soto – B. Gaztelumendi - A. Arzallus

Gaia: Komunikazioa, oso orokorretik jota, informazioa trukatzeko prozesu soziala da. Hizkuntza omen da gizakiak komunikatzeko asmatu duen metodorik osoena. Badaude ikerketa batzuk diotenak %10a komunikatzen dela hitzen bidez eta %50a gorputz adierazpenen bidez; eta gainontzekoa, ahotsaren tonua, erritmoa, musikaltasuna eta abarren bidez. Gai izango al zinateke zuen ondoan dagoen bertsolariak gorputz keinuarekin zer esan nahi duen asmatzeko?

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

B. Gaztelumendi

Juliori begira
jarri naiz gutxinez
mikro atzean dago
itxura duinez
eskuak patrikara
mugimendu finez
lasai dagoenaren
itxura eginez. (bis)

J. Soto

Bi eskuak patrikan
gehienok bezala
Ametsek behin ixtean
sakon betazala
burua mugitzean
hola! Gero hala!
Esaten digu bertso
bikain bat daukala. (bis)

A. Arzallus

Beñat hitzez seguru
 igual segurugi
 baina atzean hola
 eskuak urduri
 hitzez zuzentzen zaizu
 entzulea zuri
 eta gorputzarekin
 ari zaigu guri. (bis)

B. Gaztelumendi

Ni nola sartuko naiz
 Julioaren larruan?
 Keinuek adierazten
 duten esparruan?
 Hor dago gizon serio
 heldu amarruan
 baina ume txiki bat
 darama barruan. (bis)

J. Soto

Betazal itxiek
 mundua dakusa
 mingaina ateratzen du
 inoiz kanporuntza
 puntaz ikutzen badu
 sudurran geruza
 orduan izaten du
 bertso bikain plusa. (bis)

A. Arzallus

Beñat beti diskreto
 ixil ta soraio
 ilea orraztua
 sortzetik arraio!
 Mingainarekin ezpain
 ertz bat du hola jo
 ta Habanera oso bat
 ateratzen zaio. (bis)

B. Gaztelumendi

Julioaren Habanera
 ere ez da broma
 irriz adierazten du
 bere zoriona
 ia esanez bezela
 ze idea ona!
 Jolas hau baita gehien
 gustatzen zaiona. (bis)

J. Soto

Mikrora hurbiltzen da
 batetik bestera
 betazalak zabaldu
 behatzak atera
 ahots sakon batekin
 posible ote da!
 Bueltatzen gaitu orain
 lau mila urtera. (bis)

A. Arzallus

Zer gabiltz teoritan
 jarri eta kendu
 bertsoa besterik da
 jakingo bagendu
 hitza hola airera
 zabalik zuzendu
 ta gu desagertzean
 gorputza hartzen du. (bis)

ONDARROA

2024-01-06

Bertsolariak

Maialen Akizu, Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga eta Garazi Navarro

Gai-emailea

Iñaki Lersundi

Beikozinin eguerdian, 12:00etan, egin da urteroko Errege eguneko saioa.

M. Akizu – G. Navarro

Gaia: Bikotea zarete eta ume jaio berri bat duzue. Kalera atera zarete lehen aldiz. Jendea hurbildu zaizue, eta pertsona batek geratu eta esan dizue: “Biotako zein da ama?”. Zuek aho batez “Biok” erantzun diozue, eta berak “Ez, ez; baina benetakoa”.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Pello Josepe tabernan dela I-A*

M. Akizu

Hemen guztiok gera jakintsu
asmatzaile ta ahaldun
pasiran geunden eta berba bat
hitzontzi zaigunez jardun.
Ikusten dugu zu lista zera
badakizula demagun
begira haurra eta asmatu
biotan zeinen antza dun.

G. Navarro

Esaten dute aurrera doa
gaur egungo gizartea
baina askotan iruditzen zait
asko dela esatea
ta orain ez dakit zer erantzun be'
ene Maialen maitea
zure ustetan honentzat zer da
benetako izatea?

M. Akizu

Benetakoa eta faltsua
a ze nolako dilemak!
Haurra nahiz batek izaten duen
ardurak dira birenak
bi ama gara eta hargatik
sortzen al dira problemak?
Gehiago dira aitatxo deitu
eta aita ez direnak.

G. Navarro

Aita asko daude haien umea
sekula ez ikututa
baina gurea ez da hala ta
ez daukagu horren kulpaa
nahiz ta umeak zure tititik
egiten duen zurruta
ardura eta begizuloak
erdi bana ditugu ta.



Bertxoko Sariketa. Aramaio. 2024-01-12. XDZ

M. Akizu

Bederatzi hil eduki ditut
 egin behar nion kasu
 orain artean ibili izan naiz
 hara ta hona jo ta su
 eskerrik asko titiarena
 aipatu eta esazu!
 Haurrak oraintxe ni behar bainau
 eta aldiz ni zaintzen nauzu.

G. Navarro

Hauen ustetan arraroa da
 gu izatea bi neska
 amatxo bat da zaintzen duena
 jana eman ta siesta
 amatxo bat da dena ematen
 duena nahiz ta trabeska
 ta baten faltan bi izatea
 zortea besterik ez da.

M. Akizu

Zortea dugu, zortea daukat
 eta ez dakit dakiten
 nere barruan zenbat hormona
 zorion, min ta sentipen
 titia pozik erakutsiko
 nioke ta paretik ken
 ia batzutan aspertu bainaiz
 pedagogiak egiten.

G. Navarro

Ni be' askotan aspertzen naute
 hainbeste erantzun nagik
 besteen bizitzan sartzea xede
 beti duten andra zahar bik
 zuk badakizu ez, ez zaizula
 faltako inoiz laguntzarik
 nahiz inguruan ez den ikusten
 holako familiarik.

ZORNOTZA

2024-01-13

Bertsolariak

Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi
eta Anjel Mari Peñagarikano

Gai-emailea

Xabier Irakulis

Zornotzako Zornotza aretoan jokatzten ari da bertso derbia. Herriko Eta Abar Bertso Eskolako kideek prestatu dituzte gaiak. Athletic Club Fundazioak eta Real Sociedad Fundazioak elkarlanean antolatutako ekitaldia izan da, behin berriz ere.

On. Enbeita – I. Elortza

Gaia: Kultur ekimen eta kontsumoen portzentajeek gorakada nabarmena eduki dutela esan dute hedabideek. Hala ere, datuak ez dira pandemia aurretik zeudenetara ailegatzen. Zuen lekutik nola ikusten duzue hori?

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Beti penetan, beti penetan*

On. Enbeita

Ez dakit ondo zer irakurri
leiken zenbaki batetan
kultura ondo egongo al da
Euskal Herrian benetan?
Erdera asko sartzen ohituta
gagoz beti programetan
eta denpora pasetan dogu
zentro komertzialetan.

I. Elortza

Portzentajeak gora ei doaz
eta kultura zer moduz?
Xabier ez dakit erratu garen
nik, lekuz edota orduz
makrozenbaki ta izen handiak
periodikoan deukoguz
euskeraz gora datozen danak
banaka zenbatzen doguz.

On. Enbeita

Pentsetan hasi ezkeru igual
berez kultura dana da
baina guretzat kulturaren parte
izan da beti euskara
ta albo baten gelditzen gara
Cocidito-ren bat bada
diferentzia handia dago
kulturatik kulturara.

I. Elortza

Baina euskaraz be' pasatzen da
antzera besteak beste
leku gitxitan jente asko ta
beste batzuetan eske
zeuk pe' Onintza ikusi dozu
ibilita astez aste
Miribillara asko joaten da
Alde Zaharrera ez hainbeste.

On. Enbeita

Zenbakietan dikotomia
handi samarra deko
lau mila lagun han egon ziren
Miribillan hiru ordu
gero jentea gitxitzen jaku
plaza saio ta otordu
gure mundua txikitxua da
geuk handitu behar dogu.

I. Elortza

Beste kultura batzuetan be'
kontuak dira antzeko
nik gogorik pe' ez daukat eta
zenbakitan zenbatzeko
zeren kulturak balio behar dau
noski jentea batzeko
baina batez be' zer pentsaua ta
taldetasuna eskaintzeko.

On. Enbeita

Baina kritika lantzeko askok
egin behar dabe lana
eta zuk pentsau hezkuntzan bertan
zelan dauen panorama
sarri pentsau dot erdi alperrik
egiten dogula dana
gero jenteak sentitzen badau
Salvame kendu izana.

I. Elortza

Ez dot sekula ikusi eta
ze *Salvame*? Ze histori?
Niri bardin jat ze itten daben
dabizela lodi-lodi!
Ze, kultura da zuek eta guk
gaur egiten dogun hori
ta horregaitik eskerrik asko
etorri zarienori.

SUHUSKUNE

2024-01-13

Bertsolariak

Nerea Elustondo eta Amets Arzallus

Gai-emailea

Guillaume Elizondo *Gus*

Suhuskuneko herriko gelan apailatu du bertso afaria Ortzaizeko Ikastolak. Jendez mukuru betea da sala, sagardotegi menuaz eta bertsoez gozatzeko prest dena. Irisarriko bertso eskolako kideek jarri dituzte gaiak; baita eman ere, hainbaten artean aldizka.

N. Elustondo – A. Arzallus

Gaia: Nerea, ze aurreiritzi dituzu Iparraldeari buruz? Amets, saiatuko zara gu defenditzen, aurreiritzi horiek guztiak hausten edo aztertzen.

Neurria: Lau puntuko handia

Airea: *Eguna pasa nekean eta*

N. Elustondo

Espainiako hitza da ole! Ta frantsesena ulala!

Ai tartekook burujabeak baldin bagina ojala!

Sarri Ruperrek Martin Larralden kantatzen duen bezala

larre berdeek, teila gorriek osatutako postala. (bis)

A. Arzallus

Ulala hori ongi erran duzu ta gelditu da airean

baina ojala lehen oxala zen euskara zahar librean

teilatu gorri ta larre berde ai Ruperren airean

lasai ze beti ez da egoten polizia auto bat bidean. (bis)

N. Elustondo

Iparraldeko guztiak dira kantari eta amesti

zeinahi ordutan entonatuta dabiltz abestiz abesti

alkohola ere ez da merkea, zergak direla prezeski

ta tabakoa saldu ohi dute oso, oso, oso garesti. (bis)

A. Arzallus

Tabakoana utzi dezagun halere kantu ta inguru
 bai arrantzaleen kantu zaharrek jantzi ohi zuten Ziburu
 Banka aldean lalaralara, Xiberu aldean u, u, u
 denek ez dute ongi kantatzen Anne Etchegoyen hor dugu. (bis)

N. Elustondo

Xilaba omen da txapelketa Ametsek hartzen du parte
 ta antza denez gainera ongi moldatu ohi da bastante
 baina Iparralde alde horretan ezer asko ez daukate
 bost laborari, dozena ardi eta zortzi bat ahate. (bis)

A. Arzallus

Aski behetik kantatu duzu ta nik zer erran nezake?
 Pentsatzen nuen botako zuela hiru edo lau alkate
 zuk zer diozu bost laborari ta gero zortzi ahate!
 Ta zuek nondik jaten duzue orduan hainbeste pate? (bis)

N. Elustondo

Guk foie grasa jaten dugula azaldu beharko hara!
 Zeren patean hegoaldean asunto garestia da
 ta ikastolak ere baditu nik ez dakit zenbat karga
 matrikulatu ondorenean lan asko egin behar da. (bis)

A. Arzallus

Nerea gauza bat da patea eta bertzea gibela
 bi gauza dira eta nik uste zu oker ari zinela
 ta ikastola ez da lau talo eta zazpi xaramela
 iduritzen zait Suhuskunera gutti etortzen zarela. (bis)

N. Elustondo

Egia da bai horretan ez dut behar adina bertute
 baina nolabait gaurko estanpa interpretatu nahi nuke
 ia sagardoik ez dute edan horko kupelaren truke
 ta Hernanira joandakoan litroka edaten dute. (bis)

A. Arzallus

Bai Hernani da paradisua, Hernani zeru urdina
 Hernanik du gaurik ederrena bihurtzen zaitu sorgina
 sagarnoa ere hain du freskoa, gustu oneko ta fina
 eta gehiena Iparraldeko sagarretarik egina. (bis)

N. Elustondo

Orain denera zabaldu baita ai Amets euskal sagarra!
Kontu honetan ez al daukagu elkar lagundu beharra?
Hona etorri eta jendeak, *zerg-nolako tirgi-targa!*
Amets zu zara errea ondo ahoskatzen dun bakarra! (bis)

A. Arzallus

Gipuzkoako guraso biak Hendaia sortzea karga
pentsatu nuen bertso trukoa errean dago beharba
baina Maialen Lujanbiori ikus ezazu ze narda!
Hemen txapela irabazteko gaizki ahoskatu behar da! (bis)

N. Elustondo

Beraz *erge*-a ikastea da nik daukadan helburua
hala ta guztiz topikoekin astindu nahi dut burua
eta besterik ez dut botako, bukatu da apurua
oraindik egin gabe baitaukat bizitza aseguru. (bis)



Bertso Eguna. Gernika-Lumo. 2024-01-27. XDZ

HENDAIA

2024-01-14

Bertsolariak

Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Nerea Ibarzabal

Gai-emailea

Maddalen Arzallus

Harrera elkartearen aldeko bertso jaialdia izan da Balea Elkartek antolatuta.
Merkatu zaharrean igande arratsaldean jardun dute.

U. Iturriaga – S. Colina – A. Martin – A. Arzallus – N. Ibarzabal

Gaia: Unai Bilintx zara. San Sebastian egunez bere etxean bonba lehertu eta ondorioz hil zen bertsolari donostiarra. Badakigu Loiolako erromeria batean ezkontzeko eskatu zeniola neskata bati eta hark ezetz esan zizula. Baina ez dakigu zergatik. Atzekoak izango dira neskata hori, eta beraiek esango dizute zergatik esan zizuten ezetz. Unai zuk erantzun.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Airea: *Iparragirre abila dela*

S. Colina

Nahiz eta askotan txunditu nauzun zure hitzez eta artez

ta Loiolara dantzara etorri naizen aspaldiko partez

balego eta balitz

barkatu baina Bilintx

ezin bizi elkar maitez

etxean ez dut bonbarikan nahi San Sebastian egun batez. (bis)

U. Iturriaga

Bonba gabeko amodioa ez ote da ba arraro?

Erromeria hortaz al dira hainbeste urte igaro?

Orduan zen ederra

pasa diote zerra

triste bizi naiz akabo!

Triste bizi naiz baina dirudi zu zaudela tristeago. (bis)

Neurria: Lau puntuko txikia
Airea: *Behin batean Loiolan III*

A. Martin

Nahiz ta merezi duzun hainbeste maitasun
dantzarako ez duzu nahikoa gaitasun
ezetz esango dizut, ta jai-jai erantzun
zure galtzaile aura galdu ez dezazun.

U. Iturriaga

Berezkoa baitaukat nik galtzaile sena
oraindik oroitzen dut han pasatu zena
bistan da esperantxetan¹ sartuta zaudena
Indalezio jarriko al diozu izena?

Neurria: Bost puntuko handia
Airea: *Misiolari baten moduan*

A. Arzallus

Zaldi zuri bat ez zela kapaz karro bat karreatzeko
ta apaiz bati potajeanak lapurreta salatzeko
Behin batian Loiolan ulala! Poesi goiko klaseko
ta ni hoi en ondoan bizi naiz diskreto, triste antzeko
nik ezetz esan nizun zuk neri bertso eder batzuk jartzeko. (bis)

U. Iturriaga

Ta jartzen hasi ta baita jarri ere sorta bat galanki
baina orduan nola genuen gure lotura ebaki
nire sorta askoren izena hor aipatu Indalezio bati
maitalea edo polizia den beharko dut erabaki
nire buruaz nik baino askoz gehiago berak baitaki. (bis)

Neurria: Lau puntuko handia
Airea: *Eguna pasa nekean eta*

N. Ibarzabal

Erromerian etorri zinen zure keinu ta maitasun
mutil-laguna neukan ondoan, ta ai ama ze estuasun!
Unean ezetz erantzun nizun, begiekin bai erantzun
dagoeneko negarrez zeuden eta ez zenidan entzun. (bis)

U. Iturriaga

Hori horrela gertatu zenik zinez ez nuela uste
nik kalabazak hartu nituen, zu baiezkoaren eske
hau tragedia guk ezin dugu gehiago maite hainbeste
bonba leihotik sartu baino lehen ingo dut buruaz beste. (bis)

¹ Alaia Martin haurdun dago.

GERNIKA-LUMO

2024-01-27

Bertsolariak

Sustrai Colina, Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Etxahun Lekue

Gai-emailea

Aitor Etxebarriazarraga

Bertso Eguna izan da Gernikan-Lumon. Hala ere, eguna Muxikan hasi da, han gogoratu baitugu Garriko Bertso Eskola. Bertso jarriak, bat-batekoak zein kantuak izan dira bertan. Ondoren, Gernikako tabernetan bertso poteoa egin da bertsolari gazteekin. Astran 200 lagunek bazkaldu ondoren egin da bertso jaialdia.

S. Colina – S. Alkaiza

Gaia: Sustrai gau giroko tabernako atea zara. Zure azalean pegatina eta pintada asko daude. Saioa dator komunera, duela hogeit urte zure azalean pintada bat egin zuena. Errotuladore bat atera du berriro.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

S. Colina

Papel rolloan utzi
duzu patxarana
eta nabari zaizu
mihian labana
lehen *Nuklearrik ez*
letrak banan bana
idatzi zenidan ta
gaur berriz nigana
ez da ba kadukatu
jarri zenidana! (bis)

S. Alkaiza

Nuklearrik ez nion
horrekin ze seta!
Gero okupazioan
sinboloa xerka
baina ene edadea
neregan gordeta
tatxatzera etorri naiz
tarteka-tarteka
orain dauzkat bi ume
ta lau hipoteka. (bis)

S. Colina

Goibel nabaritzen dut
zure begirada
bihotzari ere eskas
baitzaio taupada
denak aldatzen gara
boladaz bolada
lehen nuklearren aurka
zeunden eta hara!
Famili nuklear bat
bilakatu zara. (bis)

S. Alkaiza

Toxifikatzen joan da
konbertsazioa
lehen defendatzen nuen
okupazioa
edo aska zezaten
euskal nazioa
eta orain etxean
dedikazioa
idatzi behar dut: Gora
kontziliazioa! (bis)

S. Colina

Lehen zebiltzan horren guai
ta alternatibo
ta bizitza bihurtu
zaizunez banpiro
kejatzeko baduzu
nahikoa motibo
Guggenheim stop nere
azalera igo
bizi-bizi sentitu
zaitezen berriro.(bis)

S. Alkaiza

Berunezko kutxetan
sartuz folklorea
eraikin hura hain zen
ai diktadorea!
Ta orain gelditu dute
ze transgresorea
nahiz gureztat litzakeen
antza ohorea
irabazten ez nago
ohituta ordea. (bis)

S. Colina

Lehen ez zen alternarik
ez etorkizunik
ta orain ez da falta
polimaitasunik
diozu galtzeko lan
gutxitxo duzunik
baina munduan ez da
holako komunik
galtzaile ta irabazle
berdintzen ditut nik. (bis)

S. Alkaiza

Bihotz bat ta Saioa
bider hamar pauta
bihotza nuen eta
beti taupa-taupa
ta orain monogamia
zurrunena hauta
normaldu naiz ta ez naiz
lehengo astronauta
lehen asanbladak neuzkan
orain terapeuta. (bis)

S. Colina

Beraz ez zabiltz gaizki
etapak saltatzen
nahiz lehengo nostalgia
ez zaizun faltatzen.
Saioa ta bihotz bat
pintada hola zen
behintzat saiatu zaitez
berau gogoratzen
ikas dezazun zure
burua maitatzen. (bis)

S. Alkaiza

Boligrafoz egiten
nuen intifada
baina denok zahartzen
gara kamarada!
Ta ertz askotakoa
da orain barrikada
lehengokoei arindu
nahi nieke karga
amore ematen ere
ikasi behar da. (bis)

SARA

2024-02-03

Bertsolariak

Amets Arzallus eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Iban Ithurbide *Peru*

Azken urteotan bezala, Xokobi berria ehiztari etxolan bertso afaria antolatu dute Harrera Elkartekoek. Berrogei bat lagun hurbildu dira bertsoen supazterrera, herriko bi bertsolariez gozatzeraz.

A. Arzallus – H. Aizpurua

Gaia: Kartzelatik aterako diren bi azken euskal presoak zarete.

Neurria: Bost puntuko txikia

Airea: *Lagundurikan danoi II*

A. Arzallus

Ez da errexa izan ateak ixtea
egun hau iritsiko zela sinistea
horra azken preso, horra albistea
hauze da bai neretzat, ta ez da txistea
inoiz nahiko ez nuen ohore tristea.

H. Aizpurua

Irudika ezina baina ez gezurra
haragi ta gorputza dardarka hezurra
azkenak gira Amets hori da segurra
itzulera ez dugu ukanen samurra
betiko izanen al da badugun beldurra?

A. Arzallus

Zalantza bat dudala noa aipatzera
diote preso denak azkenik etxera
baina hori ez da xuxen entzun 'zazu zera
gogoan daramatzat nerekin batera
behin sartu zirenak ta inoiz ez atera.

H. Aizpurua

Atera ez zirenak nola ez gogora?
Nahiko genuke dena hurbil ta ondora
orain beharko dugu guk biek ganora
Zer da etorkizuna? Eta zer gerora?
Sendatzaile bakarra ez baita denbora.

A. Arzallus

Denborak zimurtua dugu begirada
baina umore dena ez dut galdu hara!
Atean kartzelazain betikoa bada
lehen hor zenbiltzan gizon trailari-trailara
orain ni banoa, zu hor gelditzen zara.

H. Aizpurua

Azkenak izan gara beraz artaldean
lehen sentitzen ginen betiko taldean
orain kasik da lotsa matelen aldean
nahiz eta familia badugun parean
kartzelaren itzala dugu gibelean.

A. Arzallus

Baina bizian mila hertsapen badira
bortxaz beti makurtuz goiko legedira
berdin lanera doan harek lantegira
Haira badut duda bat, pasatu ez al gira
kartzela ttipitikan kartzela haundira?

H. Aizpurua

Gure itzala soilik ukan urtez urte
manifen oihartzunak, milaka entzute
aurten azken presoak aipatua dute
batetikan bestera pastea ez uste
betirako makurtu eginak gaituzte.

A. Arzallus

Sasira aspaldian joan ginenean
amets haundi batzuek nik begi menean
gauzak ainitz aldatu dira azkenean
baina egi bat badut gaurko orenean
libre izango naiz denak libre garenean.

H. Aizpurua

Urteetako beldurra dugu ahoratu
zulo ilun batekin dugu konparatu.
Joan diren guziak nola gogoratu?
Bagoaz etxera ta denek ohoratu
noizbait egingen dira sasiak loratu.



PASAIA

2024-02-03

Bertsolariak

Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Oihana Bartra eta Oihana Iguaran

Gai-emailea

Amaia Agirre

Seigarren urtez jarraian antolatu du Bixi-Bixi elkarteak jaialdia Juanba Berasategi auditoriumean.

I. Zubeldia – M. Lujanbio – S. Colina- A. Arzallus – O. Bartra - O. Iguaran

Gaia: Inauterietan marrazki bizidunez mozorrotzeko gaia jarri dute Pasai Donibanen. Zu, Iker, mozorro lehiaketako epailea zara eta zure bertsokideak aurkeztu dira bertara.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

I. Zubeldia

Hara Maialen non azaldu dan
guapa bezin pinpilina
Dragoi Bolako Gokun andrea
genuen Txitxi sorgina
nahiz ta ez daukan antzik
ta ez daukat zalantzik
hori da gauza jakina
iruditzen zait biak dutela
mala ostia berdina. (bis)

M. Lujanbio

Hain zeinen ondo deskribatu naun
fidel eta fin, mesedez!
Epaimeaiko hornitu dute
begi zoliz, begi trebez
ta nunbait Dragoi Bola
ta andre bat badagola
nabilela Txitxi legez
mala ostia disfrazana da
ni sinpatika naiz berez. (bis)

I. Zubeldia

Honi tankera hartzeko ere
daukat istilu larria
baina idea ona izan du
edo ikaragarria
lehen zegon sarkofagon
piramidean ondón
Egiptotik ekarria
Tutankamonen momia da hau
bendatu berri-berria. (bis)

S. Colina

Nahiz Tutankamon tunban kanone
bilakatu dun gutxika
marrazki bizidun asko ez duzu
Zubeldia ikusita
aitortzen dizut egiz
mozorrotu nahiz Heidiz
ez Doraemon, ez Novita
paga ez dit eman ta etorri naiz
aitona etxean utzita. (bis)

I. Zubeldia

Amets zetorren kalean lasai
 ta begitan jo dit gogor
 horren perfektu disfrazatuta
 ez baitet ikusi inor
 betaurreko ta guzi
 ez dator hain itsusi
 beti zintzo, beti jator
 Filemon ez da agiri baina
 Mortadelo pozik dator. (bis)

A. Arzallus

Ene bakoitzak izaten baitu
 lker bere esentzia!
 Don Kijote ta Santxo Panzakin
 bazegon diferentzia
 erdal literatura
 dator gure mundura
 ta hor nago irentsia
 Mortadelok euskeraz badaki
 laster da independentzia. (bis)

I. Zubeldia

Oihana ere hortxe zetorren
 egoera zeinek salba?
 Galdetzen nuen mozorrotu da
 o pertsonaia bera da?
 Honek dauka artea
 ta emango det partea
 poltsikoan daukan falda
 Martins berrikin dotore dator
 Bilbo aldetik Mafalda. (bis)

O. Bartra

Ni ez naiz horren zaharra barkatu
 ta erratu zara garaiz
 nahiz ta holako konparaketa
 egin izan didaten maiz.
 Beraz ni naiz Mafalda
 ironiagatik al da?
 Nator zure txiste usaiz
 geldi dezagun mundu puta hau
 eta jeitsi egingo naiz. (bis)

I. Zubeldia

Azkenekoa Oihana da ta
 bukatuko det jolasa
 saria honi emango diot
 pentsatu det nere kasa
 hor datorre kalean
 karpeta magalean
 aztoratu ohi du plaza
 zeinen dotore gelditzen zaizun
 Amaia Agirren disfraz. (bis)

O. Iguaran

Hautsi nahi nuen komikiaren
 ta marrazkiaren marka
 ta aldarri bat gorputz eginda
 kalean eman matraka
Ai Pantailak euskaraz
 ta marrazkiak lagaz
 eman nahi nuen gaur lata
 Lazkao Txiki eta Txirrita
 zaharrak geratu dira ta. (bis)

IRUÑEA

2024-02-08

Bertsolariak

Amets Arzallus, Eneko Lazkoz, Saioa Alkaiza, Nerea Ibarzabal, Ekhiñe Zapiain eta Eneko Fernandez

Gai-emailea

Ander Aranburu

Arratsaldeko 19:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan eman zaio hasiera 33. *Bertoarolari*.

E. Lazkoz – S. Alkaiza

Gaia: 1978ko San Ferminetan gazteak zineten baina urte hartan gertatutakoa oso gertutik bizi izan zenuten. Polizia zezen plazara sartu eta sarraski bat izan zen: German Rodriguez erahila, balaz zaurituak, milaka pilota jaurtiketa... Martin Villa, orduko poliziaren arduradun eta Espainiako barne ministroa Iruñera dator berriro. Protesta ekitaldira joan zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Elizan sartu ziradenian A*

E. Lazkoz

Gu garai hartan gazteak ginen
ta izanak aski zori
balak, pelotak, bota zituzten
jo nahirik hamaika txori
gaur Martin Villa Iruñean dago
aditu al duzu ongi?
“*Tiren a matar*” agindu zuen
sasikumea da hori.

S. Alkaiza

Grisek gorriak ikusarazi
ta zenbat kopeta belzte!
Nola iragana bilakatzen den
orainaren zilbor-heste
hiltzeko agindu zuen ta goaz
hitzaldira justizia eske
gure biktimak balio beza
besterenak bezainbeste.

E. Lazkoz

Baina haientzat ez da berdina
gureen kalitatea
toki guztitan, aro guztitan
ez baita berdin pakea.
Azpiratuok beti daukagu
estu loturik katea
ta azpiratzetik bizi direnek
beti inpunitatea.

S. Alkaiza

Txalo artean gauzatuko du
kontentu elkarrizketa
ta gu kalean hau salatzean
jendartearen baita meta
baina funtsean dena antzeko
gu bazterrean gaude ta
haiek medailak dauzkate eta
gure kunetak beteta.

E. Lazkoz

Haien eraso latzek eduki
dituzte hainbat eragin
horregatik pankarta atzera
hurbildu gara gaur arin
zazpi garraxi bota ditugu
gure amorru, gure min
ta orain etxera noa sentituz
ez dugula ezer egin.

S. Alkaiza

Zeozer egin dugu Eneko
konzentra eta atari
Martin Villaren harrera izanda
gure gorrotoen kabi
behintzat oihu bat garraxi isil bat
ez baikabiltz hortan nagi
odolez zikindua den hori
ez dadin bueltatu garbi.

E. Lazkoz

Odolez zikin dagoen hori
ez dugu gizon bikaina
baina ze erraz barneratzen den
gure herrian Espaina!
Villak Iruñea ezin zapaldu
bizi behar luke baina
gure herriak ez du indarrik
sartzen ez uzteko aina.

S. Alkaiza

Gure herria ez da herri bat
ditu hamaika aldagai
eta faxistak Nafarroako
parajeetan daude zai
horregatikan atera eta
aurpegira oihu egin ai!
German gogoan izanen dugu
gainontzekoak ere bai.



Arabako Bertsolari Txapelketa. Gasteiz. 2024-03-16.
Aiaraldea Ekintzen Faktoria. XDZ

SORALUZE

2024-02-17

Bertsolariak

Sarai Robles, Eli Zaldua, Miren Artetxe eta Nerea Ibarzabal

Gai-emaileak

Ainhua Urien eta Ainhua Larretxea

Emakume bertsolarien eta bertsozale feministen topagune bilakatu da Soraluze, *Señora Bertso Eguna* bertan ospatzen ari baita, belaunaldien arteko sareak indartu eta emakume bertsolarien ahalduztzean aurrera urratsak emateko xedez. Goizetik arratsaldera arteko ekitaldiz betetako egitaraua ari dira betetzen, tartean, arratsaldeko bertso saioa.

S. Robles

Gaia: Lehiari buruz kantatzeko eskatuko dizugu. *Señora Sariketak* beste leku batetik begiratu izan dio lehiari, berrikuntza handi bat izan da hori. Lehiaren ikuspuntu hori bertsolaritzatik haratago eramateko eskatuko dizugu. Nola bizi dugu lehia euskal kulturgintzan, oro har? Zer harreman dugu feministok lehiarekin?

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Loreak udan ihintza bezela I*

S. Robles

Nor kritikatu? Nor zoriondu?
Nori zuzendu lorea?
Nork du ilerik punkiena ta
nork du jantzi dotorea?
Espektatibak nork bete ditu?
Nork du karta bat gordea?
Gaurko Señora Egunean nork
bota du agur hobea?

Twitterreko like² eta bertxio
zein egunkariko aipu
behin hasitako ekimen hura
zeini esker da jarraitu?
Ondokoari begira gaude
nahiz nahi genukeen amaitu
ongi gaudela performatzek
leher eginda uzten gaitu.

Lehia guztiok bizi izan dugu
noizbait bertatik bertara
gure idealen kontra doala
sentituaz beharbada
“Lehiakorra naiz” esate hutsak
sortzen duenez ikara
irabazi nahi izateagatik
errudun sentitzen gara.³

Ta feminista baldin bazara
bikoitza denez erronka
txapelketa bat ez da bakarrik
bertsoa pentsatu, bota.
Saia gaitzen ahul izaten
horretan lana dago ta
geure artean ta batez ere
gure kontraesanen kontra.

2 “Laik” ahoskatu du.

3 Argia joan da, eta hurrengo bertsoa mikrofono-
notik kanpo kantatu du.

IRUÑEA

2024-02-22

Bertsolariak

Ane Zuazubiskar, Xabat Illarregi, Jone Uria, Andoni Egaña, Saats Karasatorre eta
Joanes Illarregi

Gai-emailea

Ainhoa Larretxea

Nafarroako Bertsozale Elkarteak beste urte batez antolatu du *Bertsoaroa*. Antzerki Eskolako aretoan egin da jaialdi hau.

A. Zuazubiskar – A. Egaña

Gaia: Bertze garai bateko kontuak dirudien arren berriz hizpide pilotakadak eta polizien kargak. Tolosako inauterietakoan begian zauritua bada eta ikusmenaren zati bat galdu omen du; Bilbon duela urte pare bat; hemen Iruñean ere izan zen antzekoa...

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Egaña

Ai poliziak gehiegikeri
asko egin du nabarmen
orain gazteak begi bat galdu
festara irten ondoren
poliziarik behar al dugun
ebatzi behar da hemen
ta behar bada gero erabaki
nolakoa izan behar duen.

A. Zuazubiskar

Zertarako eta zer lortzeko
nork behar du polizia?
Askok begia galdu badute
ta Cabacasek bizia
hain nabarmen ta begi-bistako
zaidan honetan auzia
ulertezina zait oraindik ai
askon ezin ikusia!

A. Egaña

Ene herria ta polizia
gaur egun dira bi mundu
hainbat tokitan herriak biak
lotzea ere lortu du
baina batura den polizia
ez nago oso seguru
dispersense-ka aritzen zaigun
eredu hori badugu.

A. Zuazubiskar

Eta horrela aritzen dena
berez da salagarria
polizia da arrazista ta
jarrera dauka larria
ereduaren duda-mudetan
zeozer naiz igarria
munduko zein lekutan dugu ba
polizi eredugarria?

A. Egaña

Polizia bat saia zitekeen
herriangana hurbiltzen
baina tamalez saiatzen dira
ahalik arma gehien biltzen
hanka sartzetan inoiz diote
sentitzen dugu, sentitzen
eta horrelako kasutan ere
inork ez du dimititzen.

A. Zuazubiskar

Monopolio erabatekoz
dabiltzala alegia
eta horretan ebasten zaio
gaztetxo bati begia
gure keinu bat da biolento
hori da haien egia
eta karga bat gero sekula
ez, ez da indarkeria.

A. Egaña

Ene Tolosan igual zen kale
edo igual zen arkupe
gaztetxo batek begia galdu
hala kontatu digute
“Hau argituko dugu bai noizbait”
politikariek kutre
segundu baten galdutakoa
argitzeko hiru urte.

A. Zuazubiskar

Eta begia ez da begi truk
berez horren kontra nago
nere burua sumatu arren
panfletogintzan zeharo
poliziaren kontra jarduten
segi nezake luzaro
ze polizirik ez zait gertuko
aguaziletik harago.

J. Uria – S. Karasatorre – J. Illarregi

Gaia: Ongiaz eta gaizkiaz aritu gara. Jone zu izanen zara Joanesen ongia. Saats gaizkia. Egoera batzuk paratuko dizkizuet eta bakoitzak bere jarreratik zer egingen lukeen. Jonek ongitik, Saatsek gaizkitik eta Joanesek benetan zer egingen lukeen.

1.- Lurrean 50 euroko billetea aurkitu duzu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

J. Uria

Berrogeta hamar euro
hor zeuden tabernan
topatu ta zer egin
hor nabil dileman
bertsozalearekin
ai zenbat harreman!
Onena igual euro bat
bakoitzari eman. (bis)

S. Karasatorre

Billete haundi hori
eskuetan hartu
eta bi aldetara
xuabe begiratu
poltsikoraino goxo
eta xuabe sartu
ta gero besterikan
ba ote den bilatu. (bis)

J. Illarregi

Lagunekin tabernan
posible ote da?
Ta bati billete bat
patrikatik behera
niretzat hartuko dut
denon mesedera
ta erori zaionari
trago bat atera. (bis)

2.- Erosketa egiten ari zarela, sartu berri den bat zure aitzinean kolatu egin da.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Agur sagar beltzeran*

J. Uria

Hara erosketetan
hurrengo problema
ni bi esne kaxarekin
kajeroan barrena
ondokoak karroa
beteta du dena
ta pasa da eskatu
gabean baimena
ta nik eskatu diot
hari barkamena.

S. Karasatorre

Nola hemen ez daukan
inortxok kontrola
aurretikan pasa zait
egin gabe kola
halakoak gertatu
izan dira hola
baina ez diot esango
deus ere inola
berroita hamarrekoa
erori zaiola.

J. Illarregi

Eroski baten sartu
eta berehala
amona xahar bat makur
aurrerantz doala
aurretik kolatu zait
nahi gabe bezala
nere esneak zintara
bota ditut, hala!
Nereak ere berak
ordaindu ditzala.

3.- Aparkatzen ari zarela atzeko kotxeari kolpea eman diozu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

J. Uria

Akatsak egitea
zer da? Humanoa.
Bizitza hontan hori
gure erritmoa
ta akatsak onartzea
da gauza sana
gauzak ondo eginda
hemendik banoa
hor dauzka billete bat
ta telefonoa.

S. Karasatorre

Kotxean egongo naiz
goxo pipak jaten
ta bera etortzean
ni halako baten
parera agertuko naiz
ta zera esaten
berak jo nauela ni
ta garrantzia ken
ea nirea ere
konpondu dezakeen.

J. Illarregi

Aparkatzen atzeko
kotxea kolpatu
ta inguruko jendeak
neri begiratu
beraz paper batean
ipini bi datu
kapoaren gainean
hau dut izkribatu:
“Kolpe bat eman dizut
mesedez barkatu”.

IRUÑEA

2024-02-23

Bertsolariak

Eki Mateorena, Janire Arrizabalaga, Kattin Madariaga, Sabin Abarrategi, Jon Mendiluze eta June Aiestaran

Gai-emailea

Ainhua Larretxea

Aurten ere bada gazteen bertso jaialdia *Bertsoaroan*. Laban burutu da, ostiralez.

E. Mateorena – J. Arrizabalaga – K. Madariaga – S. Abarrategi – J. Mendiluze – J. Aiestaran

Gaia: Aztertu diren figurak dira erdigunearena eta periferiarena. Baina zer dira? Zer dago zuen bizitzan erdian eta zer bazter batean?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

J. Arrizabalaga

Erdigunea, periferia
eta horren alegian
pentsatzen hasiz sarri jarri naiz
kontu horrekin miserian
erreparatuz nire taxuan
edo nire aurpegian
nire burua ez daukat sarri
behar besteko erdian.

J. Mendiluze

Erdian zer den pentsatu eta
erantzuna dator ti-ta
nahiz ta aukeran ez den nahi nukeen
bezain on eta polita
Unian⁴ aurten hasi naiz baina
ezin ondo iritsi ta
azken egunak pasatu ditut
ikasmahaiari josita.

J. Aiestaran

Zalantzak egin ohi ditugu maiz
hau pentsatzen dugunean
baina ibili nahi izaten denez
beti era txukunean
harremantzean eta lagunak
zaindu behar diren unean
nik jaso nahiko nukeen hori
jartzen dut erdigunean.

E. Mateorena

Nahiz ta saiatu erdigunean
inoiz ez ipintzen mina
eta norbera jarri behar dela
maiz entzuten da jakina
baina besteen iritziekin
gertatzen al da berdina?
Erdigunea igual daukagu
txikiegia egina.

⁴ Unibertsitatean.

S. Abarrategi

Gauza ederrak txikiak dira
 horixe dugu patua
 ta gaztetasun honek ez al du
 lana be' isolatua?
 Astean zehar ibili ohi naiz
 leporaino nekatua
 nire erdian soilik sartzen da
 ostiral ta zapatua.

K. Madariaga

Ikasketak ta lagun taldeak
 horrekin dut nik borroka
 erdigunea zaintzen ari naiz
 hauskor xamarra dago ta
 baina oholtzan ni agertzen naiz
 periferiaren kontra
 erdi-erdian mikro bat bada
 bertzeak ez dit inporta.

J. Arrizabalaga

Dikotomia hortan isuri
 ditut horrenbeste malko
 posizioan eginak ditut
 baitara hainbeste salto
 bi hoi en artean horrexegatik
 zenbatetan lekuz kanpo!
 Ertzekoegi zentrorako ta
 zentroegi ertzerako.

J. Mendiluze

Zentrotik urrun zer dauzkadan nik?
 Galderak eta problemak
 planik onenak familiaren
 o bestela lagunena
 urrun dabilzkit askorentzako
 direnak gauza onenak
 periferian dauzkat zentroan
 beharko lukeen den-denak.

J. Aiestaran

Periferian zer den aldatu
 daitezkenez perspektibak
 bi kontu ondo dituen horrek
 aldiro dauka gaizki bat
 beraz nahi bada eman dezala
 buelta zalantzaren zibak
 erdira ekarri behar ditugu
 norbere barne mobidak.

E. Mateorena

Ainhoak gutaz ari gintezen
 bilatzen zuen agian
 ta nik orokor bota dut lehen
 geratu naiz agerian
 introspektibo keinu bat jarri
 arren nire aurpegian
 askotan nire sentimenduak
 baititut periferian.

S. Abarrategi

Kanpo aldeak izan ohi ditu
 bere jerga, bere arau
 ta udaletxeek hortxe uzten dute
 beti salgai, beti *kolgau*
 jakin zazue Gasteiz aldean
 bizi zaigula tipo hau
 ta periferian beti egoten da
 beste rotonda bat gehiau.

K. Madariaga

Kanpokalde eta erdia
 potoloak dira hitzak
 ta oreka bat ematea ere
 horrek badauzka baldintzak
 nahiz inguruak behar dituen
 munduak eta bizitzak
 gaurkoz bederen jarri dezagun
 bertsoa gure erditzat.

GABIRIA

2024-02-23

Bertsolariak

Iban Urdangarin eta Aitor Mendiluze

Gabiriako Osinalde elkartearen laurogei bat lagun bildu dira, ederki afaldu ondotik bertsolarien etorriarekin gozatzen ari direnak.

I. Urdangarin - A. Mendiluze

Gai librean.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Erreguetan ari nintzela*

A. Mendiluze

Kanpainarena izan da beraz
nahiko azalpen argia
baina menuan denetik bazen
eta aukera haundia
parrillan Aratz ikusi det lehen
eta luzitu da ia
esku berdinek mugitzen zuten
ikatzta ta haragia.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Naparruatik ardo karraio A*

I. Urdangarin

Gure Aratzek parrilla ondoan
dodore egin du tratu
bota aurretik haragi danak
bere erara markatu
han berotu bat emanda gero
partitu eta xehatu
baina mahaiera atera aurretik
hirutatik bat probatu.

A. Mendiluze

Lehenengo duda, egongo al zen
akaso gordin xamarrik
edo bestela paxatuxea
ez zun hainbeste beharrik
probatu esan du Ibanek baina
ez zun intentzio txarrik
lasai zaitezte ez zuen jaten
pixka't zupatu bakarrik.

I. Urdangarin

Gure Aratzek berrogei urte
gertu ditu honezkero
hasera baten jardinerian
lanean hasi zen bero
orain maixuta' omen dijoa
ez nun gutxio espero
parrillero ere hasi liteke
danak fallatu ezkerro.

A. Mendiluze

Baina Aratz da mutil zintzoa
hola ari zen begira
dirudienez eskolarako
ia prestatzen ari da
balio duten loreak utzi
eta belar txarrei tira
jardineritza eta hezkuntza
nahiko antzekoak dira.

I. Urdangarin

Jardineritza eta hezkuntza
nahi al dituzu nahasi?
Dana al da ba bizitza hontan
galdu ala irabazi?
Guri ur gutxi bota ziguten
ta lehortu ginen kasi
nere garaian hargatik ez nun
behar adina ikasi.

A. Mendiluze

Ai baina Iban zeure bururik
ez zazu zuritu hemen
ez zenuela ikasi eta
besteen errua omen
hala ere nola gertatu ote zen
garbi utzi dezu zeren
zenbat eta ur gutxio bota
gutxio lehortzen zinen.

I. Urdangarin

Ikaslek aina erru daduka
irakasle batek berez
nere bidea egin nahi nuen
ta eskatu nien mesedez
baina hala 're ez zun balio
bazar danetan "Ez! Ez! Ez!"
holako maixuk izan banitu
injinieroa gutxinez!

A. Mendiluze

Ez nekiena jakinda igual
aterako naiz hemendik
Iban ikasi nahi zenuela
horrek grazi egiten dit
irakasleak gehio saiatu
behar omen zuten lehendik
Filosofia Fakultadean
zure zain daude oraindik.

I. Urdangarin

Filosofia Fakultadea
urruti daukat barkatu
beste erara bizi nahi nuen
jendeakin einaz tratu
baina ez nuen nere karrera
behar bezela hautatu
politikoa izan nahi nuen
ta enterradore bukatu.

A. Mendiluze

Bejondaizula herdoil handirik
ez daukazu mingainean!
Politiko nahi ta enterradore
ari zera orainean
ez zabiltzala hain gaizki ere
esango det ordainean
bietan lurra botatzen baita
arazoaren gainean.

I. Urdangarin

Bietan lurra botatzen dute
ta ez gainera arina
bietan behar du barrua hotza
eta eskua gordina
hain ezberdinak ere ez dira
egingo nizuke zina
bietarako eskatzen dute
titulazio berdina.

ARROSA

2024-02-23

Bertsolariak

Maialen Lujanbio eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Xalbat Altzugarai

Elgenia ostatuak hilabete guztiz apailatu ohi du kultur ekitaldi bat. Oraingoan bertso saioaren aldi izan da, eta mukuru bete da herrian den taberna bakarra.

M. Lujanbio – H. Aizpurua

Gaia: Ahizpak zarete. Zuen herriko autobus geltokian “Lan gutiago eta orgasmo gehiago!” idazkia egun guziz ikusten duzue eskolara joateko tenorean. Nekoiz ez diozue kasu gehiegirik eman mezuari, baina, Maialen, gaur Haira ahizpa ttipiak galdegin dizu orgasmo hitzak zer erran nahi duen.

Neurria: Lau puntuko txikia

Airea: *Mando baten gainean I*

H. Aizpurua

Erantzuna erranen al didazu errez?

Reakzioa ikusiz iduri du nekez

ulertzea nukenez egun hontan amets

lana badakit zer den baina orgasmoa ez.

M. Lujanbio

Lehertu zait barrua ta lehertu zait garuna

nola eman orgasmoen zure erantzuna?

Lana hitza ere zentzu hain sakona duna

hori ulertu duzu besteri entzuna.

H. Aizpurua

Elkarrizketa biei nola datorkigun

bi matelak gorritu zaizkizunez bigun

harritu egin zira ta kopeta ilun

duda badut Maialen zer den badakizun.

M. Lujanbio

Deskubritzen izan dut nahiko abildade

pista bat emateko jardun naiz xuabe

deskubrituko duzu zuk’e, lasai zaude

orgasmoa nahitara ta lana nahi gabe.

H. Aizpurua

Jakintsua izaten zarenez denetan
horren erantzuna zuk baduzu benetan?
Guk filmeak ikusten ari garenetan
katea aldatzen duzu sexu eszenetan.

M. Lujanbio

Lotsatu egiten naiz amaren gisara
sexu eszenak ikusiz hara, hara, hara
bataren intziria, bestean zartada
norberak egitea ederragoa da.

H. Aizpurua

Nola esplikatu duzun orain dut atsegin
baina ulertzeko nik milaka ahalegin
Biologian edo Anatomian berdin
soilik ikasi dugu haurrak nola egin!

M. Lujanbio

Ez dizute azaldu laztanik, musurik?
Ez dizute azaldu plazerren kexurik?
Ez dizute azaldu azalpeko surik?
Haira irakasleei ez egin kasurik!

H. Aizpurua

Erakasleek ez dute nahikoa ausardi
Biologian entzun beharko dut adi
lotsa pasarazteko pixka bat berari
galdetuko diot gaur erakasleari.



Bihar, Atzo, Gaur, Bihar Loraldia festibalean. Bilbo. 2024-03-17.
Asier Corera (Loraldia). XDZ

IRUÑEA

2024-02-28

Bertsolariak

Miren Amuriza, Unai Iturriaga eta Sustrai Colina

Gai-emailea

Maite Berriozabal

Bertso saio espekulatiboa deitu diote jaialdi berezi honi. Asteazkenez, Antzerki Eskolan egin da, eta etorkizuna bertsotan irudikatzeke ariketa izan da, *Zirriborroak* ipuin bilduma oinarri hartuta.

M. Amuriza – S. Colina

Gaia: Gaur egun Tinderra erabiltzen da. Mundua geroz eta bakartuago dago eta behar dugu topatzea benetan gustuko izango dugun pertsona bat. Ordubetean bada ere eta ordubete eraginkorra. Miren jarri zenuen jendea ezagutzea gustatzen zitzaizula. Sustrai zuri jendea ez zaizu gustatzen eta denbora daramazu asmatu ezinik. Bi hilabete pasa dituzu zain, eta aplikazioak bidali dizkizu lekua eta ordua, eta Miren egongo dela bertan zain. Miren zure bizilaguna da. Sekula ez duzue elkarrekin hitz egin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Behin batean Loiolan III*

M. Amuriza

Hiru kale pasatu
ditut ta segidan
tabernako terraza
baten perspektiban
hara non batu garen
zu hemen ta ni han
hontako portalean
geratuko ginan. (bis)

S. Colina

Portaletik ihesi
ibiltzen naiz usu
ez dakit kaixo esan
ala eman bi musu
ez baitakit zer esan
torpetxo nauzu
bueno, izarak ondo
zabaltzen dituzu. (bis)

M. Amuriza

Eska ezazu kafe bat
honek behar du ta
eta erlaxa zaitez
arnasa hartuta
zu zer zaude nirekin
atsekabetuta?
Edota poza ezin
disimulatuta? (bis)

S. Colina

Barka nere bihotza
denetik harria
askotan trabatzen zait
hitzez eztarria
hementxe nago zurrun
ezin igarria
zugan zehazki zer den
errentagarria. (bis)

M. Amuriza

Errentagarri banintz
biontzako hoba
lasai zaitez ze pasa
dugu ja denbora
bion trapu zaharrekin
behera eta gora
eta kasu honetan
ez da metafora. (bis)

S. Colina

Gure hartu emana
nora doa, nora?
Nahiz izarak zabaltzen
baduzun ganora
trapu zaharrak aipatzen
dituzu gerora
dena eramaten duzu
zure terrenora. (bis)

M. Amuriza

Orain artean batzen
gintuen blokeak
ta orain aplikazio
baten dei torpeak
nik neure terrenoan
ze begi kolpeak
neuk dauzkat eta zure
galtzerdi solteak. (bis)

S. Colina

Hemen guztiak gabiltz
desira ehizan
izan igogailuan
tabernan, elizan
esan nahi al zenidan
poema bailitzan
gu bi galtzerdi solte
garela bizitzan? (bis)

M. Amuriza

Hara ze arratsalde
filosofidunak
lehertu zaizkizunez
neuk be hitzari lumak
bai, bi galtzerdi gara
argiak ta ilunak
rebajetan ta inork
erosi ez ditunak. (bis)

S. Colina

Itxuraz ez garenez
elkarrentzat mauka
errentagarri izan
beharrak jo nau ta
bihar ikusten bagara
zortearen aurka
ba egunero bezala
aupa! eta aupa! (bis)

M. Amuriza

Gaia: Behar bada ez dugu hala irudikatzen baina osasungintza publikoak iraungo du. Jarraitzen dute irudiak eta estetikak izaten garrantzitsu. Orain osasun publikoak bere gain hartzen ditu ebakuntza estetikoak, zoriontsu izateko. Gustatzen ez bazaizu, aldatu! Gaur duzu laugarren ebakuntza estetikoa.

Neurria: Lau puntuko berdina, 8 silabaz
Doinua: *Berdindu nahi nituenez*

M. Amuriza

Berdindu nahi nituenez
edadearen bihurak
hasi nintzen tiratuaz (bis)
masailetako zimurrak.

Irten nintzen ospitaletik
ta ispiluak laguntzen
begiratuta ez nuen (bis)
neure burua ezagutzen.

Bigarrenez joan nintzen
loditu nahian ezpainak
ta erdira ekartzeko (bis)
belarriak ta bekainak.

Eta berriz ispilua
eta berriro zalantza
ez nion ba neure buruai (bis)
hartu neure amaren antza?

Ta hala ere lasai ez
nahiz dirudien gezurra
falta zitzaidan bakarra da (bis)
operatzea sudurra.

Hilabete ta erdian
hauxe izan dut helburu
eta lehengo aldiz gaur (bis)
ez nago ezertaz seguru.

Kamillatik altxatu naiz
ta kirotanotik alde
ospitaleko pijamaz (bis)
eta kulerorik gabe.

Neure buruai diotzat
zoratu ote gaude gu?
Hobe terapeuta aldatu (bis)
eta sudurra mantendu.

HENDAIA

2024-03-01

Bertsolariak

Adrian Arruti, Maddi Ane Txoperena, Manu Goiogana eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Urko Casado

Korrika Kulturalaren kariatara antolatutako bertso saio musikatua da, Irunabar Bertsoaren Bilguneak, Enbata Gaztetxeak eta Korrikak auzolanean apailatua. Beñat Elozegi, Oneka Jauregi, Rafa Rodrigo eta Iban Clemente ari dira musikari bezala.

M. A. Txoperena – H. Aizpurua

Gaia: Maddi Anek duela bi urte argitaratu zuen *Ez erran inori* eleberria. Bertan, haurtzaroko sexu-abusuez ari zaigu Maddi Ane, Lide pertsonaiak bere azalean jasandakotik. Gaur, betiko kafetegiko betiko mahaian dago Maddi Ane; kafesnea alde batean eta libretatxoa bestean, Haira hurbildu zaionean. Halaxe esan dio Haira gazteak: “Iepa Maddi Ane! Ez al nauzu ezagutzen? Lide naiz!”.

Neurria: Lau puntuko handia

Airea: *Geldirik ezin naizela egon*

H. Aizpurua

Ze hotzikara! Behin liburua eskutan nuen, berehala irakurri dut, nere eskutan ispilu balitz bezala ez da errexia izan, arduraz gorritu baitzait azala orrialdeak irentsi ditut malkoak irentsi ahala.

M. A. Txoperena

Ta liburua irakurtzeko izanez nahiko adore deskribatua zinen gaur gisan, aurpegi eta kolore sexu-abusuak indako mina ez zenulako nahi gorde erran zaidazu orain zaudela liburuan baino hobe.

H. Aizpurua

Argia itzali eta itxita leiho ondoko kortinak nola bizitu egin ditudan esperientzia gordinak. Hobeto nago baina ez dira esperientzia atseginak pixka't gutiago ikusten ditut tatuatutako minak.

M. A. Txoperena

Ze abusuak tatuatua dizu gordinki azala Mikel hil zen bai baina hala 're zugar daukazu itzala eta idatziz nik egin nuen zu ulertzeko eginahala nik ere jasan bainuen zer bait, ia-ia zuk bezala.

H. Aizpurua

Beraz zauriak partekatzea hobeki dugu beharba liburu hori esku artean berriz hartu nuen barda kontatu 'idazu, nahi baduzu, bihotz barruan den karga nik behin mintzatzen ikasi nuen, entzuten ikasi behar da.

M. A. Txoperena

Mundu honetan badagolako bertzeengandik zer entzuna ta sarri askotan besarkada bat izaten da erantzuna elkar ulertu dugu ta ze ongi dijoan gaurko eguna ze elkarrentzat izan gaitezke izan ez genun laguna.

H. Aizpurua

Behin sortu eta bizi izan gira gizarte baten kontura komentario eta iraina bihurtu zaigu ohitura onartezina bihurtuko da bortxaketaren kultura gerora indar bilaka dadin sabeleko ubeldura.

M. A. Txoperena

Hain zuzen hola egin nuen nik idazteko kalkulua nahiz biluztea batzuentzako izan den ridikulua erratea da ahalduzta bat ta barreneko ulua biok batera idatz dezagun hurrengo kapitulua.

ERRIGOITI

2024-03-02

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal eta Igor Elortza

Ikuilu elkartean ospatutako bertso bazkaria, Errigoitiko Ekimen Taldeak apailatua.

N. Ibarzabal – I. Elortza

Gai librean.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Naparruatik ardo karraio A*

I. Elortza

Gatxa da gero *Txiplasen* eran
txapela eroaten trabes
baina esan dot hemen bi bider
triumfau behar da gitxienez
ia txapela aitortzen jatzun
badabil nahiko esames
Elkarteak bi juez bidaldu dauz
kenduko jatzun ala ez.

N. Ibarzabal

Beraz erdizka aipatu dozu
ez dakit egiz ta bromaz
nik ja txapela jantzi neban ta
ja estutu neban gomaz
ta bi epaile parean dagoz
apuntatzeko denboraz
baina Elkarteak ez dauz ipini
neronek ekarri dodaz.

I. Elortza

Oraingoan bai itxi nozula
hemen nahiko parregarri
nik gura neban gure txapeldun
barria ipini larri
eta berorrek ekarri ei dauz
gaur be zeozen egarri
ni epaitzera datozela ta
guardaespaldasak ekarri.

N. Ibarzabal

Nahiko makalak izan daitezke
guardaespaldasen antzera
baina historiak egin behar dau
holakoetan atzera
eta txapeldun guztien maila
joan ez dadin galtzera
beraiek datoz zure aspaldiko
txapelak rebisatzera.

I. Elortza

Nik be' merezi ete nebazen
hor ei dabil hainbat jende
sasoi batean ba ete ginen
behar zan besteko trebe
baina hor sasoi baten esan dot
ze urte zan ta ze mende
nik ja ez dakit nire txapelak
non kristo ete dagozen be'!

N. Ibarzabal

Egi handi bat bota nahi zendun
ta joan da lodi-lodi
baina nik Igor ikusten zaitut
txapel hoiek zaintzen ongi
goiz guztietan mosu bat emon
gero laztan bat edo bi
eta gabero xuabe pasa
bolitak kentzeko hori.

I. Elortza

Bolitak kendu hor ibiltzen naz
neure txapelekin pelma
ta hortik dator oherako be
antiojok ez kentzearena
ze han joaten naiz txapel artera
ta hau da esaten dotena:
“Esan txapeltxo, esan txapeltxo
zein da hemen ederrena?”

N. Ibarzabal

Beraz beraiei berbetan zabiz
Igor urteetan barren
ea txapelan ahots ilunak
ze argitasun dakarren.
Esan zenion: “Ai ederrena
nor den esaidazu arren!”
eta txapela erre zenuen
Unai erantzutearren.

I. Elortza

Arrazoi dozu Unai erantzun
ta nik egin neban alde
ez da erreza beti eustea
jokatzea burujabe
seguruenik zure bi txapelak
biak dagoz zure alde
baina nireak bost dira eta
danetik esaten dabe.

N. Ibarzabal

Egia da bai, zuk bost dauzkazu
hori da hori lorpen pila!
Ta antza denez zure bitrina
ez dabil horren isila
egongo dira beti egindako
akats zatarrenan bila
ba talde hori baino nahiago’t
nere herriko kuadrilla.

I. Elortza

Umiltxoago kantatuko dot
lehengoan ondorenean
ezin da eta txapeldun izan
betiko eta danean
sasoi batean nahiko erreza zan
eitea gure lanean
baina bildurrez joan egin nintzen
zu etorri zinenean.

N. Ibarzabal

Ba pena pixka’t hartu dezaket
aipatu duzun horretan
gu tarte motzez ibili ginen
hasieretan berbetan
baina Sopelan bada frontoi bat
maite dodana benetan
kasualidadez han batu ginen
behin Bizkaiko txapelketan.

LAUDIO

2024-03-07

Bertsolariak

Alaia Martin, Ane Labaka, Jone Uria eta Oihana Iguaran

Gai-emailea

Uxue Diaz de Cerio

Emakumeen egunaren harira, egunaren bezperan, antzokian osatu dute jaialdia.

A. Labaka – O. Iguaran

Gaia: Oihana etxez aldatu zara eta berrian Ane, txikitako laguna, ezkaratzean topatu duzu. Urteak dira ez duzuela elkar ikusi. Kafea hartzera joan zarete.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Zure bular politik*

A. Labaka

Betirako geundela
emandako hitza
baina gerora dator
hainbeste baldintza!
Berriz gu elkartzera
ausartuz bizitza
ez dakit nundik hasi
zer moduz zabiltza?

O. Iguaran

Ta hori entzuteak
erdi poz ta pena
baina entzun dezaket
hots bat umeena
eser gaitezen lasai
konta'idazu dena
ze ona bizilagun
izatearena!

A. Labaka

Bi bizilagun txiki
polit, idealik
ez nuen espero ez
amets errealik
tinbrea jo ta hara
zabalduko balit
nahita utziko dizut
atea zabalik.

O. Iguaran

Ba honek eragin dizkit
oroitzapen pila
eskolara bidean
noizbait zure bila
ezkaratzean ring-ring!
Ta piztuz bonbila
zure amari esanez
"Ane jeits dadila"

A. Labaka

Bai eskatuko ditut
mila erreskate
umea bihurtzen zait
sarri errez kate
baina ai pentsatuta
zenbat borondate!
Zure begi zuloek
salatzen didate.

O. Iguaran

Bai elkar laguntzeko
izango gera gai
eta gure umeek
ze haurtzaro alai!
Ta sekula bazaude
deskantsu baten zai
aurretik deitu gabe
ekar'zazu lasai.

A. Labaka

Baina jetxitakoan
a ze panorama!
Ez nuke nahi hitz bitan
konfatzea drama
kafeaz hoztu aurretik
nola bota dana?
Orain ama falta zait
ta ni neu naiz ama.

O. Iguaran

Bai nik ere baditut
bi ume ta ametsak
bihurtu zaizkidanak
begi zulo beltzak
elkarren konpainia
badaukate behintzat
bi bizilagun txiki
zure haurrarentzat.

Alaia Martin

Gaia: Gaurko urtebetetze festa antolatu behar duzu

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

A. Martin

Zahartzea niretzako
ez da izan arazoa
urtemuga urdindu ahala
luzatzen du hara soa
omentzen dut nire amona
ama edo arbasoa
gaur goraino bete nahi dut
reserba ardoz basoa
azken urteetan izan naiz
konplazientea, goxoa
eskuzabala, jatorra
besteentzat eroso
gaur nik bakarrik jan nahi dut
nire bizkotxo osoa. (bis)

Egunerokoak hartzen
gaituenez bere ziegan
egunak, asteak eta
hilabeteak hileran
joaten zaizkigu fijatu
gabe gure ibileran
gaur gelditu egin nahi nuen
besteekiko jarri greban
deskonektatu ta arnasa
nire buruari eman
mobila aparte utzi dut
ez naiz azaldu tabernan
modo aviónen egon naiz ta
eguna joan zait hegan. (bis)

Mantel dotorena jarri
neure mimo, neure gustu
urte berri hontan egin
nire aldera apustu
ta hilabete guztiak
bihurtu bitez abuztu
ez dut beldurrez bizi nahi
hanka ez sartzeko juxtu
nahi ditut espektatibak
ahal den neurrian zapuztu
eta bestela pentsatu
ez epai, ez aurrejuzku
urtea esperientziz bete
ta behar ez denetik hustu. (bis)

PORTUGALETE

2024-03-09

Bertsolariak

Julio Soto eta Aissa Intxausti

Gai-emailea

Asier Alcedo

Portugaleteko Merkatuan izan da bertso-afaria. Aurrez triki-poteoa izan da Coscojales karrikan gaindi.

A. Intxausti – J. Soto

Gaia: Julio, 95 urteko agure bat zara. Urtero joan zara *Korrikan* parte hartzera hankek utzi zizuten arte. Orain, justu-justu egunkaria eta ogia erosten dituzu zailtasunekin. Aurten ilusio bereziz hartu nahi zenuen *Korrika*, eta Aissari proposamen bat bota, eta Aissak baietz esan dizu. Aissa herriko gazte indartsu eta motibatua da euskararen alde dagoena, eta esan du, saman hartuko zaituela eta Portugaleteko ibilbide osoa gainean eramango zaituela. Kontua da, zuen artean hitz egin zenutela ibilbidean zehar hitz egingo zenuela, baina bafleen soinuaren ondorioz, ez duzue elkar entzuten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Azienda bat dago*

A. Intxausti

Lepoan ipini zait
aupa gure zaharra!
Horren motibatua
ta horren makarra
ni al naiz gaur dakazun
pertsone bakarra?
Ja pixka't min egiten
hasi zait bizkarra.

J. Soto

Aissa eskertzen ditut
asko zure aupak
hemen goitik sentitzen
ditut bihotz taupak.
Hizkuntza baten alde
denak astronautak
baina audifonoak
altu xamar dauzkat.

A. Intxausti

Aldapa hauek pixka't
neketsuak dira
eta ni hemen nabil
tira eta tira.
Pozik ikusten zaitut
hemendik begira
"Ika! Ika!" zarataka
nire belarrira.

J. Soto

Proposatu zenidan
halaxe beti zu
igoko al nintzen ta
ni ez jarri izu.
Ikusten bagaituzte
gaur korrika aizu!
AEK-k omenaldi
bat egingo dizu.

A. Intxausti

Ez da egitearren
alperrik protesta
behan txosna jarri dute
hortxe dago festa.
Gainera hau ez al dago
ta jentez gainezka?
Nekatuta zaudela
esan duzu ezta?

J. Soto

Jakinda laurogeita
bi kilo ditula
gainean hartu duzu
aitona mardula.
Nahiz ta egiten duzun
batzutan eztula
nabari da bai *crossfit*
egiten duzula.

A. Intxausti

Ez dut ondo aditu
ez al da kexatu?
Mimika egingo dizut
nekatu-nekatu.
Polita izango zela
nuen imaginatu
zergatik ez nuen beste
turnoren bat hartu?

J. Soto

Portun elkartu gara
ia infinito
nola gure hizkuntza
hain dugun begiko.
Baina_atzeraka goaz
behin eta betiko!
Joan zaite azkarrago
arre burrikito!

A. Intxausti

Sonotonearekin
ez du nahiko arte
atzetik bota dizkit
pare bat atake
baina ni nekatu naiz
eta ia enpate
ez zaitut eramango
Baionara arte!



Bertsolamintza. Amasa-Villabona. 2024-03-23. XDZ

GASTEIZ

2024-03-16

Bertsolariak

Manex Agirre, Aroa Arrizubieta, Peru Abarrategi, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi
eta Paula Amilburu

Gai-emaileak

Oier Suarez

Aroa Arrizubieta Barredo

TXAPELDUNAREN AGURRA

Neurria: Hamaseikoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Nere gorputza dardarka daukat*

Promesa handiz, ahoak betez
ari dira bonbak lehertzen
eskubideak murrizten eta
jendea etxegabetzen.
Nola nahi dute honen aurrean
geldi geratu gaitezen?
Nahiz ta betatzen ari zaizkigun
berdin Bilbon zein Gasteizen
sinisten dugun honetan irmo
dihardugu GKSñ
politiko ta enpresen
aurrean altxatuz ezen
egungo gazte belaunaldien
zeregina ez ote zen
borrokatzea bihar gaur baino
hobeto bizi daitezen?

AMASA-VILLABONA

2024-03-23

Bertsolariak

Sustrai Colina eta Miren Artetxe

Gai-emailea

Eli Pagola

Larunbat goiz osoko *Bertsolamintzako* jardunaldien ondoren bazkaria izan da Behar Zana elkartean.

M. Artetxe – S. Colina

Gaia: 2022ko Txapelketa Nagusian, Irungo finalaurrekoan kantatu zenuen Sustrai: “Agian ni entzutea / egingo zaizu arraro / bizkarrean daramaten / hilkutxa baten bainago” zure hiletara ez joatea erabaki zenuenaren paperean. Eta Miren, zuk txapelketa berean Amurrikoan abestu zenuen: “Hilkutxa lauso ta tinko / bera jetsi eta kitto! / Harrian kanka! Jotzen duenean / ez da beherago jetxiko / zu niri bezain hotz eta astun / bekizu lurra betiko” zianuroarekin zure senarra hil zenuenaren paperan. Bistakoa da istorio beraren bi parte direla horiek. Miren eta Sustrai, senar-emazteak zarete. Mirenek Sustrai hilko duen bezperako eguna da. Sustrai lanetik etxera heldu da. Miren ere lanetik etorri da, baina denbora eman dio afaria prestatzeko. Etxeko giroa aspaldi honetan tentsioz betetakoa da. Bi platera zerbitzatu dituzu Miren eta mahaian eseri zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Lo hadi ainguria*

M. Artetxe

Etxean ze deskantsu
ze deskantsuondo!
Hemen batzuk beti lan
besteek berriz tongo
ez al zen arrai zopa
zozogi egongo?
Galdetu egingo dut
“Gatzez eta ondo?”

S. Colina

Seguru arrain zopa
dagola itzela
ez litzake mahaira
helduko bestela
baina gaur ez naiz gose
minez dut sabela
laister hilko naizela
baneki bezela.

M. Artetxe

Intuizioz edo
zerbait badakizu
biharkoan pentsatzen
ai Sustrai beti zu!
Arrazoiak dituzu
egoteko izu
zure hezurren saldak
on egingo dizu.

S. Colina

Nahiz ta bihar hiltzeak
ez duen deus txarrik
momentu honek nauka
izoztu xamarrik
nere bizitzan filma
datorkit, beharrik!
Baina ikusten zaitut
zu bakar-bakarrik.

M. Artetxe

Sustrai a ze ametsa
bakarrik banengo
ohean zabal-zabal
goizero-goizero
egitan ez dudala
besterik espero
Ocaso-ko paper hau
sinatu lehenengo.

S. Colina

Nahiago nuke pixka't
lasaio bazeunde
hamarkadak joan dira
ta elkarren mende
andrea zin dagizut
hemen alafede!
Lana emango dizut
hil da gero ere.

M. Artetxe

Ez nauzu ez pakean
utziko zuk bela
lasai sinatuko dut
Ocaso-n papela
nik damu bakarra dut
ta diot horrela
zu hiltzea behin bakarrik
egin daitekela.

S. Colina

Ni behin soilik hilko naiz
gehienen gisara
ta eramango naute
gainetik izara
zu zure erruekin
geratuko zara
bizitzen ez uztea
okerragoa da.

DONOSTIA

2024-04-19

Bertsolariak

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Sebastian Lizaso

Gai-emailea

Ainhoa Larretxea

Donostian *Bilintxen Menda* izeneko bertso hamabostaldiaren bigarren edizioari eman dio hasiera txapeldunen jaialdiak. Lugaritz Kultur Etxean, Antigua auzoan, izan da.

A. Arzallus – S. Lizaso

Gaia: Txapeldun izanak zarete zuek. Sebastian 1986an eta 2009an ⁵ Amets. Zer izan zen zuentzat hura? Eta, gaur egun nola bizi duzue?

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espanian behera*

⁵ Gai-emailea dataz nahastu da, A. Arzallusek ez baitzuen 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi.

A. Arzallus

Txapela goitik jausi
zen han egunean
eta nolako poza
biharamunean
baina argi bat piztu zait
memori ilunean
bi mila ta hamahiru dut
nere albumean
orain bi sartu dizkit
curriculumean. (bis)

S. Lizaso

Hoitazortzi urte ta
sasoi bikainean
ni ez nintzen egoten
hasi ezinean
finala jokatu ta
haren ordainean
txapela eraman nuen
buruan gainean
poza eta pisua
neurri berdinean. (bis)

A. Arzallus

Ai, baina Sebastian
goazen pausuz pausu
larogeita seiari
egin diot kasu
txapela terapia
bezala daukazu
orduko argazkiak
ikusiz ai'zazu!
Berrogei urteotan
gaztetu zera zu. (bis)

S. Lizaso

Ateraldi horrek maiz
egiten dit grazi
baina hortaz pentsatzen
zertarako hasi?
Beti sentitzen dena
bertsoz adierazi
inoiz ez naiz ibili
lanetik ihesi
heldu ta gazteekin
kantatzen ikasi. (bis)

A. Arzallus

Txapelak ditu bere
aurki ta ifrentzu
hamaika norabide
beste hainbat zentzu
baina hitz hoién jiran
makina bat pentsu
Sebastian oraindik
sasoi badezu
berriro aurkezteko
moduan zaude zu. (bis)

S. Lizaso

Ez, ez, sorpresa hori
ez daukat gordea
nere buruarekin
galdu nun fedea
bertsoakin lotura
badaukat ordea
ta ni han ikustea
ez da nobedadea
entzuten gozatzea
ez al dut hobe? (bis)

A. Arzallus

Eta orain neuretik
beharko erantzun
nola bi mila beatz
aipatu didazun
Maialenen agurra
nuen nik han entzun
barne emozioek
hamaika oihartzun
hark txapelak bezainbat
balio izan zun. (bis)

S. Lizaso

Berezia txapelak
dadukan dizdira
erabiltzen jakinik
behar dan neurri
eta jarri gaitzen
gerora begira
txapelaz gozatzea
gehiagok desira
baginen, badira ta
etorriko dira. (bis)

M. Lujanbio

Gaia: "Horra zer den gure Donostia" dio gure kantu ezagun batek. Eta zuretzat, zer da Donostia?

Neurria: Hamabiko ertaina

Doinua: *Gai horrek badu mamia*

Aieteko autobusa
Donostia hori da
Hontza liburu dendara
tartean zenbait jira
igual Victoria Eugeniara
ta Kursaal antzokira
tarteka pintxon bat ere
jan izandu det tira!
Azken aldin pentsatzen det
jende pilan harira
Donostia hemen da baina
donostiarrak non dira? (bis)

Kantura gustora beti
Lugaritza deitzean
begiak loriatan beti
itsasora beitzean
neguko argi ederra
pakeari gehitzean
baina udara parteko
hain soinu anitzean
jendez bete, soinuz bete
egunak argitzean
oraindik jiratu eiten naiz
euskara aditzean. (bis)

Badauka kultur bizitza
ez gainera debila
zinera ere etortzen naiz
ale ederren bila
aparkatzea garesti
ta hala izan dadila!
Busez etorri, gilda jan
oliba ta gindilla
ze ederra Irutxulo
nolako marabilla!
Hauxe da hiri bat bere
edertasunak hila! (bis)

ODIETA^(ERRIPA)

2024-04-27

Bertsolariak

Miren Amuriza eta Uxue Alberdi

Gai-emailea

Iñigo Ibarra

Ultzamaldeko bertso eskolako gurasoek eta Odietako Udalak antolatu dute, beste behin ere, Erripako bertso saio musikatua. Josu Lizarraga eta Peio Belaskoain aritu dira musikari gisa.

M. Amuriza – U. Alberdi

Gaia: Erripako herritarrek oso kezkatuta daude, XXI. mendean egonagatik tabua delako oraindik sexuaz mintzatzea. Hori dela eta, herriko emakumeek tailer bat antolatu dute, eta Uxue sexologoa ekarri dute. Eta hantxe iritsi da maleta dotore batekin eta hasi da hitzaldia ematen. Maletatik jostailuak ateratzen hasi da: bibragailuak, bola txinatarrek, lurrinak... Eta hantxe dago Miren, herriko amonatzok bat, sekulako interesarekin, galdetu eta galdetu.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Zenbat gauza ekarri / Quiero ver*

M. Amuriza

Zenbat gauza ekarri
dituzun mahaira
luze horiei nago
albotik begira
telebistako mando
bat ematen du tira!
Atzetik edo aurretik
nondik sartzen dira?

M. Amuriza

Bola paretxo hori
nahi nuke ukitu
bart ez nintzela jaio
baitzaizu iruditu
neuk ere bi hatz ditut
badakit non mugitu
Amerika ez zenuten
zuek deskubritu!

M. Amuriza

Garuna martxan beti
eduki dut neuk be'
nahi nukeen lekuraino
eroango ninduke
baina zuek ikusi
ta ze esango nuke
atrapauko nituzke
berriz hogeit urte!

U. Alberdi

Joño! Harritu egin nau
ausarta Maritxu!
Taldera etorri da
ta dabil berritsu
galderak egiteko
ez batere izu
zuk diozuna baino
gehiago dakizu!

U. Alberdi

Noski nik egin behar
txistuari trago
deskolokatu egin nau
Maritxuk zeharo
baina gauza batean
ados gaude, klaro!
Jostailurik onena
garunean dago.

U. Alberdi

Larogeirekin ere
pasa leike ongi
bi bibragailu hemen
larrosa ta hori
sakatu botoiari
ta hau sartu tori!
Inoiz sentitu al duzu
bibrazio hori?

M. Amuriza

Sentituko ez nuen ba?
Gainera mantendu
beraz kajatxo hori
nire aurretik kendu
almohadak eta frutak
nahiz inork ez baimendu
etxean zegonakin
konpontzen ginen gu.

U. Alberdi

Beraz zirri usaina
zebilan haizean
ta moldatzen zineten
ahal zen klasean.
Sartu behar zenuke
biharko goizean
senarra armairuan ta
hau mesanotxean.

M. Amuriza

Ordun itxiko nuke
kuartoko atea
ta han pasako nuke
eternitatea
ez dut behar jostailurik
zuk niri ekartea
baizik neure senarra
zuk eramatea.

U. Alberdi

Senarra enkajaturik
furgonetan danba!
Nik hobe nukeela
Joxe eramanda
begira ez nun espero
holako eztanda
mila esker Maritxu
plazer bat izan da!



Bertso bazkaria. Urnieta. 2024-04-20. XDZ

IRUN

2024-04-27

Bertsolariak

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano

Gai-emailea

Aitor Mendiluze

Ola sagardotegiak antolatutako bertso afaria.

S. Lizaso – A. Egaña – A.M. Peñagarikano

Gaia: Lizaso eta Peñagarikano auzoak zarete; zuen baserriek elkarren ondoan daude. Gogoratzen duzuenetik beti egon zarete haserre, zuen gurasoak eta haien gurasoak bezala. Hori ikusita, bitartekari bat hartu duzue, Andoni. Bakoitzak haserre horren arrazoiak eta minak azaldu behar ditu, eta Andonik ebatziko du arrazoa nork duen, inork baldin badu.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Eguna pasa nekean eta*

S. Lizaso

Bitartekari zu omen zera
jakituriaren jabe
zure beharra daukagu eta
egin zaiguzu mesede
bi baserritar elkarren auzo
hemen gatoz parez pare
azken mendeetan hasarre gaude
zergatik kan jakin gabe. (bis)

A. M. Peñagarikano

Lehenago ere hasarre geunden
ta hasarre aspaldian
gure inguruan ez dago giro
etxean ta sukaldian
gaiztoa zera eta zu beti
hain zabiltza pikardian
zergatik sega zuk sartzen dezu
beti nere belardian? (bis)

A. Egaña

Ai Peña hori entzun ez banu
iya-iya nuen nahio
horrexegatik sortu al dezu
hainbeste haserre saio?
Zure buruan bada hainbeste
bisuts eta ke, arraio!
Horri ez zaio pikardi deitzen
laguntzea deitzen zaio! (bis)

S. Lizaso

Konpondu nahi ta hola hastea
hasi orduko akabo!
Hor ikusten da fidagaitzena
zein ote gendun lehenago
segakin ekin horretan ere
gauza guztiak arraro
belarrik ez da, dena sasi da
sega herdoilduta dago. (bis)

A.M. Peñagarikano

Beste gauza bat ere nik zuri
esango 'izut Xebastian
zeren gaiztoa eta krudela
zera bizitza guztian
ba al dakizute ze eiten duen
beti hortan ikustian?
Zeatik sagarrak biltzen dituzu
beti nere sagastian? (bis)

A. Egaña

Ba Peña horri ere nolabait
erantzun egin beharko
sagarrak bildu ein behar dira
ezin da utzi biharko
eta Xebastian aritzen bada
bere sagastitik kanpo
ulertzen diot bererik igual
batere ez daukalako. (bis)

S. Lizaso

Urte guztia igarotzen det
udazkenari begira
etxean sagardo pixka't egin
hau da betiko desira
arrazoi dezu inoiz joaten naiz
ni auzoko sagastira
honek ez ditu jasotzen eta
usteldu egiten dira. (bis)

A.M. Peñagarikano

Ixil-ixilik egongo al zera
Jainkoaren izenian!
Gaur ez da giro bizi beharra
beraren aldamenian
ai Xebastian gaiztakeria
dadukazu barrenian!
Zakurra zeatik askatzen dezu
semia datorrenian? (bis)

A. Egaña

Sega kontua atera dute
ta sagarrak biltze grinez
hurrena berriz txakurra dala
hain pausaje txit arinez
era horretan haserretzea
parregarria da zinez
nik krimen edo adar kontun bat
espero nuen gutxinez! (bis)

S. Lizaso

Auzoko petral hau jasateak
badu horrenbeste neke
bizi guztian ni kritikatzan
hor aritzen da jo ta ke.
Pakegilea hasi al zera
kolpetik krimenan eske?
Orain artean ez da gertatu
baina gertatu liteke. (bis)

A.M. Peñagarikano

Xebastianek egindakoak
nik hemen gaur esan batzuk
aitor ezazu gaiztakeria
haundia daukazula zuk
neure sailean oiluak eta
astoak ibiltzen ditut
nere sailera sartzen bazera
jo ta bertan hilko zaitut. (bis)

A. Egaña

Eskuak lotu bostekoak jo
ta mingainez horrein aske
era horretan portatuz gero
guztiok molda gaitzke
nere ofizina' etorri biak
berdintasunaren eske
zure kontua mila euro da
zurea beste hainbeste. (bis)

BAIONA

2024-05-04

Bertsolariak

Onintza Enbeita eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Maialen Berra

Baiona Ttipiko Epaiska ostatuak antolatutako bigarren bertso bazkaria. Hego zein Ipar Euskal Herriko bertsozaleak elkarretaratu dira bertan.

On. Enbeita

Gaia: Oroitzen al zara 18 urte zenitueneko ametsekin? 18 urte zituen neska haren paperatik, nola irudikatzen zenuen gaur egungo Onintza?

Neurria: Zazpi puntuko berdina 16 silabaz

Airea: *Goizean altxatu eta*

Inoiz ez nuen izan nahi polizia edo apaiz
baina aukera bakarra gertatzen zitzaidan hain gaitz!
Bertsotan segi nahi nuen espazioz eta garaiz
kazetaritza ikasi inozentzia hain alaiz.
Bidean suertatu dira milaka harri eta haitz
konfunditu naiz lagunez ta konfunditu naiz etsaiz (bis)
ez naiz izan nahi nuena, baina zoriontsua naiz.

Euskal Herriko txapela gero eta urrunago
ikusten nuen orduan ze amets handi arraro
gizon artean bakarrak izan ginen eta klaro
isilik gure tuari barrurantza zenbat trago.
Hogeita bost urte eta oraindik plazetan nago
eta beste horrenbeste jarraitu nahian luzaro (bis)
orduan uste nuena baino askoz libreago.

Oraindik ere bidea ez zaigulako amaitu
hementxe irauten dugu, asmatu eta jarraitu
batzuetan exitoa, besteetan kolpeak hartu
bizitzak onetik eta txarretik izaten baitu.
Orduko neska gaztea ezin dut orain epaitu
bidea berdin egiten dut orain ere asmatu (bis)
amets handiei jarraitu ta txikiekin gozatu.

AIZARNAZABAL

2024-05-10

Bertsolariak

Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze

Gai-emailea

Mikel Aiertza

Sanmiel Txikietako bertso afaria, Mikel elkartean, Adiskide Bertso Elkarteak antolatua.

I. Zubeldia - A. Mendiluze

Gaia: Iker zure bordan lanak egiten ari zinela; ardiei jaten eman, azpiak atera... Aitor inspektorea etorri zaizu, zure infrastrukturak legez dauden, ardiak ongi zainduta dauden ... inspektzioa pasatzera.

Neurria: Hamarreko txikia

Airea: *Antton eta Maria I*

A. Mendiluze

Artzai gisa ez dezu
zuk fama bikaina
kontatzen dutenetik
dena da azaña
ikustea komeni
zaigu alajaina!
Eskutan hamar behatz
badauzkazu baina
ba al dira ardi denak
kontatzeko aina? (bis)

I. Zubeldia

Ardik badauzkat baina
ez daude hamarrik
beidatu ta daukate
itxura kaxkarrik
ipurtezurrak txorrotx
txintxilik belarrik
gaztaiek'e badue
euli eta harrik...
Hemen sano dagona
zakurra bakarrik! (bis)

A. Mendiluze

Beraz ardiak daude
ez mami, ez pisu
eta halere haiekin
hain harro beti zu
baina eman nahi dizut
bazpare abisu
zakurra sano dago
hori badakizu
eta laister ardiak
jan behar dizkizu. (bis)

I. Zubeldia

Zakurrak ardi biltzen
du lanik zailena
eskortara sartzeko
nolako problema
sarneak jota dauka
ia artalde dena
badaukate desgrazi
mina ta aihena...
Ahariak ematen du
esnerik gehiena. (bis)

A. Mendiluze

Beraz esne aldetik
hori dabil bapo
aharia artzaiaren
berdina dalako
baina begiratuta
gaixo eta plako
hori bai adar latzik
ez zaie faltako
artalde ona daukazu
pertxerotarako. (bis)

I. Zubeldia

Baina proba egitea
beharrezkoa zen
artzantza mundua dau
egoera latzen
halabeharrez hortan
hasia bainintzen
hemen geroztik ez da
asuntoik zuzentzen
hiru urte damazkit
putreak gizentzen. (bis)

A. Mendiluze

Laister hasiko dira
goitik atakean
ta nola defenditu
hoien jo ta kean
ni ere ia hil naiz
pasata atean
gaztak hotza behar du
ondo egin artean
baina ez kanpineko
nebera batean. (bis)

I. Zubeldia

Gaztak gordetzen ditut
nik nebera hortan
artzaia'e txabolan
ardiak eskortan
andrekin alde egin dit
oilok dauzket kotan
hau baino gazta hobeik
ez dago Europan...
Zuri utziko dizut
berrogei eurotan. (bis)

A. Mendiluze

Gazta hori janez gero
pentsa ze otordu!
Zure ardien pare
geundeke gero gu
saltzera jarri eta
ze salmenta modu
periodiko papera
kentzen badiogu
igual paperak berak
gehio balio du. (bis)

I. Zubeldia

Nere artaldea da
nere ispilua
beti izan naiz eta
artzai kaskailua
inspektore jaun honek
ze trikimailua
eman behar diogu
honi zigilua...
Goazen bazkaltzera ta
zuk bota seilua. (bis)

A. Mendiluze

Debalde bazkaltzea
gertatzen zait sarri
lagundu egin behar
diogu elkarri
sanidade aldetik
nahiz ta egon larri
esan didazu "Neri
seilua ekarri"
ba behin jartzen hasita
badakit nun jarri. (bis)

I. Zubeldia

Inspektoreak eman
digunez epaia
eguna bukatzeko
heldu da garaia
nahiko lan egindako
mendian artzaia
brillua ona baina
eskasa usaia
beti hola izan da
Izalgo⁶ gaztaia. (bis)

A. Mendiluze

Beraz egitik gutxi
eta tranpa pranko
egiten duenak du
bere kalterako
eskerrak behintzat hemen
jan degula bapo
hobe aberek utzi
beste baterako
bestela bizirikan
ez naiz aterako! (bis)

6 Idiazabalgo.

OIARTZUN

2024-05-11

Bertsolariak

Unai Agirre eta Aitor Mendiluze

Urteroko bertso afarira 70 bat lagun hurbildu dira Aldeguna Elkartera. Trago eta pintxo mokaduaren ondotik jaitsi dira jangelara.

U. Agirre – A. Mendiluze

Gai librean.

Neurria: Lauko handia

Airea: *Bart hamarretan ezkongai nintzan*

U. Agirre

Hemen jendia pozik al dago?
Aurpegitara begitu
saltsa pixka bat jar deigun edo
igual loak joko ditu.

A. Mendiluze

Buru zuri bat pare-parean
hortxe ikusten det lagun
ez dakit parre egiten duen
edo parrez ari zaigun.

U. Agirre

Buru zuri bat dezu aurrean
ta begirik ezin kendu
zuk ere poza bazeneukake
zuriya baldin bazendu!

A. Mendiluze

Pentsatu ondoko emakumean
ere fijatu naizela
parre holaxe egiten duna
disimuluan bezela.

U. Agirre

Orain parre egin egin du zabal
lehen ai zan bere kasaka
bertso saiora etorri al zera
pelukeritik pasata?

A. Mendiluze

Pentsatu hola ikusi eta
benetan poztu naizena
denbora asko da nere hitzekin
inor gorritzen ez zena.

U. Agirre

Eta ondoko gizasemiai
begitu, Aitor, begitu!
Nahiago nuke antioju hoiek
nere soinian banitu.

A. Mendiluze

Ama-semeak izango dira
antza pixka bat bada hor
eta duda bat okurritu zait
Unai nork zainduko du nor?

U. Agirre

Neri batere ez zait inporta
izan leike on ta txarra
baina duda bat badet buruan
nork moztu diyon bizarra?

A. Mendiluze

Alde batean kendu egin du
ta beste aldean utzi
honek duna da borondatea
baina apunteri gutxi.

U. Agirre

Aldamenetan eskasa dauka
kokotz gainean ederra
horren antzeko xamarra ez al da
gure auzoko akerra?

A. Mendiluze

Haundi xamarra bota diozu
baina lasai zaite tira!
Nik ere aker hori izan nahi det
oso ederki bizi da.

U. Agirre

Eta ondoan beste bat bada
iepa! Ondo al zaude zu?
Jertse ta guzti zaude hemen ta
odolikan ba al dezu?

A. Mendiluze

Eskuarekin horrela dago
besterik ezin espero
burua iya eror zitekeen
eskua kendu ezkeru.

U. Agirre

Ta alkondara kuadrohun hori
irriparrez dago aupa!
Lepoz bera ez, ta lepoz gora
Aitor zure antza dauka.

A. Mendiluze

Kuadro hoiekin bodako ondo
eta mendirako ongi
bejondaizula urte osorako
uniformea da hori!

U. Agirre

Ta mahaiburuan dagoen hori
ez da bertsolari txarra
gustora asko hartuko nuke
bere buruko kalparra.

A. Mendiluze

Berak zientoka dauzka ileak
beste hoiek bat edo bi
horrena ez da itxura ona
harrokeria da hori.

U. Agirre

Nahiz ta itxura bestela izan
edadez fuerte zaude zu
ilea jarri harro antza ta
zuk disimulatzen dezu.

BILBO

2024-05-21

Bertsolariak

Aissa Intxausti, Alaia Martin, Maider Arregi eta Sarai Robles

Gai-emaileak

Amaia Zeberio, Haizea Larrosa, Iruñe Requero, Irati Bediaga, Irati Altuzarra,
Ainhoa Markinez, Maite Juaristi, Ainhoa Arregi, Pilar Llorente eta Lorea
Gorostiaga

Bira Kulturgunean bertako Señora Bertso Eskolak antolatutako saioa. Señora Bertso Eskolako kideek prestatu dituzte gaiak, baita jende aurrean aurkeztu ere.

A. Intxausti – S. Robles

Gaia: Alaine Agirreren aipu bat horra: “Gaur egun ikasleek lehenago ikasten dute fotosintesia zer den klitoria baino”. Pertsona bat eta bere klitoria zarete, gaur topatu zarete lehenengoz; Sarai, pertsona eta Aissa bere klitoria.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Zeruari begira*

S. Robles

Hamazazpi urteak
bete ditut jada
pixka bat berandutxo
ere beharbada
baina hemen topatu
gara azkenik, hara
zu gaur ezagutzea
kriston plazerra da. (bis)

A. Intxausti

Ez nauzu begiratu
izan eta zuk maiz
hamazazpi urterekin
beti gabiz garaiz
orain ze zurrunbilo
ta orain ze ekaitz!
Baina suabe hasi
ze sensiblea naiz. (bis)

S. Robles

Ta orain zu zaintzeko
ze erantzunkizun!
Nahiz izan ditzakedan
mila ideia lizun
sensiblea zarela
nola badakizun
azalduko al didazu
zer gustatzen zaizun? (bis)

A. Intxausti

Lubrikantea hartu
ta hatza igaro
lehenik astiro ta
gero azkarrago
probatzen joan zaitez
baina jakin, klaro
deskubritzeko beti
dudala gehiago. (bis)

S. Robles

Ez zaitut topatuko
 plazerren murruan
 mutilak nahiz dabilzan
 sarri amarruan
 ez dira inoiz jarri
 zerorren larruan
 batek bilatu zintun
 bajina barruan! (bis)

A. Intxausti

Eta barrezka hasi
 ginen ni eta zu
 bajinaren barruan
 tipoa jo eta su
 norbait galdu ezker
 zuk ez egin kasu
 ez banaute aurkitzen
 zeuk uki nazazu. (bis)

S. Robles

Ez zaituzte aurkitzen
 jardunda ere nahita
 baina esan didazun
 horrerri jarraika
 ongi moldatzen gara
 ta ez nabil ezbaika
 ja eskuineko hanka
 dardarka hasi zait ta. (bis)

A. Intxausti

Gorputza ez dagoelako
 zugandik aparte
 ikasi ditzakezu
 mila modu, arte
 deskubritzen joan zaitez
 bizitza bitarte
 ile punta batetik
 behatz puntara arte. (bis)

S. Robles

Nolako abenturak
 behatz puntarenak!
 Horrek ere dardarka
 jarriaz barrenak
 ez daitezen zabaldu
 besteentzat penak
 aurkeztu nahi dizkizut
 kuadrillako denak. (bis)

A. Intxausti

Deskubrimendu berri
 denak igorriak
 horrela jarri zaizkit
 bi masail gorriak
 baina nahi badituzu
 denak ekarriak
 beti izango dira
 ongi etorriak. (bis)

LEITZA

2024-05-25

Bertsolariak

Joanes Illarregi eta Aitor Mendiluze

Gai-emailea

Xabat Illarregi

Musunzar ostatuan da bertso afaria, Leitzako Kultur Aroaren baitan apailatua. Bi partetan banatu dute saioa; lehendabizikoan librean aritu dira; bigarrenean, gaiak emanik.

J. Illarregi – A. Mendiluze

Gaia: Berrogei urte dituzten bi herritar zarete. Betidanik ezagutzen duzue elkar. Bakoitzak bere bizitza, bikotea... eduki duzue, baina banatu zineten aspaldi. Goizeko ordu bata da, taberna batean elkartu zarete, argiak itzalita; betidanik ezagunak baina inoiz baino gertuago.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Zelaia ikusi dut*

A. Mendiluze

Goizeko ordu bata
pasa da denbora
igual damua izan
liteke gerora
norbait inguratu zait
barrara, ondora
begira ari dena
ta ez dakit nora. (bis)

J. Illarregi

Zure ondora noa
hurbildu naiz irriz
barra ertzetik lehen jo
zaitut eta begiz
gora behera pasatuz
nabil behin ta berriz
zuri begira baina
ohea ikusiz. (bis)

A. Mendiluze

Ni ustez goxo-goxo
hasi naiz lehengoaz
zu ohea ikusten
begiradaz, soaz
ez dakit serio den
edo adarra joaz
baina igual neretzat
azkarregi zoaz. (bis)

J. Illarregi

Ta zer? Ez al zaude ba
nerekin gustora?
Ohea aipatuta
hau gehiegitxo da
baina adinean goaz
berrogeitik gora
oaindik aurrera aurka
daukagu denbora. (bis)

A. Mendiluze

Nahiz urteetan egon gu
pasatu xamarrik
esperientziak berez
ez du ezer txarrik
duda bat daukat eta
galdezka, beharrik
zergatik zaude hemen
hemen ta bakarrik? (bis)

J. Illarregi

Eske bihotza hautsi
zidaten behinola
eta orduz geroztik
galdu dut kontrola
maite dut barra ertza
maite dut alkohola
ta bakarrik ez, uste't
zurekin nagola. (bis)

A. Mendiluze

Ba zure azalpena
aditu det adi
eta nere begitan
duda bat nabari
neri begira zeunden
baina ez hain argi
neri begira edo
nere basoari? (bis)

J. Illarregi

Ez nuke nahi edanez
alkoholetan ito
patxaran bat daukazu
eskuan neurriko
emaiozu trago bat
edan eta kito!
Azukrea ez zaizu
gaizki etorriko. (bis)

A. Mendiluze

Nahi badezu goxoa
hasiko natzaizu
horretarako gaude
bai ni eta bai zu
begia seduktore
itxi dezu aizu
edo igual begian
zerbait sartu zaizu. (bis)

J. Illarregi

Holako erantzunik
ez nuen espero
ja hamar minutu bat
pasatu ta gero
baina pedante zabiltz
aspergarri edo
orain dakit zergatik
zabiltzan soltero. (bis)

A. Mendiluze

Beraz ez det aurpegi
onik erakutsi
eta zure eskemak
nik nahi gabe hautsi
soltero, bakardade
tristea nagusi...
Zure kuadrilla ere
nik ez det ikusi. (bis)

J. Illarregi

Lehenago hemen zeuden
ondoan bezela
baina zu tabernara
sartuta horrela
etxera joan dira
lasterka ta bela
esan didate neri
begira zeundela. (bis)

A. Mendiluze

Hori ere irripar
batez bota dezu
zure ametsa pixka't
frena dezakezu
esan dutela eta
gustora zaude zu
esan dizute eta
sinistu diezu. (bis)

J. Illarregi

Baina hemen gabilta
eta zertarako?
Barra ertzean biok
soilik gaudelako
zuk ez banauzu nahi ni
gaurko gauerako
nik tragorik debalde
ez dut aterako. (bis)

A. Mendiluze

Ez, muxua zakuan
ez da eroria
nahiz ta lortzea kosta
behar zaizun gloria
nahiz ez izan nahi nukeen
on kategoria
batzutan ez da txarra
atzoko ogia. (bis)

J. Illarregi

Bueno berotzen doa
ondoko laguna
a ze gaua aurretik
izango duguna!
Atzoko ogia naiz
arrazoi duzuna
kanpotik gogorra ta
barrutik biguna. (bis)

A. Mendiluze

Hori hizketa eta
hori mingain dantza
nahiz ta bestela ibili
balantza-balantza
barrutik omen zaude
bigun-bigun antza
hori da zapuztea
nere esperantza! (bis)

J. Illarregi

Esperantza guztiak
galdu dituzula
hala didazu hemen
ondora xuxurla
ta biguna gustatzen
ez omen zaizula
baina uste dut errez
lor dezakezula. (bis)

A. Mendiluze

Beraz konformatuko
gera biguinean
atzoko ogia hoixe
da azken finean.
Bizi al zera lehengo
leku berdinean?
Kotxean kutrea da
gure adinean. (bis)

J. Illarregi

Kotxean kutrea da
horrelaxe dio
Partner txikiak ere
ez al du balio?
Hor kanpoan utzi dut
lehenago propio...
Lau muxu emateko
zer inporta dio? (bis)

A. Mendiluze

A ze sustoa orain
berriro osteratzen
a ze aldea kontu
batetik bestera
lau muxu emateko
omen da ospera!
Horretarako ez noa
tragoa uztera! (bis)

J. Illarregi

Lehen puntu hortaraino
zailki iritsia
lehen motel zegona
oain zeinen bizia!
Hola pasatze al duzu
zuk zure bizia?
Azkarregi aldatzen
duzu iritzia. (bis)

A. Mendiluze

Lehenengo gogo haundia
nik gogo eskasa
beste aldera gero
noa nere kasa
hotzegi izatetik
beroegira pasa...
Beti da politena
aurreko jolasa. (bis)

J. Illarregi

Ta ez dut uste jolas
gutxi egin dugunik
baina hemen gaudenez
parean zutunik
egia esango dizut
ez daukat lagunik
ta umeak zaintzeko
norbait behar dut nik. (bis)

A. Mendiluze

Beraz larrua jo nahi
horrekin gogaitu
azkenean umeen
zaintzaile amaitu
baina kontuz lan horrek
beste alde bat baitu
umeak bai baina zu
nork zainduko zaitu? (bis)

J. Illarregi

Esplikatuko dizut
lasaitu mutila
nire haurrak zaintzea
hori iskanbila
hortarako behar zaitut
jatorra, abila
tabernan ibiltzeko
beste baten bila. (bis)

A. Mendiluze

Beraz hau engainu bat
izan da izatez
beste bat aurkitzeko
aukera honen partez
ba orduan neregandik
zeure borondatez
dibortziatu ez baina
separatu zaitez. (bis)

J. Illarregi

Bueno separatzea
al dugu ondoen?
Hori egin beharko da
bi orduren ondoren
tragoarekin nahiz ta
ederki nagoen
kontrako eztarritik
pasatu baino lehen. (bis)

A. Mendiluze

Bai bertan banatzea
biontzat hobe da
abiatu gaitezen
norbere aldera
baina barra bera ta
trago epel bera
larunbatean berriz
elkartuko gera. (bis)

AMASA-VILLABONA

2024-06-07

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Oihana Iguaran

Gai-emailea

Amaia Agirre

Memoria historikoari eskainitako eguna izan da Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan. Amasa-Villabonako Subijana etxea oihal fabrika izan zen pasa den mendean, 1860tik 1980ra; gaur egun Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza da. Eta memoria historiko ariketa bat egin nahi izan du Amasa-Villabonako Udalak Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Emakumezkoak ziren langile gehienak oihal fabrian eta eurak omentzeko ekitaldia egin da Subijana etxearen iragana eta oraina lotuz, emakume oihalgileak eta bertsolariak omenduz. Familia argazkia atera eta etxea bisitatu ondoren, Izaro Lizarragak eta Arantxa Orbegozok Subijana etxean egin duten horma-irudiaren inaugurazioa izan da. Horma-irudia Maialen Lujanbioren bertso batek osatu du.

Historiaren fardotik
saltatu ta tira
hamar lerro hitzezko
hamar metxa dira
lerrotik errimara
metxatik harira
kanillatetik pasa
ta ahotsa argira...
Eskuen memoria
bertsotan ari da.

Bertara hurbildutakook *Hamalau heriotzena* doinuan bertsoa abestu ondoren, etxearen atzealdean, Gudari plazan, egin da bertso saioa.

N. Ibarzabal – A. Martin – O. Iguaran

Gaia: Maria Angeles Quintanak, Subijanako langile izanak, kontatzen zuen astero ordaintzen zitzaia. Sobre marroi batean jasotzen omen zuten asteko jorrala. Eta sobrearen gainazalean adierazten omen zitzaien jorrala soilik zen edo ordu estrak ere hor sartuta zeuden. Sobre hartu, eta etxera iritsi orduko amari ematen omen zioten, eurentzat xentimo bakar bat ere hartu gabe. Baina ondo gogoan du Mari Angelesek ezkontza bidaiatik etorri ondorengo lehenengo soldata. Nola ahaztu! A ze poza, amari eman beharrik ez sobre marroi hura. Lehenengo aldiz, berarentzat zen dirua. Zuek hiru neska zarete. Hiru emakume. Era berean elkarren lagun ere bai. Bakoitza bere bikotekidearekin bizi zarete, baina bakoitzak zuen elkarbizitza modu batera duzue antolatuta arlo ekonomikoari dagokionez. Zuk, Alaia, zure bikotearekin erdibana duzu kontu korrontea; irabazten duzuen guztia kontu

bakar batera doa. Zuk, Nerea, hasieratik izan zenuen argi bakoitzak bere kontua izango zuela. Zuek, Oihana, hiru kontu dituzue. Zuk zurea, zure bikotekideak berea, eta hirugarren kontu bat bion izenean, gastu partekatuetarako. Hilabete hasiera da, badator uda, eta lagunartean, taberna bateko terrazan zaudetela, gaia atera eta aho bizarrrik gabe ari zarete hizketan. Izan ere, aukera bakoitzari ikusten dizkiozue argi-ilunak.

Neurria: Lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

N. Ibarzabal

Bakoitza bere kontura gabiltz
bakoitza bere jirako
maitasuna ta ekonomia
ez baitira betirako.

A. Martin

Dena batuta irabiatzen dugu
eta ona da koktela
berak gehiago irabazten du
juxtuago da horrela.

O. Iguaran

“Berak gehiago irabazten du”
garbi zatoz aklatzen
seguru nago sobretakoa
ez duzula deklaritzen.

N. Ibarzabal

Hemen bakoitzak sobreak dauzka
ta igual jornala itzela
nik nahiago dut pentsatu dezan
partidazo bat naizela.

A. Martin

Partidazoa irabaz'zazu
gogorikan ez mugatu
nik kontuaz gain kontu bat daukat
baina ez da konturatu.

O. Iguaran

Ba guk hileko gastuak aina
elkartzen degu aldiro
baina KPIa guri ez zaigu
gastuak adina igo.

N. Ibarzabal

Bikotekide bizitzan beti
ez baigabiltza dotore
sobre marroiak gutxitxo datoz
ta marroiak berriz sobre.

A. Martin

Eta batzutan falta denean
konpartitzeko adorea
besterik gabe aldatu behar da
sobrearen kolorea.

O. Iguaran

Keba! Sobreak bakarrik dakar
itxura eta posea
askoz hobe da diru beltzean
ta beltzetik etortzea.

N. Ibarzabal

Ez dakit zein den iraupenaren
ta etorkizunaren giltza
ba al dakizue zein den bestean
kontuaren pasahitza?

A. Martin

Egia esan nahiz bikotetan
egon sistemaren funtsa
lagunartean sortu behar dugu
igual elkartasun kutxa.

O. Iguaran

Ba nik ez dakit nola sortzen den
irabaziak adina
guztira zero aterako da
hirun artean egina.

BAKAIKU

2024-06-14

Bertsolariak

Saats Karasatorre eta Xabat Illarregi

Bakaikuko Gazte Asanbladak, Bakarrekoetxea elkarteantolatutako bertso afaria. Hastetik bururatu arte librean aritu dira bi bertsolariak.

S. Karasatorre eta X. Illarregi

Gai librean.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Airea: *Sorlekua utziz geroz*

X. Illarregi

Baina zuk egin zenuen
ume baten propaganda
ni oraindik gaztea naiz ta
ez zaidazu eman txanda
konbersazio gaiena ere
banaturikan joan da
alde horretan pinalak ziren
alde honetan parranda.

S. Karasatorre

Aitatasuna makarroi
zipriztinak muturrean
aitatasuna zimurak
baineran esku ahurrean
aitatasuna da hori dena
horren modu laburrean
margoak horman ta gero noski
lenteja batzuk lurrean.

X. Illarregi

Ze deskripizio fina ta
argi geratu zait hemen
beraz lentejak biltzera
jadanik ohitua zeunden
ni aita ez naiz baina ez uste
ez dakidanik bederen
magisteritza ikasi nuen
ongi dakit hori zer den.

S. Karasatorre

Udako goizak piszinan
arratsaldean parkean
ta txupitoak damutu
goizeko laurak partean
aitatasunan kontu horrekin
utzi nahi zaitut pakean
gauza ederra da baina aukera
bat beste askoren artean.

X. Illarregi

Ederra da baina aurretik
horrela eta horrela
ez duzu aipatu azkenik
bukatu duzun bezela
parkean drama, piszinan drama
deus'e egin ez daitekeela...
Kasi pentsatzen hasita nago
nahi gabe izan zinela!

S. Karasatorre

Ez zazu uste, aizu ez
hori ez baita kondena
grixak ez dira txuri-beltz
edo ez da hori dena
pentsa ezazu horixe dela
dagon gauzik ederrena
lehena nahi gabe balitz zergatik
letorke ba bigarrena?

X. Illarregi

Bigarrena etorri da
hori nik daukat gogoan
ta esan didazu zaharrena
ja nola handitzen doan
nik ziri pixka't sartu dizut bai
pixka't manera sendoan...
Pentsatzen ai da "Etxean bi ta
hirugarrena ondoan!"

S. Karasatorre

Ume bat ez dugu dena
fardel, kaka eta gernu
ume bat ez dugu dena
letxe txar eta infernu
baina benetan, patxarana ez
litzateke zure menu
bihar goizean nik daukadana
etxean zuk zeuk bazenu.



Durungaldea Uztabarritzen. Ermua. 2024-05-03. XDZ

USURBIL

2024-06-15

Bertsolariak

Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze

Peña Pagola elkarteak antolatutako bertso afaria da. Librean aritu dira bi bertsolariak hastapenetik bururaino.

J. M. Irazu – A. Mendiluze

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Behin batean Loiolan III*

J. M. Irazu

Mahaia parekidea
Aitorren ordena
hori gauza politta
eder ta gardena
baino hasi ezkeru
arrazoin barrena
igual kulpia izango da
bertsolariena. (bis)

A. Mendiluze

Zu ote zoaz horren
errua hartzera?
Neri galdetu gabe
elkar banatzera
ba orduan Irazu
jakin nahi det zera
ez didazu esan ta
zer sentitzen zera? (bis)

J. M. Irazu

Galdera egin didazu
dexente petoa
eta erantzuna zor
ze errespetoa...
Pertsona sentitzen naiz
bete-betekoa
ta gaur bertsolaria
eta suertekoa! (bis)

A. Mendiluze

Ez zait bada damutu
galdera egina
erantzuna izan da
dotorea, fina
baina ez da hemen bukatzen
kontu hau jakina
beti emango al dezu
erantzun berdina? (bis)

J. M. Irazu

Gauza guztia dator
aitortu ezina
terreno labainetan
gabiltza jakina
emango det erantzun
gustoko ta fina
berriz eiten ba'iazu
galdera berdina. (bis)

A. Mendiluze

Mundua aldatzen da
urterikan urte
nik dakidan bezela
badakizu zuk'e
eta jaso nahi duten
erantzunan truke
ez det egingo baina
egingo dizute. (bis)

J. M. Irazu

Egingo didatela
nik badakit aurrez
baino abildadea
bertsoz eta urrez
erantzungo det bihar
nahiz agian gaur ez
baino ez naiz geldituko
erantzun beldurrez. (bis)

A. Mendiluze

Ni ere erantzun horri
lotuko natzaio
dudan ibili gabe
beti saioz saio
ni Aitor sentitzen naiz
ta izatea nahio
ta ez bada komeni
zer egingo zaiol! (bis)

J. M. Irazu

Ez ote da komeni
zenbat eginkizun
karga pixka bat ikus
leike zure pisun
orain galderatxo bat
berez ez da isun
jakin nahi nuke zuri
nork galdetu dizun. (bis)

A. Mendiluze

Ba erantzungo dizut
jakin nahi dezuna
ea gustatzen zaizun
bazabiltz zer suma
batek galdetu zidan
ondo dakizuna
eman zidan galdera
eta erantzuna. (bis)

J. M. Irazu

Biyak eman zizkizun
komeriyaz zer zen!
Nunbait arituko zan
babarrun aletzen
baina kontua ez da
lainotara heltzen
erantzuten duenak
ez daki galdetzen. (bis)

A. Mendiluze

Nerekin ez baitzeukan
aski itxaropen
ez zen egon erantzun
bati itxaropen⁷
berak esan zidan zer
esan behar niokeen
eta ez zidan utzi
ados ez egoten. (bis)

J. M. Irazu

Hori gerta liteke
zenbaiten kaltean
beti egoten gera
zalantzen atean
ta zer egingo degu
bien bitartean?
Sarasua ekarri
datorren urtean! (bis)

A. Mendiluze

Gauza berrien bila
zabiltza beti zu
zer esango zenuen
lehendik nintzen izu
horregatik egin nahi
nizuke abisu
entzun nahi ez dezuna
kontaktuko dizu. (bis)

7 Poto-lapsusa: "Itxaroten" kantatu nahiko zuen, hain segur.

TOLOSA

2024-06-16

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal, Unai Mendizabal, Oihana Iguaran eta Sustrai Colina

Gai-emailea

Imanol Artola *Felix*

Aurten aste bete aurreratu dute San Joan jaietako bertso jaialdia. Azken urteotan bezala Berdura plazan egin da.

U. Mendizabal

Gaia: Irakasle haugu eta horren harira puntu batzuk.

Lehen puntua emanda.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Aranora joan ziran I*

Hogeita piko ume gela bakarrean

eta maisua beti
ez da indarrean
ni hizketan hasi ta
asko marmarrean
sarri nago umore
kaskar xamarrean.

Nekagarria bezain gozagarri ote?

Ofizio politta
dudala diote
nahiz ta bere alde txarra
baduen demontre
orain artean pozik
juaten nauk mote!

Antz ematen al zaiek kurtso amaiera?

Aztoratzeko egin
ohi dute aukera
nahiz ta bide luzea
zegon irailera
ekainan bukaerara
iritsiko gera.

Bakoitzak bere etxetik dakarren motxila

ta askotan kiloak
izate'itu mila
irakaslea ez da
aldiho abila
eta motxilan zama
arindu dadila!

Hasteko zein egun duk denetan zailena?

Zuretzat bezelaxe
netzat astelehena
motxilan baitaramat
asteburu dena
eta ez da izaten
karga arinena.

IRURA

2024-06-21

Bertsolariak

Julio Soto eta Nerea Elustondo

Gai-emailea

Aitor Mendiluze

Irurako ostatuak eta udalak antolatu dute bertso afaria.

J. Soto – N. Elustondo

Gaia: Umorean aritzea ez da erraza izaten, gero eta zailagoa dela esango nuke. Zuek ohituta zaudete jende aurrean aritzen, asmatzen, kantatzen... eta erantzunak jasotzen, txaloak eta abar. Baina azken hilabeteetan norbaitek esan dizue, “Joe, bertso hori...”, “Txiste hori...”, “Barre egitea ez zen oso egokia, ez zait gustatu...”. Hasieran ez zenioten garrantzirik ematen baina ja ez da entzuten duzuen lehen aldia eta horri bueltak ematen zabiltzate.

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Menditarra naiz eta gogoan*

J. Soto

Garai batean edozer saltzen
genun baleko bezela
konturatuta bide hortatik
zulora gindoazela
kontziente naiz ni umorea
neurtu beharreko dela
baina uste dut orain neurritik
pasatzen ari garela.

N. Elustondo

Ta sor dezakeen ondoez hori
batzutan ez da makala
kritika pilak datoz albotik
kantatu ta berehala
ziri txiki bat izan zeikena
bihurtu liteke bala
ahaztu egin ohi zaigu sarri
bat-batean gabiltzala.

J. Soto

Umorea da politikoa
jakin badakit hainbeste
ta bat-batean ari gara gu
besteren txaloen eske
baina neurritik pasatu gabe
parrea da zilbor-heste
gaizto izatera iritsi gabe
gaixtoak izan gaitezke.

N. Elustondo

Baina gaixtoak ere ekarri
ditzake mila dilema
beti ez baita zehatz markatzen
zein den marra gorriena
zertan kakaztu gu inguratzen
ta ukitzen gaitun dena?
Geure buruez parre egitea
ez ote da sanoena?

J. Soto

Umorea izan leike matxista
sarri izan den antzea'
izan liteke berdin razista
ta horrek badu atzea
parre gangoso eta bajuei
hor galtzen degu klasea
gure erronka gaur horixe da
umore bat asmatzea.

N. Elustondo

Ba hori nahiko langintza zaila
ez ote dugu tamalez?
Nahiz eta ustez gure aldetik
maiz aritu gizalegez
bai umoreak barrukoakin
lotura bat baduenez
marra gorriak aldatzen dira
ta gure uste denak ez.

J. Soto

Nahiz aurreratu diren diskurtso
ildo ta kolegioak
parre 'inarazte horrek gaur dauzka
lehen zitun misterioak
arazo orok izan ditzake
bere erremedioak
baino ez gaitezen arren bihurtu
gu horren jende serioak.

N. Elustondo

Ba bai, nolabait ere sarritan
izaten dugun nahiko lan
beti ez gaude inspiratuak
beti ez gaude patxadan
silaba batek alde egiten du
ta dena egin kaka-lan
baina bakoitzai daukan garrantzi
justu-justukoa eman.

J. Soto

Hortan arrazoi ematen dizut
hor ez naiz jartzen hasarre
ze kontestuan jarri behar da
jakin behar da ze larre
hemen kantuan ari gara gu
gaude zuen aurrez aurre
holako doinu seriotan'e
ein dezakezue parre.

N. Elustondo

Egia esan doinu triste hau
harturik gure arkupe
nahiz eta ustez biok badegun
behar adina entzute
barre eskean hor hasi zara
gelditu da nahiko kutre
txalorik ere ez dute jotzen
barre nola egingo dute?

DONEZTEBE

2024-06-28

Bertsolariak

Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin

Gai-emailea

Maialen Belarra

Euri-langarra artean, festetako saioa egin dute Santa Luzi plazan.

J. Soto – M. Lujanbio

Gaia: Gaur LGTBIQ+ harrotasun eguna da. Askotariko errealitate eta identitateen ikusgarritasunean aurrerapausoak ematen diren arren, hemen, Donezteben, bi pankarta erre zituzten jarritako egunean; *Arizkun Rocken* duela hilabete, kontrako pintada batzuk egin zituzten...

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

M. Lujanbio

Zenbat jende ta zenbat gorputz ta zenbat sentipen begira!

Zenbat iritzi, zenbat pertsona beste hainbeste desira baino batzuek, gizonak asko lehengoari nahi tira oinpeko lurra mugitu zaie ta beldurtu egin dira.

J. Soto

Oraindik ere mingain gaiztoko eta begi arrotzeko oraindik ere segitzen dugu lehengoan lorratzeko gaurko egunez harrotasun bat nahiz badagon errotzeko gizarte gisa motibo haundirik ez daukagu harrotzeko.

M. Lujanbio

Alde batetik ni pozik nago dena hobeki dago ta indar gehiago hartu baitugu nahiz jende askok gorrota eta badago arkeria bat zenbait resistantzi mota baina badago harrotasun bat harrokeriaren kontra.

J. Soto

Harrotasunak ia baretzen dituen ba gure gaitzak ta egiten den pedagogiak ematen ditun emaitzak LHko, DBHko mutikoak hartu aintzat oraindik ere *maricon* hitza darabiltenak iraintzat.

M. Lujanbio

Marikoi hitza erabiltzen da askok baitu begiz joa oraindik ere nahiago dute urruxa eta ixkoa baino bandera ortzadarra ez da kontsumismo bat listoa baizik bizitzen aldeko *luta* hezur ta haragizkoa.

J. Soto

Ezin ulertuz gaude osatzen garela gu identitatez anitzak diren gustuez eta milaka sexualitatez eta agian guk gizakiok loturik baikaude katez begi karratu bi behar ditugu begi borobilen partez.

LASARTE-ORIA

2024-06-29

Bertsolariak

Aner Peritz *Euzkitze*, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Lierni Rekondo

Gai-emailea

Amaia Agirre

Manuel Lekuona Kultur Etxean, urtero moduan egin da San Pedro jaietako bertso saioa, 22:30ean.

L. Rekondo – M. Lujanbio

Gaia: Amona bilobak zarete. Zu Lierni ez zara fededuna, baina amona bai. Amonak dio zuk ere izango duzula zerbeitetan sinisteko premia. Sanpedrotan, udaleko ordezkari eta agintariekin batera, meza nagusia sakratua izaten da zuen etxean. Amonak, zurekin joan nahi izaten du. Egoerak barregura ematen dizu Lierni, ezin duzu isilik egon eta amona haserretu egiten da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

L. Rekondo

Amona, mezak badu
parranda tankera
altxa, eseri, altxa
ta eseritzera
atzo ibili ginen
gu hemengo antzera
kalian gora eta
kalian behera. (bis)

L. Rekondo

Eta hala eginda
juan behar al duzu?
Nahiko garbia dago
ze nolako luxu!
Eta zuk ere amona
eman al diozu?
Nik gauza okerragoei
eman diet muxu. (bis)

L. Rekondo

Nik begia jarri dut
apaizan ardoan
zuk kontatu zaidazu
hauxe nola doan
banatze ote al dun
eliza osoan
eta botako al dit
txosnako basoan? (bis)

M. Lujanbio

Hau da ordea juergaz
oso aparteko
lotsa gutxi daukazu
hori esateko
hau sakratua baita
ta erabateko
lurrari muxu eman
zerura joateko. (bis)

M. Lujanbio

Umeari zergatik
eiten diot kasu?
Kontatzen dizkit eta
mila ipuin antzu
zernahiri muxu ematen
hor zabiltzala zu...
Dana kontatu beharrik
ere ez daukazu. (bis)

M. Lujanbio

Hortan onak dituzu
amonan manerak
ez dira txosnakoak
kalizak ta zerak
Kriston odolarekin
bazeuzkan aukerak
danentzat eskeintzen du
baino edan berak. (bis)

L. Rekondo

Bapatean dantzarik
pasilloa bete
euren begizulotan
horrenbeste neke
amona, nahiz ta dauden
txukun xamar, tente
nerekin juergan zeuden
dula ordubete. (bis)

M. Lujanbio

Juergan zebiltzala
hor dauden guziak
erdi narrastuak ta
erdi biluziak
sinistuko dituzu
hemen ikusiak
hemen juntatzen dira
hilak ta biziak. (bis)

L. Rekondo

Hilak eta biziak
dabiltz hola-hola
nahiz berez panorama
ez zaidan axola
behatu ta egin dut
inguru-kontrola
ta dirudi jendea
erdi lo dagola. (bis)

M. Lujanbio

Isiltasun oihartzun
eta kantu lasai
igual daude erdi lo
ta bukatzeko zai
zuri're laburtzeko
esango dizut ai!
Apaizai kaso ez ein
baino Jainkuai bai. (bis)

L. Rekondo

Zerura joango bainaiz
Jainkoan kontura
orain arte nei ez zait
batere ardura
nik galdera bat daukat
hor dago itxura
bollerak ere joaten
al gara zerura? (bis)

M. Lujanbio

Noski joango zera
sinisten baduzu
bollera, ez bollera
nik maite zaitut zu
zure lagun birtual
zure hatz ta pulsu
gauza raroagoak
sinisten dituzu. (bis)

L. Rekondo

Gazteak rarok gara
eta hala omen
modaz pasata zaude
zu amona hemen
isildu egingo naiz
oraintxe bederen
ostia hartzera noa
zuk eman baino lehen. (bis)

M. Lujanbio

Segi zazu aldarera
sillatik irtenda
pasilloan barrena
da zuzen da xenda
modaz pasata omen
nagola ta benga!
Lasai gaztetasuna
ere pasatzen da. (bis)

L. Rekondo – A. Labaka

Gaia: Lourdes Iriondoren kantu batek dio: “Isilik daude harriak, isilik isilik berriz gauzak udazkenean”. Jokoa da Gipuzkoako txapelketa. Kanporaketa batzuk jokatu dira eta bertsolari batzuk isiltzera kondenatuta geratu dira. Horietako bat zara zu Lierni. Beste kolpe bat, isilune bat, beste eten bat... Ane zu oraindik isilik zaude. Aurre-sailkatuta zaude eta udazkenean helduko diozu txapelketari. Elkarrekin trago bat hartzen ari zaretela gaia atera duzue mahai gainera. Hainbeste isiltasun... Eta hainbeste hizketa gai sortzen dituen ditzosozko txapelketak.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Gizakiak harri bat*

A. Labaka

Tristura izan leike
lehiaren sintoma
udaberrian nahasiz
hainbeste hormona
gure proiektu denei
nola eman forma?
Askorentzat da txarra
gutxiarentzat ona
ni ere hortik pasata
iritsi naiz hona. (bis)

L. Rekondo

Baina nik egin nuen
saio hain eskasa!
Hitzak eztarrtik
ondo ezin pasa
sentitu nintzen horren
txiki, inkapaza
ta nahiz hau pasako den
berez, bere kasa
ordutik gudu zelai
bihurtu zait plaza. (bis)

A. Labaka

Plaza gudu zelai da
nola ez bildurto!
Batzutan nahi genuke
malkoetan urtu
gure auto-estima
puntuek mamurto
nik ai! Ulertzen zaitut
eta orain juntu
zure burua ez 'zazu
gehiago egurto. (bis)

L. Rekondo

Nahiz ta saiatzen naizen
berez ez epaitzen
ongi badakizu naiz
beldurren almazen
urteak zure eskutik
bidean jarraitzen
eta zenion “Ez da
mundua bukatzen”
baina orain zulotik
ez naiz ateratzen. (bis)

A. Labaka

Ba nik bultza nahi dizut
atzetik indarka
epaileak entzunda
agian marmarka
zalantzak hasten dira
sarri atzaparka
nik zer esango dizut
ja badauzkat, barka
urria heltzerako
bi hankak dardarka. (bis)

L. Rekondo

Kafe bana eskutan
txapelketaz kexu
ta zuk ni eutsi nahian
zenbat konpromezu!
Hankak dardarka orain
zuk aipatu dezu
nola urria parean
hortxe daon ta ze su!
Ane konta zaidazu
zer moduz zaude zu? (bis)

A. Labaka

Lierni nola nagon
badakizu zuk'e
beti iritsi nahian
hogeita hamar urte
baina bidea egin
kolpe batzun truke
nahiz dena ez den izango
plazer ta disfrute
bion indarrarekin
kantatu nahi nuke. (bis)

L. Rekondo

Nahiz txapelketa badun
garrantzia lepo
mila plaza badira
pozik kantatzeko
baina ulertzen zaitut
goxo pasatzeko
hor gelditu garenak
lehiaren trantzeko
prestu egongo gara
zuek hor eusteko. (bis)

USURBIL

2024-06-30

Bertsolariak

Uxue Alberdi, Maider Arregi, Xabat Gallettebeitia eta Beñat Gaztelumendi

Gai-emailea

Maite Berriozabal

Santixabelak ospatzeko, urtero bezala bertso saioa egin da Joxe Martin Sagardia plazan arratsaldeko zazpitan hasita.

B. Gaztelumendi – X. Gallettebeitia

Gaia: Beñat aita eta Xabat semea zarete. Aita osasunez eskas dabilela eta bere etxera joaten zara Xabat laguntzera. Oso festa zale izan zarete beti, herritar sutsu, baina aurten ezin atera. Bata gaixo, bestea zaintzen. Usurbilgo festak dira eta etxean zaudete, telebista jarrita eta kaleko zarata entzuten da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat*

B. Gaztelumendi

Pulsazioak sumatzen ditut
hemen xuabe-xuabe
zopa pixka bat bazkaltzeko ta
sofarantza bare-bare
etxaferoak batetik eta
hortik Tourra parez-pare
kalean ondo genbiltzan baino
hola're gaizki ez gaude.

X. Gallettebeitia

Egunero ezin gara ibili
egurra botaz suari
bion beharrak sala batetan
bihurtzen dira ugari
soinu banda maiz iristen zaigu
txaranga zein txistulari
tarteka zentzu pixka't ematen
dio gure munduari.

B. Gaztelumendi

Bai honek zentzu pixka bat ere
ematen dio jakina!
Zure ondoan azkar ahazten zait
ondoeza eta mina
urteak doaz aurrera eta
adina beti adina
pena bat daukat nigatik festak
zuk disfrutatu ezina.

X. Gallettebeitia

Aita penarik ez 'zazu izan
ezin dut hori ukatu
neuk nahita nago hemen ez baitut
derrigorrean bukatu
etxean ere ondo bainago
ez dut jairik zurrupatu
eta kaleaz baino nahiago
dut nik zutaz disfrutatu.

B. Gaztelumendi

Egia da bai nik 'e gozatzen
dut zure aldamenean
urte askoan beti fabrikan
nenbilen ekimenean
ta orain hara, zu eta biok
parez pare azkenean
pena bat daukat gutxi egona
zu umea zinenean.

X. Gallettebeitia

Ume garaiak dagoeneko
ematen ditut ereintzat
ta disfrutatu behar ditugu
uzta berrien eskeintzak
zer dira festak ta zer gara gu
geu eta geure despentsak?
ETB1ek mariatxiak
jarriko dizkigu behintzat.

B. Gaztelumendi

Mariatxiei begira hortxe
egoten gera gustora
baina aurretik albistegitan
nabil sustotik sustora
Iparraldean eskuin muturra
igo omen zaigu gora
itzali ezazu telebista ta
hurbil gaitezen leihora.

X. Gallettebeitia

Edo leihoa itxi dezagun
jarraian alderik alde
ta telebista ere itzali
zertarako zen? Enbalde!
Armarioan pattarra dago
zaharra baina debalde
egin dezagun batera topa
gu ta bizitzaren alde.

B. Gaztelumendi – U. Alberdi

Gaia: Herri berekoak, kuadrillakoak zarete. Baina bakoitzak bere bidea egin du. Beñat, zu beti herri bueltan. Zuk, Uxue, beste ardura batzuk izan dituzu, ikasketak, oposaketak, familia, umeak... Baina azkenean heldu da berriro zuretzat Beñatekin elkartzeko unea. Deitu eta esan zenion: "Aurten festetan bazterrak erreko ditugu. Plaza eman didate, banatu naiz, zaintza partekatuta daukat... asteburua libre daukat". Eta horrela elkartu zarete; Beñat sekula utzi gabeko lekuan, eta Uxue, hamar urte eta gero inguratu da.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

U. Alberdi

Ni aldatzen joan naiz
aroan-aroan
lanaren ta umeen
hoien abaroan
hortxe ikusten zaitut
peta bat ahoan
kaña bat eskuan ta
barraren ondoan
utzi zintudanetik
ez al zara joan? (bis)

B. Gaztelumendi

Ia bilakatu naiz
tabernako marko
ni beti hain egonkor
ez irri, ez malko
betiko toki hontan
ni beti galako
peta bat ezpainetan
txuparekin guapo
nik herria zaindu det
zentozenarako. (bis)

U. Alberdi

Eta eskertzen dizut
akabo, akabo!
Beñat sentitzen bainaiz
pixka bat arraro
gure herritik kanpo
egon naiz luzaro
orain bi erdi herren
beste hiru kalbo...
Denak ikusten ditut
ni baino zaharrago. (bis)

B. Gaztelumendi

Beraz gabiltza nahiko
itxura txarrean
denborak eraitsita
bere labarrean
kolesterol, azido
eta abarrean
nahiz suntsitu gaituzun
zuk gau bakarrean
bazpare ez zaitez jarri
ispilu aurrean. (bis)

U. Alberdi

Eder ikusten baita
bakoitza berean
auto-estima dugu
lehengo legean
baina urteak ezin
denon mesedean
nik bilatu nahi nuke
jendea jendean
ze droga hartzen dira
oraingo mendean? (bis)

B. Gaztelumendi

Ba lehenago egon zen
spedaren moda
gero eme pixka bat
agian ondora
gaua ez du nahikoa
eskatzen du droga
tekila eramanda
antsiaz ahora
berandu heldu zera
nerabezarora. (bis)

U. Alberdi

Eske bizitzak dauzka
hainbeste olatu
ta gaztaroa hala
gainetik pasatu
gaur gauean nahi nuen
gutziz desmadratu
baina ze pasa zaidan
hara hor bi datu
bi ardo edan ditut
eta mareatu! (bis)

B. Gaztelumendi

Lehenago izan zinen
zu nire eredu
gero parrandan irten
gintzen erregu
orain bi ardorekin
nahikoa ote du?
Nahi baduzu hontantxe
utzi behar degu
bihar kafe bat ere
hartu dezakegu. (bis)



Bertso afaria Arragua auzoko jaietan. Oiartzun. 2024-05-11. XDZ

MUXIKA

2024-07-04

Bertsolariak

Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal

Gai-emailea

Oihana Arana

Muxikako Udalak antolatuta, *Ez da kasualitatea* saio musikatua egin da Ugarte auzoan, *Eguenetan zer ein bizu?* programaren baitako ekimenean. Ixak Arruti gitarraz eta Gari Otamendi bibolinaz aritu dira.

On. Enbeita – N. Ibarzabal

Gaia: Zuek biok bertso eskola kideak izan zineten nerabetan. Zuk Onintza txapelketak irabazi zenituen eta lortu zenuen besteen begietara bertsolari izatea. Zuk Nerea utzi egin zenuen Onintzak lehen txapela irabazi zuen urtean. Oraindik lagunak zarete. Are, bera da askotan txapelketako saioetara eramaten eta laguntzen dizuna. Aurtengo Euskal Herriko Eskolartekoan, Haira Aizpurua txapeldunak eta kantukide zuen June Aiestaranek erdi bana kantatu zuten txapeldunaren agurra. Gaur kafea hartzerakoan bideoa erakutsi dizu Nereak eta “Belaunaldi batzuk lehenago jaio izan bagina” elkarrizketa hasi du Nereak. Orain arte elkarri aitortu gabeak kontatzen hasi zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Pello Josepe tabernan dela I-A*

On. Enbeita

Danok daukagu ardura baina
ez ei da izan inoren kulp
hamabost urte moko geunkazan
munduagaz lotsatuta
esan euskuen gure artean
han egoala disputa
ze urrunegi helduko ginen
alkarri eskutik helduta.

N. Ibarzabal

Esan ziguten bizitzan bitan
ez dela pasatzen trenik
ta ezin dala berriz berrartu
behin egindako etenik
ta bideoa hau ikusi arte
hoixe pentsatzen nuen nik
ez bainekien txapel batean
bi kabit u zitezkeenik.

On. Enbeita

Esan euskuen nor zan onena
eta nor zan politena
esan euskuen nor dan benetan
grazia egiten dabena
esan euskuen zein izango zan
bertso guztien eskema
baina ez al zan guzurra izan
esan euskuen gehiena?

N. Ibarzabal

Erdi gezurrak izango ziren
danak gehien-gehienetan
besteanganako konpetentzia
sartuta geure senetan
ispilu lege z ikusi zaitut
biderik luzeenetan
baina pozten naiz iraun izanaz
zeuretzat txofer lanetan.

On. Enbeita

Danak gizonak saio danetan
zenbat momentu triste, gris
txistu garratza iruntzi eta
aho barruan zenbat pitz
“Dana a la mierda!” pentsau izan dot
lau mila eta bi aldiz
igual ez neban asko iraungo
zugatik izan ez balitz.

N. Ibarzabal

Eta pozten naiz iraun baduzu
oholtza hauskorrean zutik
ondo dakizu fanik onena
neu nauzula aspalditik
ta askon saioak entzun ahala
sentitu dut publikotik
joe, oraintxe bertso onenak
neuri okurritu zaizkit!

On. Enbeita

Lezino batzuk daukadaz berez
magia baltzenarenak
eta ritual bat egin nahi neuke
konpon daitezcan problemak
nire txapela erre ta inbokau
munduko jainkosa denak
ia betiko batzen gaituen
behin banatu gintuenak.

N. Ibarzabal

Ja ez nau itsutzen lehiaketaren
eta txapelen dizdirak
baina batzutan sentitzen ditut
espresatzeko desirak
amaitu dira gazte promesen
etiketak eta bibak
egin daiogun bertso gintzari
biok promesa barri bat.



N. Ibarzabal

Gaia: Literatura oro har, eta poesia bereziki, tristurarekin lotzen da, nostalgiarekin. Eta nik kontrakoa eskatuko dizut. Deskribatuko al dizkiguzu poema baterako modukoak diren une zoriontsuak?

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

N. Ibarzabal

Bizitza mila geruza dira
milaka poz eta pena
eta minaren kostra kentzean
sortzen da itxaropena
politak dira sofako siestak
ordu erdi zein laurdena
polita apal bat ta liburuen
alfabetozko ordena
polita ama egun txar baten
zuri itxoiten dagoena
propio egin dizuna zeure
janari gustukoena.

Eta negutik udara doan
armarioa berritu
lorei ura bota, kimatu
bizitzak mila erritu
astelehen gauak ja martitzentzen
eta eguenak bariku
ta aspaldiko lagun batekin
telefonotik aritu
pisukideekin sofan eseri
nork bere tramak baditu
ta heriotza hor egon arren
sentitzea infinitu.

Tabernarian kafesne hori
denak lagun ta bezero
txoferrek elkar agurtzen dute
kaminoan egunero
idazmahaian argazkitxo bat
ta etxea ez da bulego
edo pixkana borratzen diren
bi telefono numero
bidai luze bat kotxe barruan
ta eguzki gorri bat bero
lagun minekin kantatutako
saio on bat eta gero.

LESAKA

2024-07-07

Bertsolariak

Jone Uria, Andoni Egaña, Kattin Madariaga, Maialen Lujanbio eta Josu Sanjurjo

Gai-emailea

Ekhiñe Zapiain

San Ferminetako saioa, San Fermin egunez urte guziz bezala. Herriko plaza mukuru betea dago, eta eguzkia bertsolarien bisean bis.

M. Lujanbio – K. Madariaga

Gaia: Herri txikietako egoera ez da erraza izaten. Gazte anitzek herritik joan behar izaten dute ikastera edo lanera; hori izan da Kattin zure egoera, kanpora joan behar izan duzu lan bila. Lesakara tarteka bueltatzen zara, ez nahi bezainbertze. Kattin, ez zenuen uste San Ferminetan Lesakara itzultzeko aukera edukiko zenuenik, baina bueltatu zara sorpresaz. Uste zenuen denek pozez hartuko zintuztela sorpresa horrekin, baina, Maialen ama, ez da hainbertze harritu San Ferminetan itzuli zarela ikusita.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Durangotik gorako*

M. Lujanbio

Urruna joateko
zure afanean
aunitz tristetu nintzen
ni ama planean
hortara ohituzeko
jardun naiz lanean
zertara zatoz berriz
ohitu nintzanean? (bis)

K. Madariaga

Lanean libre eta
herrira bixita
ta zer bilatu dudan
hona etorrita
hala aurkitu baitut
nahiz ez den polita
giltzak eduki eta
atea itxita. (bis)

M. Lujanbio

Nahiz beti dagon zabal
amarenekoa
zure bizia dezu
beti kalekoa
gosetzen zeranean
etxe aldekoa
hau da zure hotela
bost izarrekoea. (bis)

K. Madariaga

Baina *plot twist*⁸ batekin
joan da pelikula
aldaketa bat baita
gainera mardula
ez dakit, “Zer moduz?” bat
irri bat... sekula!
Gero erraten duzu
maitatzen nauzula! (bis)

8 Gidoi aldaketa nabarmena.

M. Lujanbio

Ohea egin dizut
 eman dizut jaten
 ez dakit inork gehio
 maitatu zaitzakeen
 Iruñan hor zabiltza
 zu zokoren baten...
 Lehen *plot twist* ta holakoik
 ez zendun esaten. (bis)

K. Madariaga

Iruña ta Lesaka
 bi herri, bi mundu
 izan ditut miloi bat
 kanbio inguru
 ta maitatzen nauzula
 al zaude seguru?
 Attak zer moduz nagon
 behintzat galdetu du. (bis)

M. Lujanbio

Attak eta zuk beti
 dezute imana
 zuek elkar hartuta
 erruak nigana
 baina zuk ere kulpaa
 biok erdibana
 lehen amaren ihesi
 ta orain amagana. (bis)

K. Madariaga

Badauzkazu mezuak
 nireak abaila
 pixka't maita nazazu
 ez da horren zaila
 begira eginen dut
 hartuz abantaila
 aldatu nere etxe
 horrerri sarraila. (bis)

M. Lujanbio

Baduzu jenioa
 eta osasuna
 seinale bizitza ondo
 juana zaizuna
 nik nahi dedana esan
 ta zuk nahi duzuna
 beti izan da hola
 gure maitasuna. (bis)

K. Madariaga

Espero nuen poza
 eta zoriona
 baina antza hauxe da
 etxean dagona
 aitortzen dizut ama
 eta ez da broma
 ama bat zara baina
 ez hain ama ona. (bis)

ZORNOTZA

2024-07-18

Bertsolariak

Miren Amuriza eta Igor Elortza

Hitanoari buruzko ikastaro baten ostean librean aritu dira bertsolariak.

M. Amuriza – I. Elortza

Gai librean.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Orioko balearena*

M. Amuriza

Baietz koloretsu bat
ontxe hartu denak
hizkuntzai umorie
emon, itxi penak
grazijje in ddostek Igor
ta ez dakik zemat
ia esan hiru bider
“Ointxe etxutxenat”. (bis)

I. Elortza

Aldamenetik hasi
da adar jotetan
eta ez don esan ez
olgetan, brometan
burue nik jjekunat
gaur Miren hor ketan
errimak baino gehijjau
aditzen topetan. (bis)

M. Amuriza

Ba hemen gabijjek gu
bijjok danba-danba
plazan ezin errimaik
topau hau da langa
ta *Anonyme Popularren*⁹
gaur danak esanda
sorta oso bat noka
kanteta huan ba! (bis)

I. Elortza

Zihetzak ixeteko hori
jjaunan toka
baina heu be’ bapatien
ta etxon inporta
han aditzik topetan
ez zan ez borroka
etxien ta idatziz
errezaue don ta. (bis)

M. Amuriza

Bromie zuan eta
ez eik hartu txarto
ariketa politte
dok gaur hau gutzako
ta balijjoko ddoskuk
ijje edozetako
ta euskaldun barrijjekin
enpatizetako. (bis)

I. Elortza

Bai dakigune beti
don larriko babes
aldatzen gozan hortik
kanporantz juenez
kreatibidadie
be’ hazi eitten danez
Txillidak ezkeragaz
pinttetan eban lez. (bis)

M. Amuriza

Jente kulturetie
jasue zer da ba?
Hoba etorri espektro
humanuetara
geuk be’ uzkerak botaten
doguz ber-bertara
eta bai, aditzekin
konfunditzen gara. (bis)

I. Elortza

Konfunditzen gara ta
horrexi eskerrak
zuzentzen doguz gero
beste lan okerrak
ta zeuk be’ nahastu dozuz
goijjek ta bazterrak
Txillidak be’ botaten
jjunazan uzkerak. (bis)

M. Amuriza

Ba bai, topau leikezak
bille ibilitte
bertsolarijje ez banintz
ta egon hor jarritte
gaur disfrutauko neukek
ikusiz baleike
bertsolarixek holan
estu ikusitte. (bis)

⁹ “Anonim Popularren” ahoskatu du.

ARANO

2024-07-27

Bertsolariak

Maider Arregi, Sustrai Colina, Agin Laburu, Joanes Illarregi

Gai-emailea

Aritz Zerain

Herriko festen karietara, herriko frontoian afalondoan izan da saioa.

M. Arregi – A. Laburu – J. Illarregi

Gaia: Sustraik kontatu dizue bere bidaia. Bi orduz isil-isilik egon zarete. Sustraik alde egin du eta minutu pare batez ez duzue hitzik egin.

Neurria: Seiko txikia

Airea: *Bertsuak jarri dizkat*

A. Laburu

Egia aitortuko det
ez naiz enteratu
ze lur, ze hegazkin ta
ze histori, ze datu!
Loiun lo hartu det ta
Parisen esnatu. (bis)

J. Illarregi

USA¹⁰ ta Kuba
Argentinarena
Japon, Mosku ta Paris
kontatu du dena.
Abioian pasa du
denbora gehiena. (bis)

M. Arregi

Kontatzen ibili da
hemengo ta haien
ohituren kontua ta
beraren bidaien
orain asma behar zer
ez den ta zer *bai den*. (bis)

A. Laburu

Sustraik bere gezurra
ibiltzen du sarri
ta orain ere hala
diogu igarri
Instagramen ez baitu
argazkirik jarri. (bis)

J. Illarregi

Baina holako tipo bat
parean egonda
hau tipo altu bat da
zer nolako bonba
ze agintariekin
bakarrik egon da. (bis)

M. Arregi

Sustrairen kontaerak
hainbeste bertute
Habanan egon zela
ta zenbat entzute
Fidel berpiztu nahian
ikusi nahi nuke. (bis)

¹⁰ “U ese a” ahoskatu du.

A. Laburu

Urtero histori bera
herriko tabernan
ni ez naiz hasiko gaur
Sustrairekin teman
hilabeten ez diyo
denborarik eman. (bis)

J. Illarregi

A ze oporraldia
hark denboragatik
soldata dena bota
duela badakit
ta guztia herrian
kontatzeagatik. (bis)

M. Arregi

Ta Japonian ere
egon ei da aurren
hor fijo aritu da
gezurrak esaten
Sustraik seguru daki
makilekin jaten. (bis)

A. Laburu

Neri berdin dit Sidney
New York ta Atlanta
ikusi al dezu Maider
mutilaren planta?
Horrek pasa duna da
gosia galanta! (bis)

J. Illarregi

Baina zalantzan ere
ipini gaitezke
honek ez du dirurik
bertso eta beste
honek ikusi duna
Aupa Etxebeste! (bis)

M. Arregi

Sustrai ez da bihurtu
hiruron eredu
baina adar jotzea
utzi dezakegu
kañak edaten hemen
hobeto gaude gu. (bis)

GASTEIZ

2024-08-05

Bertsolariak

Aroa Arrizubieta eta Unai Iturriaga

Gai-emailea

Oier Azkarraga

Andre Maria Zuriaren jaiak direla kausa Arabako Bertsozale Elkarteak antolatutako bertso saioa, Aihotz plazan.

A. Arrizubieta – U. Iturriaga

Gaia: Hurrengo gaia Zaballako espetxetik helarazi diguten eskutitz bat da: *“Aupa lagunak! Hauxe duzue Zaballatik biok kantatzeko bidalitako gaia: Zaballako bertso eskolan egon zarete duela ez asko. Badakigu bertan trebatu eta gauza on asko ikasi dituzuela. Kanta iezaiezue entzuleei zer ikasi duzuen Zaballako meriendetan. Besarkada handi bana guztiei eta ondo pasa jaiak. Zaballako bertso eskolako kideak.”*

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

U. Iturriaga

Lehengo asteen izan nintzen ni
ta oraindik fresko daukat
giro onean aritu ginen
nola mundu hontatik at
ez nekiela barruan edo
kanpoan nituen hankak
ta gero handik ateratzeak
bihotzak egin zidan krak!

A. Arrizubieta

Nik ere guztiz buelta emanda
eduki nuen barrena
egia gordin ikusi ahala
hori baita dakarrena
nahiz eta zaila den esplikatzen
bertso bakarrean dena
besarkada batekin esaten
hitzez esan ezin dena.

U. Iturriaga

Nahiz ta giroa topatu nuen
adiskidantza jaikoa
nahiz ta izan zen meza txiki bat
iraultzailea, laikoa
nahiz egoera ez den agian
hurbileko garaikoa
lehen baino hobeto egonagatik
oraindik ez da nahikoa.

A. Arrizubieta

Oraindik ere eguneroko
rutina baita krudela
nahiz eta askok ahanzten duten
oraindik zer den kartzela
han egoteak erakutsi dit
ta ikasi dut horrela
kanpoan egiten dugun horrek
beti merezi duela.

U. Iturriaga

Jakina merezi duela bai!
Ta ari gara horrela
bataila txikitan irabazten
dela esaten da gerla
guk bertsoa eraman genuen
jaso genuen epela
bertsoa kaiola den ber gisan
askatasuna badela!

A. Arrizubieta

Hemen borrokak merezi baitu
alperrik baita otoitza
horrela ez baita aldatuko
gure astelehen goiza
eurengandik jaso nuen hara
eramandako bikoitza
ta orain gehiago estimatzen dut
zuen irripar bakoitza.

ETXARRI-ARANATZ

2024-08-07

Bertsolariak

Eneko Lazkoz, Miren Artetxe, Saioa Alkaiza eta Aitor Sarriegi

Gai-emailea

Alain Iriarte

Herriko bestak direla kausa antolatutako saioa.

M. Artetxe-A. Sarriegi

Gaia: Ez dakit nik gero eta droga gehiago kontsumitzen den, garai batean zenbat kontsumitzen zen, eta orain... Batzuek diote drogak normalizatu behar direla, beste batzuek oso arriskutsuak direla... Ariko al zarete drogei buruz hizketan?

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Errota zahar maitea*

A. Sarriegi

“Gaur egungo gazteak ez dabilta zuzen” errez da arazoak horrela laburtzen lehen ere jendea aixa zen egurtzen gure kuadrilla bera hala banatu zen.

M. Artetxe

Dilema zaharra da drogekin dagona sintetikoki ezin da sortu zoriona baina segun unea ta segun pertsona maitasuna bezala neurrian da ona.

A. Sarriegi

Liteke onerako ta liteke kaltez konpondua neurria egoki ematez polit geratu arren hitzez ta esatez motak aldatu dira dependentziak ez.

M. Artetxe

Alkohola da hemen droga ez dugun bakarra nahiz eta asfaltotan dun batek bizarra besteak doblatuta erabat bizkarra moralak esaten du hemen zer den txarra.

A. Sarriegi

"Alkoholik gabe nola
izan ba euskaldun?"
esanez zenbat aldiz
izan garen jardun
pentsatu behar duguna
ez ote da lagun
guzti hioen beharra
zergatik daukagun?

M. Artetxe

Galdera hori egiteko
ez gintuzten hezi
barrurantz begira
horrenbeste hesi
jakiteak ez al du
ordea merezi
zerengandik ta nora
goazen ihesi?

A. Sarriegi

Bakoitzak egiten du
hor bere etxera
moralista hutsak gara
goazen pentsatzera
saioa bukatzean
besteen antzera
gu ere joango gara
trago bat hartzera.

M. Artetxe

Herri hontan morala
dugunez nagusi
hobe norberak bere
sabela igurtzi
ta ez joan kaletik
epaile ta guzi
behar duenari lagundu
ta besteei utzi.



Emakumeen haria bertso saioa. Amasa-Villabona. 2024-06-07. XDZ

GERNIKA-LUMO

2024-08-15

Bertsolariak

Koldo Gezuraga, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Julio Soto

Gai-emailea

Ander Elortegi

Lilibertsok, Gernikako Bertso Eskolak antolatu du jaietako bertso saioa. Herriko plazan 250 lagun bildu dira arratsaldeko 19:00etan.

A. Martin

Gaia: 20 urte egon zara kartzelan; urteetan sakabanatuta eta dispertsatuta, azken biak Euskal Herrian. Azken hilabeteetan erdi-askatasunean eroan duzun pultsera uztera joan zara gaur Basauriko kartzelara. Zigorra amaitu duzu; azken egunera arte eduki zaituzte.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Gaztetatik izan nintzen
euskor eta egoskorra
garai hartan gogorrago
izan behar zen maskorra
borrokatu nuen, ustez
izan nintzen emankorra
baina batzuen kondena
da beste baten altxorra
pultsera eskumuturrean
laguntzat izan dut horra!
Eta gaur amaituko da
data baitzen derrigorra
niri eta senideei
jarri ziguten zigorra. (bis)

Eta egon behar nuke
agian pozez zoratzen
ordea bi oinak zaizkit
asfaltotan hondoratzen
lagunengana joan nahi
ta ezin oroitu nora zen.
Garaiak aldatu dira
denok aitortzera goazen
lehen presoen gaia baitzen
kalean maiz ahoratzen
baina jada gure minak
ez du asko aztoratzen
ta jende gehiena ez da
gutaz asko gogoratzen. (bis)

Hainbeste urtetan naiz eta
ez erabat galdu senik
ez ahaztu oroitzapenik
eta lagunen izenik
ez dut sentitzen kalean
paseatzeko baimenik
hemen zaratak ez baitu
inoiz izaten etenik.
Izango al dut biharrik?
Izango al dut kemenik?
Pultsera utzi ta nora
aldegingo dut hemendik?
Askatasuna nahi nuen
baina beldurra ematen dit. (bis)

DONOSTIA

2024-08-29

Bertsolariak

Nerea Elustondo, Jon Maia eta Oihana Iguaran

Gai-emailea

Unai Gaztelumendi

1813an Donostia erre eta suntsitzearen inguruan *Herri memoria kantuan* bertso saio musikatua antolatu du *1813 Donostia Sutan* elkarteak. Bertsolariez gain, bi musikari aritu dira oholtzan: Iker Lauroba eta Beñat Antxustegi.

J. Maia - N. Elustondo - O. Iguaran

Gaia: Udar Donostiako Udalak turismo kanpaina bat egin nahi izaten du zein baino zein lema hobe astatu eta ahal den turista gehiena erakarri nahian. Aurten agentzia bati esan beharrean, bertsolariei enkargatzea pentsatu dute. Eta hiru bertsolari hauei eskatu die Udalak turismo kanpaina berrirako lelo proposamenak egiteko. Elkarrekin bildu zarete eta pentsatu duzue, turistak erakartzeko ez, uxtatzeko leloak egin behar dituzuela.

Neurria: Kopla handia

Airea: *Oihaneko pagoak blai*

J. Maia

Denak jartzeko alerta
hobe dirua komenta
adi turista pintxo bakoitzak
balio du *tres cincuenta*. (bis)

N. Elustondo

Ta zerbait gehituaz horri
turista jendea *sorry*
donostiarrak zozoak dira
ta ez zaitezte etorri. (bis)

O. Iguaran

Donostia ez da desberdin
zeukan nortasuna... Enfin!
Zure hirian ere badaude
MacDonalds, Zara, Burger King. (bis)

J. Maia

Ta turista imajina
kotxez helduko bazina
Europar dagon garestina da
Bulebarreko parkinga¹¹. (bis)

N. Elustondo

Ez dago parking ederrik
eta ez dago altxorrik
ta zezenketak egiten dira
urtean bitan bakarrik. (bis)

O. Iguaran

Ai! Eta Kontxako jiran
sorosleik ez da aski han
ta karabelak dabiltz gainera
ia zortzi ito ziran. (bis)

¹¹ "Parkina" ahoskatu du.

J. Maia

Grosen surfista karneta
ahaztu zazu Ondarreta
bakar-bakarrik salbatzen dira
Altza eta Bidebieta. (bis)

N. Elustondo

Metro eta bere obra
ez joan Kontxa ondora
beste bat gehio joanez gero
hondoratu egingo da. (bis)

O. Iguaran

Ta ojo pintxo dosia!
Tabernetan eresia
iaz alerta haundia izan zan
hemen salmonelosia. (bis)

J. Maia

Donosti bada betea
hor da Zumaia maitea
baina mesedez ez okurritu
herri hortara joatea. (bis)

N. Elustondo

Hegan hainbeste bertute
ikusiko zendun zuk'e
usoak nonahi agertzen dira
ta kaka egiten dute. (bis)

O. Iguaran

Neretzat azken prediku
arren etxean gelditu
behinola izan zen talderen batek
berriz armak hartu ditu. (bis)

HERNANI

2024-08-31

Bertsolariak

Eneko Araiztegi, Nerea Elustondo, Xabier Silveira eta Ekhiñe Zapiain,

Gai-emailea

Aizpea Garmendia

III. Guretik eta guretzat egunaren baitako bigarren bertso saioa, Arriatxuko frontoian gauzatu dena. Arestian Xabier Narbarte eta Libe Goenaga aritu dira librean. Bazkalondoan, Roxi Lazkano eta Imanol Lazkano kantatu dituzte bertso jarriak, eta bertso-festa bururatzeko, Ainhoa Larretxea eta Xalbat Altzugarainen gidaritzapean, Maider Arregi, Haira Aizpurua, Arkaitz Estiballes, Iñaki Murua, Kristina Mardaras eta Unai Izagirre aritu dira mahaiaren bueltan.

E. Araiztegi-N. Elustondo

Gaia: Belaunaldi desberdinetakoak izan arren gauza jakina da eskolako patioan futboleant ari ez ziren mutilak ez zirela ondo ikusiak. Nor izatekotan, lagun artean estatus bat irabaztekotan futboleant aritu behar izaten zuten, eta gainera onena izan edo ona gutxienez. Aldatu ote dira gauzak ordutik?

Neurria: Zortziko handia

Airea: *Esplikatzera noa kontuak*

N. Elustondo

Eskola baten, patio baten
 bildu leike hainbat datu
 batzuk jainkoan pare ipini
 ta besteak hondoratu
 nahiz lehengoakin gogoratzean
 iya denok asaldatu
 tristeena da kontua ez dela
 oraindik guztiz aldatu.

E. Araiztegi

Nahiz ez daukagun guk patioan
 jolas eitteko adina
 oraindik ere ikus dezaket
 han sortzen den imajina
 ta gaur Nerea arrazoi ona
 bota dezu zuk jakina
 zerbait aldatu dela badakit
 baina ez behar adina.

N. Elustondo

Eta hargatik jarraitzen degu
 garai bateko guduan
 nahiz ta jakitun izan ezingo
 dela aldatu segunduan
 gaur egun gehio hitz egiten da
 asuntuan inguruan
 gizonak daude erdigunean
 patioan ta munduan.

E. Araiztegi

Ba nik nerera hasi nahi nuke
 aizu Nerea hurbiltzen
 ume garaian ez nintzelako
 futbolen asko ibiltzen
 nere hanka hauek zelai erdian
 ez baitziraden kabitzen
 ta ni nor nintzen ez dakit baino
 bai ni nor sentitzen nintzen.

N. Elustondo

Beraz zuk ere ez zendun izan
 erdigunean ditzira
 nahiz ta hurbiltzen igual saiatu
 noizbait patio erdira
 egun futbola maite ez duna
 igual pelotan ari da
 ta bitartean lehen bezela
 neskak ertzetik begira.

E. Araiztegi

Ta esan dezun irudi horrek
 ekar lezake trantzea
 baino ez da aski bertako haurrei
 orain bronka botatzea
 nola helduai tokatzen zaion
 heldu gisa jokatzea
 agian denon ardura degu
 gauza hori aldatzea.

E. Zapiain-N. Elustondo

Gaia: Gaur bertan abuztua agurtu eta bihar hasiko zaigu iraila; hau izaten da askorenetzat hasieren hilabetea. Ikasturte berri baten hasiera izango da, baina zuentzat zeren hasiera markatuko du irailak?

Neurria: Hamarreko txikia

Airea: *Antton eta Maria I*

N. Elustondo

Nahiz ta asmo handiak
egin igual aurrez
guztiak betetzea
ez baitago errez
urteroko promesa
egin det tamalez
gimnasioan izena
emango dut berez
nahiz ta urte osoan
gero azaldu ez. (bis)

E. Zapiain

Iraila iritsi da
al gara ohartu?
eta erdi beldurrez
hizketara batu
nik ez dakit zer egin
gim-ana ahaztu
nahiz ta planak aipatzen
ekin guk, barkatu
ezer hasi baino lehen
behar da bukatu. (bis)

N. Elustondo

Bukatzeke ordea
maiz nago penetan
egoera trabatzen
zaidanez denetan
bukatzea komeni
da hasieretan
ta ni burugogorra
naiz kontu hoietan
astelehenero gisan
hasiko naiz dietan. (bis)

E. Zapiain

Ba hortako leku ona
ez da hau beharbada
neri dietarenak
eman dit ikara
nahi nuke lan errexa
giroa, patxara
iraila irudikatzen
ai Nerea! Hara
Hernaniko malda hau
bezalakoa da. (bis)

N. Elustondo

Ta biriketan haize
gutxi dugu, kuantto!
Aldapan behera ezin
ibili galako
baina beste kontu
bat ez da kalterako
hemen tabu da baina
aipatu beharko
badator txapelketa
gipuzkoarrontzako. (bis)

E. Zapiain

Badator txapelketa
topa altxa basoa!
nahiz kontu hori neretzat
izan den mantsoa
lehia maiz bihurtzen da
problema, arazoa
irailean egingen al
diogu pasoa
ta hartuko al dugu
bertso deskantsoa? (bis)

PLENTZIA

2024-09-01

Bertsolariak

Aroa Arrizubieta, Onintza Enbeita, Beñat Gaztelumendi, Julio Soto

Gai-emailea

Erlantz Ibargurengoitia

Plentzia-Gorliz-Lemoizko Bertso Eskolak eta Plentziako Jai Batzordeak antolatu dute beste behin ere Antolin jaietako IX. bertso jaialdia.

A. Arrizubieta- J. Soto

Gaia: Julio, aspaldi ari zara saltzaile jazarleen deiak jasotzen. Erantzuterakoan gozoa eta adeitsua izan zara beti, baina pazientzia agortzeaz duzu. Ordu txikietan ere hortxe, telefonoak dar-dar, kontuak saltzen eta eskaintzen. Berriro ere jo du telefonoak, Aroa komertziala duzu beste aldean.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Nere senarrarekin I*

A. Arrizubieta

Ring! Ring! Ring! aritu naiz
segundutxo batzuk
eta “Zer nahi duzu?” ja
erantzun duzu zuk
baina lasaitu zaitez
oferta ona dut
hogeta bat giga gaur
hoge euroren truk. (bis)

J. Soto

Hainbeste gitek hartzen
naute angustian
ni nere poltsa bero
ta bizkar bustian
ametsetan nenbilen
gozo arrastian
oaintxe Parisen nengon
Torre Eiffel azpian. (bis)

A. Arrizubieta

Berdin zait Torre Eiffelen
ta berdin elizan
eskeintza onak onartu
behar dira bizitzan
ez ote zenuke nahi
Torre Eiffelen gisan
gigak erosi eta
gigantea izan? (bis)

J. Soto

Beraz pentsatu behar
nuke giganteki
baina gaua heltzean
emeki-emeki
hau *modo avionen*
baneuka hobeki
zuena *modo pelman*
egoten da beti. (bis)

A. Arrizubieta

Modo pelman nagoela
ta jendeak txalo
ta hau erosiko ote
didazun auskalo!
Gauzak konpondu behar
ditugu txotxolo!
Kontu korrontea eman
eta egizu lo! (bis)

J. Soto

Txotxolo esan didazu
lasai eta bikain
saltzaileak hitz egin
behar luke apain
nik emango nizuke
eskuzabal naiz hain!
Kontu korrontea ere
lotan daukat orain. (bis)

B. Gaztelumendi

Gaia: Ogasunak ere dena kontrolatu nahi, eta aurten hasi da zenbait tokitan txosna eta herrietako jaietako ekonomia kontrolatu nahian. Gasteizen herriko txosnei Ticket bai sistema ezarri nahi izan die, eta hurrengo urtean helduko omen da Bizkaia eta Gipuzkoara. Beñat, ticket bai ala ticket ez?

Neurria: Hamarreko handia
Airea: *Amodioa gauza tristea*

B. Gaztelumendi

Polemika bat egon da nunbait
Ticket baiari lotua
orain arteko eredu hori
omen dago agortua
eta festaren erdigunera
ailegatu da jokua
kontrolik behar dugun edo ez
hori ez dugu kontua
arazoa da ea norengan
ipintzen dugun fokua.

Ze Iberdrola ta Petronorren
badago usain ustela
AHTren obretara ere
so jar gaitezen bestela
ta lanpostu ta txiringitoak
ia azokan bezela
egia bada ustelkeria
kontrolatu nahi dutela
Jaurlaritzaren estolderiak
arakatu ditzatela.

Txosnak ekarpen bat egiten du
eta besterik ezean
mugimendu bat elikatzen da
eta barraren ertzean
ardatza jarri nahi ez duena
norbere interesean
baina Ticket bai sartu omen da
halaxe diru beltzean
legeak beti begiratzen du
pobreenaren etxean.

ALKIZA

2024-09-13

Bertsolariak

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Oihana Iguaran, Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallus

Gai-emailea

Amaia Agirre

Alkizako festetako jaialdia, hogeita hamar urtetik hona behintzat hutsik egin gabe egin dena, aurtun zazpigarren aldiz jarraian herriko elizan egin da.

M. Lujanbio - A. Egaña

Gaia: Maialen, arropa eta oinetako denda bateko langilea zaitugu. Gaur atetik, ezagutzen ez duzun bezero bat sartu da, Andoni, eta sartu orduko hasi zaizu bere historia kontatzen. Bertsolaria dela, saio batetan oholtza batetik erori eta humeroa hautsi duela eta oinetako eta arropa eroso behar dituela. Gauza jakina da, bistakoa, zergatik. Atera dizkiozu bata eta bestea. Jantzi, erantzi, probatu. Hau bai, hau ez, hau izan liteke. Ordu bete dagoeneko. Zer moduz doa?

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Behin batean Loiolan III*

A. Egaña

Alkandora zabalak
ziren nere planak
hartara errazteko
hau sartzeko lanak
baina hawaianak ez
hor argi esanak
barre egingo didate
oholtzakide danak. (bis)

A. Egaña

Eta galtzak'e nahiko
bereziak klaro!
Praketaik gabe batzuk
nituen itxaro
esku bakarrarekin
praketaz akabo
txoria harrapatzeko
arriskua dago. (bis)

A. Egaña

Ta zapata pare bat
behar det itzela
aintzat hartu egoera
berezia dela
kanpora lokarriak
kanpora kordela!
Edota belkrodunak
umee bezela. (bis)

M. Lujanbio

Lore eta hostoei
orduan zuk paso
ene! Moda kontuan
zabiltzate lauso
zuri L ez zaizu
sartuko akaso
XL badaukat
Xebaxtian Lizaso. (bis)

M. Lujanbio

Hainbeste txori kontu
detailezko datu
bakarrik nahi det saldu
ta ondo kobratu
horra hor gomadunak
zuk ondo kokatu
ta hortik aurrerakorik
neri ez kontatu. (bis)

M. Lujanbio

Nahiz lokarriak izan
neurri-neurrikoak
nahiz umeen belkroak
beti-betikoak
oholtzatan irrist
ein zula tipoak
zoruak behar dituzu
bentosakikoak. (bis)

A. Egaña

Niki, praka, zapata
hori ez da dena
buru gainean badet
falta nabarmena
nere lehengo txapela
nola dan bestena
txapel bat behar nuke
erortzen ez dena. (bis)

M. Lujanbio

Hau da hau kejosoa
min hemen ta min han
azkeneko kolpea
oholtza ixkinan
txapela ere galdu
omen zun antzinan
ordun'e buruz behera
zu erori zinan. (bis)

GALDAKAO

2024-09-15

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Sustrai Colina

Gai-emailea

Arkaitz Estiballes

Santakurtze jaietan Kurtzeko plaza atondu du udalak urteroko jaialdia burutzeko.
500 lagun inguru elkartu dira bertan.

N. Ibarzabal - S. Colina

Gaia: Zuek biok bikotea zarete eta Sustraik ingurugiroarekiko ardura handia dauka. Nerea, zuk esaten zenion ez zela ideia ona, baina auto elektrikoa erosi zuen maiatzean. Abuztuan gaude eta urtero bezala, Cadizera, Conilera, bidaiatu behar zenuten. Goizean atera zarete etxetik. Hamasei ordu pasa dira eta laugarren geldialdia egin duzue Sevilla parean, autoa kargatzeko. Nerea, ezin duzu gehiago.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Gizona da zoroa*

N. Ibarzabal

Hobe etorri bagina
abioi zein trenez
kotxe elektrikoek
lana badu denez
ez zen ideia ona
pentsatzen dut senez
baina ez dizut esango
berrehungarrenez. (bis)

S. Colina

Kotxea ekarri nuen
dotore ta ongi
bere brillo, dizdira
ta kolore hori
autonomi falta du
kontuan erori
entxufatu denekin
gertatzen da hori. (bis)

N. Ibarzabal

Antza umorerako
 tarte duzu zuk
 baina nik pila denak
 deskargatu ditut
 zure autonomia
 mugatuaren truk
 nik independentzia
 eskatuko dizut. (bis)

S. Colina

Hasita ote zaude
 asteroko teman?
 Zuk eskatzen baduzu
 ba nik lasai eman
 benga ba zoaz oinez
 edo zoaz hegan
 eta ea noraino
 ailegatzen zeran. (bis)

N. Ibarzabal

Oinez pasatuko dut
 horko autopista
 ta azkarrago igaro
 pare bat herrixka
 kargatzen nauzulako
 bakarrik erdizka
 aspaldi amatau zen
 gure arteko txispa. (bis)

S. Colina

Egia da behiala
 izandako gauen
 txispa itzali zela
 ta dabil ahulen
 baina esaerak dio
 neska seguruen
 Sevillara joan zenak
 silla galdu zuen. (bis)

N. Ibarzabal

Metafora kontutan
 hain era finkoan
 beti erortzen gara
 kontu betikoan
 banoa Sevillara
 diesel tipoan
 zu geratu hor zure
 silla elektrikoan. (bis)

S. Colina

Beraz onartu behar
 egindako plana
 nik elektrikoa nahi
 nukeelako dana
 ta bastante diesela
 da nere lastana
 hibridoa izango da
 gure harremana. (bis)

LOIU (LAUROETA)

2024-09-27

Bertsolariak

Etzahun Lekue, Aitor Etxebarriazarraga, Oihana Bartra eta Igor Elortza

Gai-emailea

Iñaki Beitia *Arbildu*

Lauroeta auzoko jaietako xapito azpian bildu dira urtero legez bertsozaleak.

A. Etxebarriazarraga

Gaia: Lauroetan kantatzea ez da erraza. Froga bat pasa behar duzu. Adibidez Frediri asko kosta zitzaion froga hau pasatzea. Kontua da zuk nahi duzun doinu eta neurrian hasiko zarela kantatzen. Publiko artean bertso jakitun bat dago eta berak txintxarri bat dauka, arran bat. Uste duenean ondo egin duzula jo egingo du.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Emazurtz jaio hintzen*

A. Etxebarriazarraga

Laurotan egin behar
da bertsoz emankor
eta Fredin antzera
nator oso jator
ez dakizuenontzat
ni deitzen naz Aitor
ta arranaren kontuan
abixauta nator.

Montatu dozuenez
karparen hotela
hementxe reserbatu
nahi neuke logela
baina neu ere ez naiz
halako txepela
oparitu ezkerro
hartuko't txapela.

Bueno ba segi behar
eiten neure lana
Arbilduk jarri deusta
orain *la marrana*
baina luzatu behar
bada geure trama
mesedez daukan horrek
jo dezala arrana.

Pasatu behar dogu
halanik denbora
ia lehen kolpera
datorren aproba
ez naz Fredi ta ez noa
joaten lehengora
aurrera eiteko be
aukera egongo da.

Aurten Gipuzkokoa
omen dator bero
baina ha jasotzerik
ez dogu espero
hemen gaur lau bizkaitar
batu gara gero!
Kantatu dagigun ta
gerokoak gero.

Bueno ba oindino ez da
apurka jarraitu
txistua sikatu jat
ta ahoa blaitu
euriak behintzat hemen
harrapatu gaitu
ez goaz inora ta
Laurota lasaitu.

Hauxe da benetako
entrenamendua
abiadura baten
neure ukendua
Fredie etorri zergo
Aitor gailendua
harek gatx dauko ritmo
hauxe mantendua.

Baina banoa amaitzen
apurka-apurka
baina halanik nago
orain pentsatuta
txintxarriaz baten bat
zegen arduratuta
baina hona etorri da
etxean ahaztuta.

E. Lekue – O. Bartra

Gaia: Zuek biok, biharko mendi martxarako eman duzue izena. Goizaldeko bostak dira eta oraindik hor zaudete mostradore ondoan.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gazteak Lizargatez*

O. Bartra

Indarrak ipinita
gure motorrean
tragotxo bat hartuta
gaur derrigorrean
eta horrela gaude
modu gogorrean
parranda honetako
mendi tontorrean. (bis)

E. Lekue

Txosna alboan gagoz
ez gagoz elizan
bart gaban lapur batzuk
egon diran gisan
abituallamentua
eroan dabe ehizan
nire motibazio
bakarra hori zan. (bis)

O. Bartra

Motibazio hori
nahiko logikoa
baina izan beharko da
eskeinirikoa
lehen kalimotxo ta
azken txupitoxa
benetako edari
energetikoa. (bis)

E. Lekue

Forma handia dozu
zeure talentuan
ta oin zaoz gorenean
behar den momentuan
bihar egizu martxa
entrenamenduan
nik itxarongo 'zut oin
nagoez lekuan. (bis)

O. Bartra

Gaba osoan gabitz
ijili-ajala
ezin dugu gastatu
azkenengo bala
ni joan ta zu hemen bertan
egongo zarala
ezin duzu ukatu
martxa daukadala. (bis)

E. Lekue

Zuk martxa dekozunik
nork ez dau jakingo
bihar ere martxari
deutsezu ekingo
zerbeza ta txupitoxa
guztietan bingo!
Deshidratatu behintzat
ez zara egingo. (bis)

O. Bartra

Parrandan hemen nabil
zurekin hain lasai
alkohola bihurtuta
niretzat erregai
likido pila baino
nik ez dudala nahi
barran badago eta
zeruan ere bai. (bis)

E. Lekue

Baina atxaki horrek
emon leike txarto
eta hobetsuren bat
pentsatu beharko
bikaina otu jata
nire baitarako
desnibel gitxiegi
deko niretzako. (bis)

O. Bartra

Beraz luzatu behar
da gure denbora
parrandan hartu dugu
kristoren ganora
gora joango gara
dantzan gora, gora
ta holan gure aldatza
nibelatuko da. (bis)

E. Lekue

Diñoskue kirola
dogula sanao
baina ez da zuzena
diñonan asmoa
nik ez dekot sasoia
ez dekot ritmoa
gura dozuna egin
ni etxera noa. (bis)

BILBO

2024-10-06

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal eta Jone Uria

Gai-emailea

Aissa Intxausti

Bizkaiko bertso munduko emakumeen II. topaketa* dela medio elkartu dira bertsolariak, gai-jartzaileak, antolatzaileak, epaileak eta zaleak; 50 lagun inguru orotara. Bizkaiko Bertsozale Elkartek (BBE) atondutako ekimena da, bi urtez behin antolatzen dena.

N. Ibarzabal - J. Uria

Gaia: Performance bat egingo dugu. Goizalde Atxutegi jarriko da Joneren aurrean eta Ainhoa Markinez Nerearen aurrean. Jonek eta Nereak Goizalde eta Ainhoaren ahotsetatik kantatuko dute, hurrenez hurren. Hots, Jonek kantatuko du eta Goizalde ahoa mugituko du; eta Nereak kantatzen duenean Ainhoak ahoa zabalduko du. Zuek biak, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako bi kide zarete, elkarterako dirua lortu behar duzuenak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundira (BFA) jo duzue, eta sekulako dirutza eskaini dizuete, baina baldintza batekin: Bizkaian antolatzen diren saio denetan, mikrofonoetan, BFAREN logo erraldoi bat ezarri behar duzue.

Neurria: Seiko txikia
Airea: *Bertsuak jarri dizkat*

N. Ibarzabal

“Jarri kartel handi bat”
Etxanobek hitza
baina ezin dugu onartu
holako baldintza
gure mikrofonoak
ja justu dabilta. (bis)

J. Uria

Zuek zuen gaztetxe
ta zuen Herriko
PNVren slogan
eta logotipo
bertso munduari ez zaio
gaizki etorriko. (bis)

N. Ibarzabal

Baina kartel bat lartxu
dugu guretzako
dirua behar dugu
hartuta aintzako
igual logo txiki bat
kamisetarako. (bis)

J. Uria

Kamiseta nahi duzu
bertatik bertara
negoziaketa nola
gaur ondo atara
sandalieta bazatoz
negoziaketara? (bis)

N. Ibarzabal

Egia da gaur freska
samar natorrela
lehen Fredi eta Etxahun
oholtzan zeudela
esaten zen Ternuak
ordaintzen zuela. (bis)

J. Uria

Hoiek beti txandala
zuten paseatzen
baina ondo hasi nahi bada
gaur negoziatzen
Sebastian Lizaso
ekarri behar zen. (bis)

N. Ibarzabal

Sebastian aparte
utzi behar genuke
ze harek millonada
handi baten truke
Diputazioan maskota
aterako luke. (bis)

J. Uria

Hemen oso urruti
dauzkagu algarak
zu eta ni desados
gaudenak erabat
pentsatu zer esango
lukeen Iturriagak! (bis)

N. Ibarzabal

Iturriaga dioa
maiz beltzetik gora
ta sartuko balitza
Diputaziora
lehertu egingo luke
armen detektora. (bis)

J. Uria

Haundiegia denez
ezetzen itzala
ezetz esan gerora
betiko bezala
zuloak txapelketak
tapatu ditzala. (bis)

OTXANDIO

(MEKOLETA)

2024-10-26

Bertsolariak
Unai Iturriaga eta Andoni Egaña
Gai-emailea
Ekaitz Ibarrondo

Harrera Eguna dela kausa Arkotxe Elkartean antolatutako bertso bazkaria, Harrera Elkartea, Otxandioko Udala eta herriko bertso eskolaren ekimenez.

U. Iturriaga – A. Egaña

Gaia: Unai, Martin Zabaleta zara, eta Andoni, Pasang Temba, xerpa. Duela 44 urte Everesteko tontorra partekatu zenuten ikurrina baten inguruan, eta gaur, Otxandioko herri mendizale honetan batu zarete.

Neurria: Hamarreko txikia
Airea: *Espanian behera*

U. Iturriaga

Ia mendi erdia
aldatuak aroz
zu barriro ikusteak
laguna a ze poz!
Memoria kolektibo
gogor hortara joz
garrantzitsua izan zan
danok gagoz ados
baina argazkietan
zu bakarrik zagoz. (bis)

A. Egaña

Argazkitan bakarrik
ezin zan bestela
ez al dakizu hori
eiten ez nuela
eskunarru bat neukan
baldarra bestela
baina zor didazuna
onarpen itzela
sinistu baitzidaten
zu igo zinela! (bis)

U. Iturriaga

Alde hortatik ez neban
inoz begiratu
gaur arte ez gaitue
biok konparatu
nik argazkia egin
zu parez paratu
ta orain gaiztakeriaz
ez eixu jokatu
ai Pasang, Pasang, Pasang
ez zaite pasatu! (bis)

A. Egaña

Berrogeita lau dira
majina bat urte
baina oroitzapena
sentitzen det fuerte
zuk bandera bat eman
jartzen zenbat neke!
Jakintza handirikan
ez geneukan guk'e
esan nun "Britaniarrak
bandera hau al dute?" (bis)

U. Iturriaga

Mendian topo in gendun
gulako bi harrik
goizaldean ondiño
ta biok itzarrik
tontorra jo genduen
nekatu, baldarrik
argazkia egin neutzun
ta ez zeukan txarrik
baina ez zan agertu
bandera bakarrik. (bis)

A. Egaña

Bandera soilik ez zen
ta ez zen kaltian
limoi tankerako bat
hantxe apartian
eguzkiaren izpi
guztien artian
ta gainera suge bat
aizkora batian...
Deszifratzen ari naiz
berrogei urtian. (bis)

U. Iturriaga

Ondiño be' somatzen
da aizkorakada
ze Movistarrek gaitu
gu kanpora laga
barri bat egin behar
dogu beharbada
tontor bat Motxotegi
hortxe dago hara
oxigenorik barik
aillegauko gara. (bis)

A. Egaña

Hiruroita hamar urte
ta ez gaude hain ñaño
berriz joan gintezke
Himalaiaraino
eta gozatu hango
izotz ta goi laino.
Mila esker Zabaleta
Euskal Herrian, ño!
Ezagunagoa naiz
neure etxean baino. (bis)



Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Arantza. 2024-06-15. XDZ

BILBO

2024-11-27

Bertsolariak

Eli Pagola, Jone Uria, Iruri Altzerreka eta Haira Aizpurua

Gai-emaileak

Sara Barandiaran

Señora bertso saioa antolatu dute Bira Kultur Guneak eta Oihana Bartrak gidatzen duen Señora Bertso Eskolak. Lau eurotako sarrera ordaindu duten zaleek bete dute Birako aretoa. Gaiak Señora Bertso Eskolako hamar lagunek prestatu dituzte, eta horietako kide batzuk izan dira, oholtzara igo ostean, gaiak eman dituztenak.

E. Pagola

Gaia: Aspalditxoan zabiltza harri-jasotzaile bihurtu nahian baina ez zara ausartzen pausoa ematera.

Neurria: Hamarreko handia

Airea: *Hil da Canovas fuera Canovas I*

E. Pagola

Plaza erdira atera nahi det
atera nahi naiz plazara
erakusteko dudana dohaia
ta dakarkidan patxada
herri osoak ikusi nazan
Perurenaren gixara
baina halakorik egunen baten
gertatu beharko bada
lehenik eta behin altxa beharko
dakarkidan harrikada.

Nik nekarkien pasio eta
amets goren horixe da
harriak gora altxa ditzadan
Gisasolaren antzera
baina maila ta dohaiagatik
bota ezker atzera
berritasunak ba omen datoz
beren tatu eta zera
urtebete bat alde egingo det
Azpiazu Fitness-era.

Maskulinoa dela kirola
berririk ez det esango
hamarren bat gu ikusi nahian
ere ez dela joango
baina ja batzuk bagabiltzanez
entrenatzen ondoz ondo
entrenatzaile fin bat badaukat
ondoan Lur Errekondo
ezin dugula dioten hoiek
ikusiko dute ondo.

LESAKA

2024-11-28

Bertsolariak

Kattin Madariaga, Julen Zelaieta eta Manolo Arozena

Gai-emailea

Estitxu Arozena

Andra Mari zaharren egoitzan urtero egin ohi den saioa antolatu dute aurten ere Bortzirietako Bertso Eskolak eta Andra Marik berak. 50 lagunen aitzinean aritu dira 3 belaunalditako bertsolariak.

J. Zelaieta – M. Arozena

Gaia: Baztanen jarduera fisikoa sustatzeko kirol errezeta ematen hasi dira, kirola egiteko errezeta. Julenek uste du ongi egonen zela hori ere Bortzirietan paratzea; Manolok ez du horren beharrik ikusten.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Gizona da zoroa*

J. Zelaieta

Adinean gotti ta
nolako trantzea
kirol errezetana
hara hor bertzea!
Alferrik dira gure
sofa ta etxea
Manolo tokatzen da
espabilatzea. (bis)

M. Arozena

Orain kirola egiten
hau da hau trantzea!
Aholku berdina da
bat eta bertzea
aizu galdera bat dut
nahi nuke lehertzea
galerazten al dute
puruk erretzea? (bis)

J. Zelaieta

Puruak erretzea
da zure desira
hortxe egoten zara
tira eta tira
baina arren puruak
hortik erretira
erre behar direnak
kaloriak dira! (bis)

M. Arozena

Jeiki ta hiru pieza
egiten 'ttut dantzan
ta gero zer eingo dut
hor nago zalantzan
kaloriak erreta
gaur zure errantzan
nik kaloriak erretzen
ditut bai baratzen! (bis)

J. Zelaieta

Baratzeko lan hori
nahiz beti lausenga
ai mitxelin horiek
ezin errez senda!
Hartu behar zenuke
kiroldegin senda
aquagymen aunitzez
hobe erretzen da. (bis)

M. Arozena

Neri traba haundirik
ez dit ein herriak
baina kirol kontutan
asunto larriak
beraz mugi ditzagun
buru ta gerriak
ta erosiko ditut
zapatil berriak. (bis)

J. Zelaieta

Eta Adidas markakoak
behar diren bezela
bebingoan izan duzu
ideia itzela
telefonoak jo du
joan zaitezela
seguru nago zure
medikua dela. (bis)

M. Arozena

Aspaldian nabila
lagun erdi maingu
ta kirola egiteak
alde ona badu
zurekin parez pare
gaur sorpresak salbu
zapatilak erosi
ta bastoia saldu! (bis)



BILBO

2024-11-29

Bertsolariak

Inazio Vidal, Janire Arrizabalaga eta Ibai Amillategi

Gai-emailea

Joanes Igeregi

Karmela Kontsumo Taldearen egoitzan antolatu dute bertso afaria, Karmela bera, Sukar Horia eta Jauzi Ekosoziala taldeek. Anti-errepresiboa eta Otxantegiren alde deitu dute bertso afaria.

I. Amillategi- J. Arrizabalaga

Gaia: Ibai baserritarra zara eta bizitza osoa daroazu sasoi honetan txerri-boda egiten; txerria hil, gero urte osorako okela gordetzeko. Urtero gonbidatzen dituzu txerri-bodara familia, auzokoak... lana egoten delako, eta gero trukean txorizo, odoloste eta abarrak banatzen dituzu. Aurten Janirek, zure ilobak, proposatu dizu Ibai, txerria bizirik uzteko eta odoloste beganoak egiteko.

Neurria: Hamarreko txikia

Airea: *Agur sagar beltzeran*

I. Amillategi

Betiko ohitura da
beti da normala
gure famili dana
izan da formala
baina proposamenez
etorri da hala
"Odoloste begano
egizu" aibala!
Entzun ta euki behar dot
kolapso mentala!

J. Arrizabalaga

Aipatu dizut eta
okertu begia
hori izango omen da
zure miseria
ezetz esan didazu
eta etetz erdia
kopetatik beherantza
doa izerdia
hautatu behar duzu
ni edo txerria.

I. Amillategi

Beraz aukeraketan
dago panorama
beganozko odolkiak
egia ai ama!
Zelako tamainukoa
dan ganeko zama
aukeraketa eitten
ez dot euki lana
ze txarria da beti
nik hiltzen dodana.

J. Arrizabalaga

Ba bai, hil ohi duzu ta
sarri askotan ti-ta
baina arraroa da
pentsatzen hasita
niretzako hori ez
da horren polita
ikusi nire odola
eta horren pinta
nahi baduzu hasi ahal
naiz orain kurrinka!

I. Amillategi

Beraz papelerako
hain zagoz gogotsu
proposamenak bota
eta estropozu
ohiturak mantentzeko
hainbeste esfortzu
aldatuko dot zeuk be'
horretan zagoz zu
nigaz batera zeozer
egiten badozu.

J. Arrizabalaga

Proposamena bota
didazu kolpetik
eta begiratuaz
begien gainetik
bale ba agertuko
naiz ni sukaldetik
beti esaten duzu
Gabonen partetik
odola ez al dago
guztian gainetik?

MARKINA-XEMEIN

2024-12-08

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal, Josune Aramendi, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga

Gai-emailea

Amaia Agirre

Zortzirehun eta berrogeita hamar lagun bildu dira Uni frontoian, igandez eta arratsaldeko 17:30ean, urteroko Kontzezioko bertso jaialdia dela kausa.

J. Aramendi

Gaia: Zure herriko bertso saio hau erreferentea da. Denek kantatu nahi izaten dute hemen, eta bertakoa izanik zer esanik ez. Zure ametsa bete duzula esan duzu agurrean. Baina, horrelakoetan, ordea, aukera dugunean, beldurrak, zalantzak sortzen zaizkigu. Zer da zuretzat gaur, hemen, oholtza honetan, bertsolari moduan kantuan aritzea?

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

J. Aramendi

“Kontzeziotan anima zaitetz!”
baneukan duda apurra
elkarren kontra nire alderdi
jostaria ta zuhurra
nola ez dut nahiko abestu egun hau
bada herrian ikurra?
Ta aldi berean, maila ote dut?
Ez ote naiz iruzurra?
Nolako zailak diren elkartzen
dardarka denean lurra
hau bizitzeak dakarren poza
ta huts egiteko beldurra.

Eta jendeak lagundu nahian
fedea onenean darrai
“Zuk oso ondo egingo duzu
eta joan zaitetz lasai!”
Bai baina hemen bakarrik nago
neure beldur, neure dohai
zelako errez bihur daitekeen
norbera norbere etsai
geure buruei exijitzea
inportantea ei da ai!
Besterik gabe disfrutatzekeo
baimena hartzea ere bai.

Eta hain justu asmo horrekin
 irten naiz plaza erdira
 neuri esanaz “Zuk lasai hartu
 lasai joan zaitez tira!”
 Denok ez dugu Lujanbio eta
 Ibarzabalen dizdira
 baina kantuan kabitzen dira
 mila molde, perspektiba
 bertsoak zerbait ona badauka
 hain juxtu ere hori da
 ta estralurtarrak egon daitezen
 lurtarrak be’ behar dira.

M. Lujanbio - N. Ibarzabal

Gaia: Urtarrilaren 11n Bilbon presoan aldeko Sareren manifestazioa egingo da. *Behin betiko konponbidea* lelopean. Biok Hernanin bizi zarete. Zuk Nerea ez duzu asko ezagutu garai bateko Hernani. Dena kale borroka omen zen, ez omen zegoen hitz egiteko eskubiderik irakurri izan dugu. Nerea behin-betiko konponbidea eskatzen ari zara, sinisten duzu horretan, baina ikusten duzu gabezia ugari; Maialeni Hernanin garai batean bizitakoaz galdezka hasi zatzaizkio Nerea.

Neurria: Zortziko txikia
 Doinua: *Lo hadi ainguria*

N. Ibarzabal

Hainbeste urtetako
 ze kondena ordain!
 Oraindik familiak
 itxaron gelan zain
 historiak hartu du
 bere buruan gain
 ze zaratatsua lehen
 ze ixila orain.

N. Ibarzabal

Horrenbeste urtetan
 isiltasun menpe
 bizi izan direnak
 horrenbeste jende
 dena erreztuko zela
 gero epez epe
 baina orain trankil berba
 egin al daiteke?

N. Ibarzabal

Oraindik bakegintzak
 du galtza bete lan
 denok erdin bilduta
 geure minen gelan
 kontraesan betean
 ta ez dakit zelan
 ta *Sarri Sarri* betau
 egin da kartzelan.

M. Lujanbio

Erasoa kalean
 erasoa prentsan
 herria borrokan ta
 gu autodefentsan
 bukaera behar da
 deskantsatu dezan
 ta bai, orain jendea
 ja ez daki zer esan.

M. Lujanbio

Ja ez daude lehengo
 harri eta bala
 baina askok dardarka
 mamia ta azala
 hitz eginez gero hor da
 burdinen itzala
 bizi gara pakean
 bageunde bezala.

M. Lujanbio

Pentsa kantu batentzat
 ze merezimendu!
 Memoria nahi dute
 historitik kendu
 baina iragan dena
 jakingo bagendu!
 Noiztik hasi oroitzen
 zeinen agintzen du?

N. Ibarzabal

Galdera nahiko zaila
ta orain ez dakit
erlojuak aurrerantz
badoaz tik, tak, tik
nola aniztu leike
geroa bertatik?
Ze dikurtso bakar bat
dator bafleetatik.

M. Lujanbio

Ta bafleen oihartzuna
nahi dute handitu
Gogora Institutu
eta abar argitu
iraganari beira
dena zedarritu
baina iragan horrek
zulo asko ditu.

N. Ibarzabal

Iragana geroa
ta gaurko jarduna
bizi izan gabea
ta bizi duguna
zelan lortu sarritan
ez dakit laguna
hontaz berba egiteko
zilegitasuna.

M. Lujanbio

Legez ere ezin da
ta hitz egin garden
dena kontatzen saia
gaitezen dena den
azierto ta akatsak
azaltzen nabarmen
ia behingoz presentera
ailegatzten garen.



Jaietako bertso pintxo bazkaria. Donapaleu. 2024-07-21. XDZ

LEXANTZÜ-ZUNHARRE

2024-12-08

Bertsolariak

Maddi Ane Txoperena eta Igor Elortza

Gai-emailea

Xan Alkhat

Etxebarren, Ezpeldoia eta Lexantzü-Zunharreko barrikadetan aritu dira bertsolariak kantuan, trikitilariak lagun. Itzuliaren ondotik, Lexantzüko gelan izan da bertso bazkaria. Aurten ere Elgebarrena elkarteko kideak aritu dira guztia apailatzen.

M. A. Txoperena

Gaia: Bi liburu idatzi dituzu *Ene baitan bizi da* eta *Ez erran inori*. Euskarak iraunen badu idatzi behar da? Irakurri behar da? Mintzatu behar da?

Neurria: Bost puntuko txikia

Airea: *Idatzi ditzakegu / Bihotzez gure kider*

Idatzi ditzakegu hamaika histori
idatzi ditzakegu hainbertze teori
idatzi ditzakegu kantu bat edo bi
irakurri behar da ta eskribitu ongi
Etxeparek jadanik erran zuen hori. (bis)

Idazteko denbora eta hainbat gako
behar dira lan hori erraza ez delako
gero hitzak joatea paperetik kanpo
ta jendeen begitara egitea salto
liburuak ez baitira apaletarako. (bis)

Ta letrek sortzen dute guregan lilura
nik idazten ta leitzen ditut hain gustura
horrela bizi baita herriko kultura
ta berdin du ahoz zein den literatura
bakoitzak egin beza ahal duen modura. (bis)

DONOSTIA

2024-12-14

Bertsolariak

Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Ane Labaka, Nerea Elustondo, Eneritz Artetxe, Andoni Rekondo eta Aner Peritz *Euzkitze*

XII. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

TXAPELDUNAREN AGURRA

Alaia Martin Etxebeste

Neurria: Hamaseikoa, ertainaren moldekoa, 8 puntuz.

Doinua: *Itsasoa marroia bada / El tiempo está después*

Bihurtu ditzagun lagunak
bizitzaren tenplu
badakitenak zer, noiz, nola
eta non galdetu
entzuten gaituztenak nahiz ta
pixka't logaletu
ta etxe bihurtzen dutenak
edozein ezleku.
Mendeko hitza bilakatu
den hontan mendeku
disolba dezagun eskuina
ta auzoa ezkertu
egon gaitezen lagunekin
hauskor ta *inprefektu*
elkarrengandik gertu eta
elkarrentzat gertu.

Sariketatako bertsoaldi hautatuak



GETXO

(ALGORTA)
2024-02-23

Bertsolariak

Haizea Telleria, Irantzu Idoate, June Diaz, Eli Zaldua, Idoia Granizo eta Danel
Etxeberria
Gai-emaile
Beñat Vidal

XXIII. Abra Saria

Azebarri kultur txokoan jokatu da Algortako Bertsolari Eskolak, ALBEk, urte guztiz antolatzen duen sariketa. Irantzu Idoatek jantzi du txapela eta Eli Zaldua izan da bigarren.

I. Idoate

Gaia: Migratzailea zara, muga bertan dago. Okerrik ezean laster salbu izango zara.

Neurria: Hamarreko txikia

Airea: *Hemen zizurkildar bat*

I. Idoate

Nahiz muga ikusten den
momentu honetan
pasabidea lasai
jende gutxi bertan
aintzina egin nahi dut
sinetsiz benetan
okerrik izanen ez
den esperantzetan
baina okerrak daude
alde guzietan.

Gorri kolorekoa
da ibai urdina
airean nabari da
lehengoen mina
baina iristeko egin
nuen noizbait zina
ez baita existitzen
segitu ezina
beraz erori arte
goazen aintzina!

BILBO

2024-03-15

Bertsolariak

Izaro Bilbao, Bittor Altube, Izaro Bilbao, Koldo Gezuraga eta Aissa Intxausti

Gai-emaile

Ainhoa Arregi

VI. Mauri eta Apolo Sariketa

Iñakiren Tabernan jokatu da Mauri eta Apolo Sariketaren seigarren edizioa, Bilbo Hiria Irratia eta Potojorran Bertso Eskolak antolatutakoa. Sariketa beste izen batez deituko omen dute datorren urtetik aurrera. Bittor Altube izan da txapelduna eta Aissa Intxaustik irabazi du bigarren saria.

A. Intxausti - B. Altube

Gaia: Aissa, *potosikotiko-depresiboa* zara, eta Bilboko eta inguruko bertso eskoletan zabiltza: astelehenetan Deustuko Elorri bertso eskolan, astearteetan Señora bertso eskolan, asteazkenetan Arrigorriagan eta ostegunetan lehenengo Santutxuko bertso eskolan eta gero Potojorran bertso eskolan. Gaur ostirala da eta Bittor psikoterapeutaren kontsultan zaude, dibanean etzanda.

Neurria: Zortziko txikia

Airea: *Gizona da zoroa*

A. Intxausti

Bertso oholtzak dira
niretzat aldare
ta psikoterapeuta
orain parez pare.
Igual arrazoi duzu
nago pixka't grabe
ez dakit hitz egiten
errimatu gabe! (bis)

A. Intxausti

Beraz lagundu dizut
apur bat sorkuntzan
obsesioa daukat
eta nik hizkuntzan
bertso eskola badago
ezin egin huts han
eta ez badago berriz
kantatzen dut dutxan. (bis)

A. Intxausti

Bertsotan izan behar du
gutxienez zatia
ta hori izan ahal da
zure erabakia
saio bat asmatzeko
hau da aitzakia
Bittor sortu dezagun
bertso terapia. (bis)

B. Altube

Bai, errimatzen duzu
gainera askotan
bertsotan zabiltz beti
baita ere lotan
baina ni nago Aissa
eskertu asmotan
zuregatik ikasi
dut eta bertsotan. (bis)

B. Altube

Ba benetakoa da
daukazu problema
soluzionatzen eman
behar dut onena
har 'zazu liburu bat
ahazteko dena
Xabier Amurizak
idatzia ez dena. (bis)

B. Altube

Ez dut gehiago sartu
gura hor muturra
buruai eman behar
diot ta egurra
buka dezagun orain
sesio laburra
hirurogeita bi euro
ta azken agurra. (bis)

AZPEITIA

2024-03-22

Bertsolariak

Andoni Rekondo, Aitor Tatiegí, Irantzu Idoate, Gorka Pagonabarraga, Eki Mateorena eta Maite Sarasola

Gai-emailea

Haritz Alberdi

XII. Erniarraitz Sariketako finala

Lehenengoz San Agustin Aretoan jokatu da Erniarraitz Sariketako finala erantzun oso onarekin. Itzeder Arrizabalaga trikitilariak jantzi dio Andoni Rekondo hernaniarrari txapela.

M. Sarasola – E. Mateorena

Gaia: Lagunak zarete. Nahiko nagusia zareten arren, oraindik emantzipatu gabe zaudete. Laguntza ekonomikoak jaso dituzue baina zalantzan zaudete.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, sei puntuz

Doinua: *Aresoarren bandera*

M. Sarasola

Lana, lana eta lana
hori bizitzako plana
hori da egun jendea gazteak
berez daramana
eskasa da panorama
proposamen bat ai ama!
Saia gaitezen alokairuan
sartzen erdi bana (bis)

E. Mateorena

Nahiz onak izan ideak
xoxak ez dira nereak
alokairuan bihur gaitezke
biok martireak
ta geroaren bideak
ez dira horren libreak
laguntza baino behar ditugu
baliabideak. (bis)

M. Sarasola

Ta hain modu eskasean
laguntzarekin trantzean
gaude baina ezin gara geratu
erritmoan atzean
ta orain egin ezean
jarri 'zazu balantzean
nik ez dut gura familia sortu
gurasoen etxean. (bis)

E. Mateorena

Ta aukeratu izena
gurasoek nahi dutena
bi familia nahasten badira
nahasten zaigu dena
aita ta amen pagarena
justu hori da problema
gure ezinak ekartzen dula
beste batzuen. (bis)

M. Sarasola

Beharra da, ez da moda
ta prezioak doaz gora
hiri batean, herri batean
ezin joan kanpora
ni joango naiz edonora
egin nahi nuke aproba
eta gerora zer gertatzen den
gero ikusiko da. (bis)

E. Mateorena

Hori da askoren gako
ta bada hainbesterako
bizitza on bat edukitzeko
joan beharra kanpo
egun bizitzea bapo
oso zaila badelako
ba adreiluak jarri ditzagun
heldu denerako. (bis)

A. Rekondo

Gaia: Denbora daramazu talde lanean. Gaur taldeko lider izateko aukera eskaini dizute

Neurria: Hamairukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

A. Rekondo

Lehen urtetan erdi lotsati
taldekideei agurra
orduz geroztik ikasi det ba
egun dakidan apurra
bizikletari tinko eutsita
hain txalkortuta, makurra
denborarekin izendatua
Ormaiztegiko zakurra
eta begi bistan Tourra. (bis)
Liderrarena ez da izaten
hain etorkizun ziurra
elkartzen dira ilusioa
ta gaizki 'iteko beldurra. (bis)

Ta kirolean beti ez al da
zeroa edo hamarra?
Onean dena laudorioa
ta akatsean marmarra
lehen aipatu det Tourrak bainauka
lehendik kezkatu xamarra
baina burutik kendu behar zait
sartu didaten aparra
ez, ni ez bainaiz bakarra (bis)
eskalatzaile finen dohaia
eta gregarioaren garra
denen artean egin dezagun
talde on baten indarra. (bis)

Lehen guztiak uzkurtzen ziren
Lance Armstrongen atakean
eta orain gu jarri behar gera
Pogačarren jo ta kean
Cofidisetik agindu hori
ni jarriz gero katean
baina gure egun zalantza daukat
ea nagon aldarlean
Mont Ventouxeko partean (bis)
zeren haundiak ibiltzen dira
gustora jolas parkean
eta ni horren txikia naiz han
oilar haundien artean. (bis)

GABIRIA

2024-04-06

Bertsolariak

Aner Peritz *Euzkitze*, Aitor Tatiegi, Maddi Aiestaran, Bittor Altube, Eki Mateorena
eta Aitor Ugarte

Gai-emailea
Ane Etxezarreta

LII. Osinalde Saria

Beste behin giro ezin hobean joan da Osinalde Elkartean izen bereko txapelketa. Ehun eta hogeita hamar lagunek afaldu dute bertan eta ondoren inguratu da jende gehiago saioa entzutera.

A. Euzkitze – A. Ugarte

Gaia: Herriko laneko brigadako bi kide zarete, Aner hasi berria da eta Aitorrek, aldiz, urte asko daramatza. Aner, ohartu zara lanik desatseginenak tokatzen zaizkizula.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

A. Euzkitze

Beti ibili behar
nik zure trukean
txapa nik entzun behar
inork entzutean
lurpera jetxi behar
eta ni lurpean...
Askio ikasi dezue zuk
berrogei urtean! (bis)

A. Ugarte

Hartuz nik egin dizut
zuri mesedea
baina zuek ez nuen
Aner nik fedea
ta probatu nahi nuen
zein zaren trebea!
Honi esaten zaio
zaharraren legea. (bis)

A. Euzkitze

Bai biak zara, zaharra
ta ilustratua
ta barruko harremana
nola puskatua!
Alperkeriarekin
ondo uztartua
igertzen zaizu barne
ertzain frustratua. (bis)

A. Ugarte

Aner horrelakoa
dugu guk bizitza
zuk badaezpada segi
ongi nere hitza
udaltzain ta ertzainek
daukaten baldintza
barkatu zu're bide
beretik zabiltza. (bis)

A. Euzkitze

Ba bai zure pausoez
xarmatxo dute
besteeri agintzen
horrenbeste urte
ta ni hemen lanean
lau xentimon truke
iriki alkantarilla
erten ein nahi nuke! (bis)

A. Ugarte

Ba zaharraren trukoez
hauexek dakarte
nik gura zintudan nik
hemendik aparte
nola bertsotarako
duzun nahiko arte
hortxe egongo zara
on bat bota arte. (bis)

Lehen puntua emanda.

A. Euzkitze

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

**Gustokoa al dezu
zure irudia?**
Hortik hona nolako
parre isuria!
Orain gogoan daukat
nora itzuria
norabait eraikitzen
ari naiz zubia.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

**Sare sozialetan
denok like-n bila**
ni ere hor bilatzen dut
bai nire perfila
noraino den zehatza
non den borobila
nahiago nuke hortik
askatu nadila.



*Elkarrizketa bat: Chillida eta Arteak 1950-70 erakusketari buruzko
bertso irakurketa. Donostia. 2024-09-17. XDZ*

SENPERE

2024-05-11

Bertsolariak

Maddi Aiestaran, Danel Herrarte, Irantzu Idoate, Izaro Bilbao, Haira Aizpurua eta
Jon Mendiluze

Gai-emailea

Xalbat Altzugarai

XV. Hernandorena Sariketa

Bi urtez behin jokatzen den Hernandorena Sariketako finaleko saioa da Larraldean etxean. Irantzu Idoatek jantzi du txapela eta Maddi Aiestaran izan da bigarren.

M. Aiestaran – I. Idoate

Gaia: Biziaren ondotik beste bizi bat badela sinisten dute biek, eta bakoitzaren izpiritua gizakia ez den beste gorputz batean berpizten dela. Beraz, nor izanen lirатеke beste bizi batean?

Neurria: Lau puntuko txikia

Airea: *Gizona da zorua*

M. Aiestaran

Zorri bat izan nahi dut nik, gaur ez bezela ta azkurea eman asko ahal dela espekulatzaile ta burgesek horrela seko nazkatu arte senti nazatela. (bis)

I. Idoate

Zorri gisa zintaizke produktuz erreta hola nekez mantendu liteke oreka hobe landare izan ondoren zer gerta laster animalerik ez da izanen ta. (bis)

M. Aiestaran

Nik nere odol pittin ta bi edo lau zango kezka bat dut ez dizut gezurrik esango landarera egiten baduzu zuk txango jo orduan ez al gara lagunak izango? (bis)

I. Idoate

Ba ukan genezake nunbait harremanik baina duda sortu zait guzia erranik izaki bizidun bat, hara ez dakit nik nahiko bizi gabeak bagira jadanik. (bis)

M. Aiestaran

Bizitzen saiatzen naiz ni hanka ta buru diozunak burlaren tankera hartu du hilondoa gozatu behar dugu seguru lehenengo hil arte itxarongo dugu. (bis)

I. Idoate

Ta ordurarte Maddi ene zenbat negar! Nahiz eta gero izan gu bi zorri mehar zertarako luzatu zerrendetan zehar ez al du Jaungoikoak erabaki behar? (bis)

IRURTZUN

2024-05-18

Bertsolariak

Maidar Arregi, Ainara Ieregi, Josu Txoperena, Patxi Castillo, Paula Amilburu eta Aitor Bizkarra

Gai-emailea

Zigor Gartzia

IV. Aixita Sariketa

Pikuxar Euskal Txokoak antolatuta jokatu da saio bakarrera IV. Aixita Sariketa. Aitor Bizkarrak irabazi du txapela, Maidar Arregirekin buruz burukoa jokatu ondano.

M. Arregi – A. Bizkarra

Gaia: Bikotea zarete. Aitor hautua egin zenuen mugikorrean Whatsappik ez instalatzeko. Maidar, gaur ere Aitorrentzat diren hamarren bat mezu jaso dituzu.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Airea: *Iparragirre abila dela*

A. Bizkarra

Bi gara eta ez gara bera
zuk maiz didazu aipatu
holako txapa jaso ezker
ezin nauzula maitatu
ai zenbat irakaspen!
Niretzako idazten
dauzkazu zortzi txalatu
konponbidea bakarra dago
zeuk ere desinstalatu. (bis)

M. Arregi

Baina zutaz gain Whatsapparekin
daukat harreman bikaina
zure kolegek esan didate
“Esan Aitorri bi kaña”
antidesarrollista
ez Whatsapp ta ez Insta
Aitor oso ondo baina
beste batzuek jasotzen dugu
zure hautuen ordaina. (bis)

A. Bizkarra

Lehen pozik geunden baina nekeza
bihurtu da azken txanpa
nire hautuen ordainarekin
zuk zenbat izerdi tanta!
Haserretuz gero zu
beti hala diozu
hor sartu dudala hanka
naizen bezala maite nauzula
hori iruzur galanta. (bis)

M. Arregi

Neri idazten didate baina
hamaika lagun urdurik
ez da funtzional izango hortik
kanpoko hamaika zubik.
Antidesarrollista
bihurtu zenez *Bizka*
idatzi dute lagun bik
zure nobia izan nahi nuen
ta zure ama dirudit. (bis)

A. Bizkarra

“Aupa!” idazten dizute eta erantzuten duzu “Aupa!” zerbaitek behar luke aldatu ni ere agobiatu nau ta. Hau otu zait ondoren nahiz ta guztiz dagoen nire printzipioen aurka sekretaria ta jefearnak ohean morboa dauka. (bis)

M. Arregi

Derrepentean kontu hontatik atera duzu hainbat su nahiz ta oheak neri ez egin honek beste enbarazu. Antidesarrollista zu ta ni berriz lista ez diet egingo kasu eta hautua hartu behar dut ala Whatsapp ala zu. (bis)

M. Arregi

Gaia: Dena hankaz gora dago zure inguruan.

Neurria: Hamabiko handia

Airea: *Komeni zaigun ixtoria bat A*

M. Arregi

Auzo okupa baten bizi naiz proiektua da txukuna baina batzutan hautsi egiten da nere geruza biguna auzoa dago erdi kolokan ta antsietatez laguna auzokideen artean gogor dabil urduritasuna ta ez dakigu noiz helduko den etxe husteen eguna hemen ezin da ondo ikusi inoren etorkizuna.

Nahiz ta luzatu gure jendea bizitzeko aldarria eguneroko bizitza gero askotan da lazgarria. Udaletxeak ere jarrera dauka ikaragarria gu botatzeko proiektu baten bista daukate jarria ez dakit nundik baina tripetan badaukat egonarria ta sentitzen naiz ekaitz erdian geldi dagoen harria.

Eta batzutan desorden dira gure auzoko bilerak ezegonkorak baitira hemen gauden denon ibilerak nahiz antolatu hainbat manifa nahiz ta antolatu grebak beti mobidak etortzen dira baten atzetik beste bat eta nik behintzat baditut nere DNla ta paperak auzoko batek ez dauzka eta zer sentituko du berak?

PORTUGALETE

2024-06-08

Bertsolariak

Maialen Akizu, Ane Zuazubiskar, Araitz Katarain, Ibai Lekuona, Eukene de los Aires, Irati Majuelo, Jone Uria eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Idoia Anzorandia

IV. Señora Sariketa

Portugaleteko Merkatuan izan da aurtengo Señora Sariketa (SS) Laugarren edizioa, hain zuzen. Aurretik egun pasako egitaraua antolatu dute SSko Antolakuntza Taldekoek. Jone Uriak eta Haira Aizpuruak jokatu dute buruz burukoa, eta getxoztarrak jantzi du pamela preziatua. Bestalde, Eukene de los Airesek irabazi du Tokado saria; bihotzetara gehien iritsi denari ematen ohi zaiona.

J. Uria – H. Aizpurua

Gaia: Gaur betetzen dira 10 urte *Gure Esku Dagok* deituta erabakitzekeo eskubidearen alde Iruñea eta Durango lotu zituen giza-katea egin zela. Bertan hartu zenuten parte zuek ere.

Neurria: Zortzikoa, berdinarenean moldekoa, 6 puntuz

Airea: *Dozena bat bertso berri A*

J. Uria

Orduko gogo ta pultsu
geroko pena ta putzu
nahiz egun hura bizitze hutsa
izan nahiko luxu
elkartuta pausuz pausu
gazte ikusten zaitut zu...
Zuk zortzi urte zenezkan nola
gogoratzen duzu? (bis)

H. Aizpurua

Ongi duzu galdetua
etorri zen momentua
zortzi urterekin pentsatzeko ere
ez da talentua...
Izan gabe kontaktua
ez jakin zer zen kontua
baina ikastolan buruz ikasi
ginuen kantua. (bis)

J. Uria

Kantuz ume eta gazte
eskuak ez zeuden aske
ta hala ere ordutik hona
ai zenbat desgaste!
Gure herri ta erbeste
baikenbiltzan horren eske
optimismoa behar zen baina
igual ez hainbeste. (bis)

H. Aizpurua

Zuen kopeta belztuak
elkartu ziren eskuak
teorizatu ziren segidan
kantu ta testuak.
Galdu dira merituak
militantzi kredituak
gazteei idortu egin zaizkigu
esku izerdituak. (bis)

J. Uria

Beti kausa baten alde
ezin da jardun debalde
nahiz ta herri honek militantzia
etengabe galde
ez da zuen kulpaa hala're
gu ere gabiltz zuen pare
joan zen Eskozia, joan zen prozesa
ta orain non gaude? (bis)

H. Aizpurua

Egoera hori deskriba
erran ziguten "Segi ba!".
Kontzientzia, pentsamendua
da alternatiba
egin genuena tira
gu ez goaz urrutira
baina aurrera eginen dugu
elkartzen bagira! (bis)

J. Uria

Optimista izatekotan
biotan zu gaurko hontan
ni oroitzapen horrek utzi nau
gaur erdi kolokan.
Erorita anekdotan
eta gertakari sortan
ta ultraeskuinak agindu baietz
biharko Europan. (bis)

H. Aizpurua

Jone ez zira zaharregi
ta horregatik gaitzerdi
Europa hori eraiki nahian
nahi badute segi
nahiz ta izan mila miseri
beharko gira eseri
ta ez da berandu gu izateko
zuen katebegi. (bis)

MUXIKA

2024-06-22

Bertsolariak

Eli Pagola, Asier Galarza, Iruri Altzerreka, Maddi Aiestaran, Gorka Pagonabarraga
eta Irantzu Idoate

Gai-emailea

Mikel Retolaza

IV. Argi Baltza Sariketa

Gernikako Bertso Eskolak antolatzen du Argi Baltza Sariketa Jon Lopategiren lanaren aitortza moduan. Hiru kanporaketa jokatu ondoren, finala izan da larunbatez Muxikan. Eli Pagolak eraman du txapela Asier Galarzarekin buruz burukoa jokatu ondoren.

A. Galarza – E. Pagola

Gaia: Lagun minak zarete. Asier, urte osoan zehar oso okupatuta egon denez udan eskainiko zizula denbora esan zizun Elik. Uda heldu da eta agenda betea dauka Elik, udaleku, txango... Ez da zutaz akordatu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espanian behera*

A. Galarza

Norberaren bizitza
daukagu jakina!
Baina behin egiteko
asmotan berdina
ekainak hogeita bi
ta egia gordina
berriz ere bakarrik
zure lagun mina
berriz egin diozu
lagunari mina. (bis)

E. Pagola

Ikasturtea pasa
baitet lanez lepo
orain uda helduta
guztia baleko
min egin dizut eta
zer det esateko?
Elkartuko bagina
nigatik perfekto
udalekutarako
konpra egiteko. (bis)

A. Galarza

Besterik ez badago
ene adiskidea
onartu beharko dut
dakartzun idea
baina planen bat nuen
nire adibidea
ze beldurgarria da
daukazun tinbrea
zurekin pasa nahi dut
denbora libre. (bis)

E. Pagola

Baina denborak dena
emango baligu
ez bagenuke behar
ez lan ta ez diru
oinarri bat behar da
ni nauzu testigu
laguna izateak
Asier merezi du
sillek hankak bezela
gutxienez hiru. (bis)

A. Galarza

Gehiegi ez naiz fijatzen
ni altzarietan
baina fidatu ohi naiz
zure egitean
asmo ona daukazu
zure begietan
baina tarte bat ez al
daukazu benetan
arratsalderen baten
bi hilabetetan? (bis)

E. Pagola

Eguneroko martxan
nahi nuke jarraitu
uda ez dadin uste
bezela amaitu
baina arratsalderik
behar bada doitu
bat libre utziko det
nola arrazoitu?
Salbuespen izango da
ta ez zaitez ohitu. (bis)



BERRIATUA

2024-06-27

Bertsolariak

June Aiestaran, Kelmene Abaitua, Hodei Amabizka, Naroa Jaio, Enara Gallastegi,
Ekhi Zuluaga, Haira Aizpurua eta Unax Aizpurua

Gai-emailea

Ander Txakartegi *Txaka*

XXVII. Berritxu Saria

Berriatuako Udalak eta Goikolau Kultur Elkarteak apailatuta jokatu da XXVII. Berritxu Saria herriko bideo gelan. Ariketa puntuagarriak bukatutakoan, Haira Aizpurua izan da lehena eta Unax Aizpurua bigarrena.

H. Aizpurua

Gaia: Urte askoan pertsona batek kalean gurutzatzean beti beste aldera begiratzen zuen. Gaur, begirada zuzendu eta "Epa!" esan dizu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Airea: *Larogeita hamar urte*

H. Aizpurua

Ume garaia ez baita
errexena gehienetan
berdin ez gira epaituak
gu aire hartze denetan
jazarpena jaso nuen
gaizki pasa dut benetan
jazzartzailearen menpe
egon naiz hiru urtetan. (bis)
Jendea gurutzatzen da
usu hiri handietan
zure ondoan ez naiz izan
inoiz eremu libreetan
ez nauzu agurtu egin
inoiz beste aldietan
zure lotsa isladatzen
baitzen ene begietan. (bis)

Laguntza eskatu nuen
bainuen horren beharra
baina ez delako ontzen
zerbait denean hain txarra
amets gaizto bihurtu zen
gure eskola xaharra
ni nintzen ume gaixoa
ta zu gelako izarra. (bis)
Hara! Umildu egin zira
ta ez zira izan bakarra
baina gorrotatzen zaitut
hortako baitut indarra
ene beste lagunekin
marraztua dut biharra
mendekurik ederrena
baita ene irrifarra. (bis)

ZARAUTZ

2024-09-06

Bertsolariak

Andoni Mujika *Anatx*, Iruri Altzerreka, Libe Goenaga, Aitor Tatiegi, Andoni Rekondo eta Araitx Katarain

Gai-emailea

Amaia Urbietta

XLVIII. Lizardi Saria

Urtero bezala, irailaren hasieran jokatu da Lizardi Saria. 150 lagun bilduta, Modelo Aretoan Aitor Tatiegi oñatiarrak irabazi du eta Nahikari Gabilondo bertsolari zarautztarrak jantzi dio txapela. Berak irabazi du bertso onenaren saria ere. Bigarren geratu da Andoni Rekondo hernaniarra.

A. Tatiegi – I. Altzerreka

Gaia: Kuadrillakoak zarete. Euskal jaietako prestatzen ari zarete. Iruri, tradizioari ahalik eta fidelen eutsiko dion jantziak prestatzen ari zara. Iritsi da festa eguna eta Aitor zapatillak eta niki txuri batekin azaldu da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

I. Altzerreka

Amantal eta gona
ipini ditut hor
buruan paineloa
ere jator-jator
zuk malla laburrak ta
Salomonak gogor
pixka bat ahalegindu
zintezkeen Aitor. (bis)

A. Tatiegi

Bista zuzendu duzu
nere piurara
malla deitzeko hartu
duzu lehen parada
ordea zerrek egin
dizu zuri traba?
Daukadan txaparroa
behintzat urdina da. (bis)

I. Altzerreka

Itxi 'dazu jartzea
hitz hoiek kolokan
ez nuke hasi gura
gaur zugaz borrokan
baina kasu egin behar
da ta gehiagotan
kuadrillatik botako
zaitugu martxa hontan. (bis)

A. Tatiegi

Ene, ene ez zaitez
bihurtu petrala
zuk dana ondo egingo
bazenu bezala!
Eroskiko karroan
sagardoak hala!
Hori ere da oso
tradizionala. (bis)

I. Altzerreka

Alkohol usadioa
gogokoa jatzu
baina jazkeretan zu
ez zabiz indartsu
hurrengorako hobeto
egidazu kasu
Gabonetako behintzat
prestatu ezazu. (bis)

A. Tatiegi

Ba hori ere dator
juxtu zure kontra
gaur atera baduzu
lehengoko arropa
kontuz zerbezarik ez
traje hortara bota
tintoreriara ez dizut
nik eramango ta. (bis)

URRUÑA

2024-10-04

Bertsolariak

Aissa Intxausti, Eneritz Artetxe, Ramuntxo Christy, Eneko Lazkoz, Maddi Sarasua
eta Eneko Abasolo *Abarkas*

Gai-emailea

Aritz Bidegain

II. Errexil Saria

Urruñako herriko etxearekin elkarlanean antolatu du Bertsularien Lagunak Elkarteak bigarren Errexil Sariketa hau. Postako Gelan lehen lan puntuagarriak eginda, Eneko Lazkoz eta Maddi Sarasua sailkatu dira buruz burukorako eta Etxarri-aranaztarrak Jean Lui Eizmendi, *Errexil* bertsolariaren semearen eskutik jantzi du txapela.

E. Lazkoz

Gaia: Mendizale bat zara, Ezpeletako lepora abiatu zara. Bide bazterrean migrante batzuen omenez egindako oroigarri bat ikusi duzu. 1973an hiru gorputz atzemanak izan ziren leku honetan, hirurak maliarrak, goseak eta hotzak hilak. Pentsakor joan zara bidean.

Neurria: Zazpi puntuko berdina 16 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

E. Lazkoz

Ezpeletako lepoa, lepo eder, lepo altu
deskonektatu nahi badut neretzat toki sakratu
eta gaur berriro ere harri honekin topatu
nahiz eta beti bezela eskeini dit zer pentsatu
hortxe daude idatzita hiru izen, hiru datu
lurra dute ohe eta zerua berriz teilatu
berrogeita hamar urtetan ia ez da ezer aldatu. (bis)

Mundua ez baita guk uste dugun bezain borobila
ez al dirudi dugula itzaltzen doan bonbila?
Berrogei ta hamar urtera pasa dira egun pila
eta oraindik munduan bueltaka zenbat kuadrilla!
Batzuk sufritzen dabiltza eta mundua isila
hauek zertara zetozen argi geratu dadila
miseriatik ihesi eta bizitzaren bila. (bis)

Aspaldi hasi zen auzi honek amaiera nun du?
Bizitzeko behar bada jendea herritik urrundu
gu hitzez jatorrak gara baina ekintzaz tururu!
Egiten duguna baino gehiago esaten dugu
nora iritsiko garen ez nago oso seguru
gu ere mundua gara baina mundua ze mundu?
gu bezelakoak hiltzen uzten baldin baditugu! (bis)

BARAÑAIN

2024-10-25

Bertsolariak

Sabin Abarrategi, June Aiestaran, Kattin Madariaga eta Haira Aizpurua

Gai-emailea

Beñat Astiz

VI. Txana Sariketa

Barañaingo gaztetxean jokatu da bertsolari gazteen txapelketa, *Txana* zenaren omenez. Barañaingo Bertso Eskolak antolatu du, baita Beñat Astizek eman dituen gaiak jarri ere. Haira Aizpuruak jantzi du txapela.

H. Aizpurua – J. Aiestaran

Gaia: Azken Hatortxu Rock-a da aurtengoa. Abenduko edizioa XXIX.a izanen da eta udako jaialdi berezia XXX.a. Milaka dira dispertsioaren kontra bertatik igaro diren artista, bolondres eta musikazaleak. Biak joango zarete abenduan Atarrabian eginen den jaialdira. Zu, Haira, pozik zaude; June, berriz, ez.

Neurria: Hamarreko txikia
Airea: *Seme ezarri baina*

H. Aizpurua

Sarrera hartu eta
ez dut egin peto
urtero sentitu naiz
ni bertan etxeko
baina zendako zira
umore beltzeko?
Seinale ona da ta
ez jarri trantzeko
hori sortu zelako
noizbait bukatzeko. (bis)

H. Aizpurua

Pasatu baititugu
hain maitagarriak
uneak baina horiek
ez dira larriak.
Pasa ditu pertsonak
ta pasa herriak
etorriko direla
ditut igerriak
festibalez jantzirik
borroka berriak. (bis)

H. Aizpurua

Bai tragoz itotzeko
genuen parada
ta nostalgia aztarnaz
aurtengoa hara
bikain pasako dugu
eta ez da traba
urtero ez goaz ta
pena haundiz bertara
beharba joan gaitezke
EHZra. (bis)

J. Aiestaran

Ta amaieran nahiz ta ez
egon lekuz kanpo
ez diot ez dudarik
izan nahi bertako
baina azkenekoa dela
izanik aintzako
pozik ez nagoela
onartu beharko
nostalgia piztu zait
ta amaitzerako. (bis)

J. Aiestaran

Festibalez jantzirik
hobe da burruka
eta nahiz honena ez den
gu biona kulp
aurten ere atera
nahi dut horko punta
nire sentimendua
ez al da arrunta?
Gabonetan pereza
arintzen zigun ta! (bis)

J. Aiestaran

Noski hori ahaztuta
ez nuen hala're
udan izaten baita
gure gogo jabe
topa egingo dugu
Haira ez debalde
gure laguntasuna
ospatzeko xuabe
eta beste topa bat
Hatortxuren alde! (bis)

ZALDIBIA

2024-11-09

Bertsolariak

J. Soto, J.M. Irazu, G. Navarro eta A. Labaka

Gai-emailea

Iker Iriarte

VII. Udazkeneko Zapi janztea

Bazkariaren bueltan egin dute aurtengo Zapi janztea, larunbatez Zubiburu Elkartean. Librean eta Iker Iriartek jarritako gaiekin aritu dira bertsolariak kantuan eta publikoak Julio Soto izendatu du aurtengo irabazle. Ohiturari jarraiki, Jexux Mari Irazu aurreko irabazleak jarri dio gorritiarrari zapia.

J.M. Irazu - A. Labaka - G. Navarro - J. Soto

Gaia: Zaldibiko koruko edo abesbatzako lau kide zarete. Egun seinalatuetan kalera irten zarete kantatzera. Anek ondo kantatzen du eta badaki. Juliok nabarmen desafinatzen du baina ez zaio inporta. Irazuk letra bakar bat ere ez daki, eta Garazik giroa du gustuko eta irteeraren aitzakian tabernetan ibiltzen da.

Neurria: Lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

J. Soto¹²

Hirurogeita hamasei urte
kunplituko ditut aurtan
dagoeneko ez zait inporta
nitaz ze pentsatzen duten.

G. Navarro

Sagardo pixka't ekar 'zazue
beharrezko ez al zan ba?
Hemen ahotsa ez da berotzen
oxigenoa edanda!

A. Labaka

Ahots honekin nahiko nituzke
belarri guztiak urtu
Julio jarri nire atzean
eta pixka bat makurtu.

J.M. Irazu

Ez letra eta ez solfeorik
baina irtetzen da zerbait
beti Santa Fa nahi izaten det
Santa Fe ateratzen zait.

J. Soto¹³

Abildaderik baldin baneuke
hobe egin nahi nuke nik
baino ez pentsa bertsolariek
hobe egiten dutenik.

G. Navarro

Belarri txarra du gizajoak
ez egin barre ez dauka kupa
Julio hori konpontzen da hemen
patxaran kopa hartuta.

¹² Nahita kantatu du gaizki.

¹³ Nahita kantatu du gaizki.

A. Labaka

Repertorio klasiko baten
kaleak eta baleak
ta honek oraindik ez du ikasi
Ikusi mendizaleak!

J.M. Irazu

Ai letrarekin a ze komerik
holako momentu txarrik!
Julio zuk ere hobe zenuke
ahoa moittu bakarrik.

J. Soto¹⁴

G. Navarro

Hori da Soto nire laguna
gaitasuna bai zurea
argi ikusten da holakoetan
dena da aktitidea.

A. Labaka

Ni deseroso nago zuekin
orain behian orain goian
igual izena eman behar det
Donostiko Orfeoian.

J.M. Irazu

Soton letra bat badaukat hemen
nahi nuke ondo xuxurla
esaten dute kopla eder hau
Zaldibin kantatu zula.

J. Soto¹⁵

Aber Julio zentratu zaite
estutzen doa ataka
saiatzen denak lortu dezake
pixkanaka, pixkanaka.

G. Navarro

Bale Julio hobetzen zoaz
ulertzen goaz gu biok
eske ez dakite, lehen edarira
hauts pixka bat bota diot.

A. Labaka

Ai konpainia txarra hartuta
Zaldibin zenbat masakre!
Aldatu egin behar det eta
salbatu nazazu *Xapre!*

J.M. Irazu

A ze nolako lau korista gu
elkartu geranak bertan
egunen baten irtengo gera
Tolosako txapelketan.

14 Ez du kantatu; ahoz imintzioak besterik ez ditu egin.

15 Orain hobetoxeago kantatzen.

AMENDÜZE-UNASO

2024-11-30

Bertsolariak

Battitt Crouspeyre, Nahia Etxeberri-Lopepe, Ramuntxo Christy, Peio Minhondo, Gus Elizondo, Oier Urreizti, Paul Moal-Darrigade, Mizel Mateo, Jean Marie Oillarburu, Pettan Prebende, Bittor Thikoipe, Elixabet Etxandi eta Xan Alkhat.

Gai-emaileak

Xalbat Altzugarai, Amaia Castorene eta Joana Itzaina

I. Baxenafarroako Kopla Topelketa

Kopla Topelketa antolatu du Eskukula Bertso Eskolak. 70 lagun bildu dira Amendüzeko eiheran. Elixabete Etxandi izan da txapelduna, publikoak hala deliberaturik.

E. Etxandi – B. Thikoipe

Gaia: Tinderren match egin duzuen bi bertsolari zarete. Match egin eta mintzatzen hasi zarete baina ez normalki mintzatzen den bezala, kopletan baizik, elkarri audioak igorritz. Nola doa elkar ezagutza?

Neurria: Bi puntuko berdina, 16 silabaz
Airea: *Gaur parte hartu izanaz / Guantanamera*

E. Etxandi

A ze gauza ederra den, nik begia dut hezea (bis)
ofean eginen dugu guk biek hanka luzea.

B. Thikoipe

Xinpleki hasia zira zu gauza hartzen dut serio (bis)
audioetan ohartzen naiz ez zirela Lujanbio.

E. Etxandi

Ez ni ez niz Lujanbio baina arin 'zazu zama (bis)
lehen kartzelakoa zen orain ganbarako lana.

B. Thikoipe

Orain arte audioekin bertso luzeetan kalakan (bis)
zure maila ikusirik hasiko gira gu koplan?

E. Etxandi

Gehiago ahal duzu zuk, Bittor zure buruan sinets! (bis)
Ni izanen niz Lujanbio ta zu berriz ene Amets.

B. Thikoipe

Ametsena eginen dut, ahal bada nere gisa (bis)
Habanera kantatu ta einen dizut strip-tease¹⁶.

E. Etxandi

Strip-tease¹⁷ zuk egitea nuke zinez gustukoa (bis)
kopla utzi ta has dezaun biek buruz burukoa.

B. Thikoipe

Iduritzen zait koplatan berotzen ari sobera (bis)
strip-tease¹⁸ hasiko dut ta goazen biak ohera!



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Donostia. 2024-12-14. Alberto Elozegi. XDZ

¹⁶ “Striptisa” ahoskatu du.

¹⁷ “Striptisa” ahoskatu du.

¹⁸ “Striptisa” ahoskatu du.

Bertso
saioen
mugimendua



Euskal Herria	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Araba	21	13	23	3	3	3	17	4	1	16
Baxenabarre	5	6	8	0	2	0	1	2	0	12
Bizkaia	117	98	89	8	3	1	16	35	4	58
Gipuzkoa	156	137	174	8	19	13	41	33	6	105
Lapurdia	20	9	7	0	5	4	1	5	0	12
Nafarroa	36	27	93	1	2	4	3	11	2	29
Zuberoa	3	1	6	0	0	0	0	1	0	2
GUZTIRA	358	291	400	20	34	25	79	91	13	234

Araba	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Aiaraldea	3	2	4	0	0	0	2	1	0	4
Arabako Errioxa	2	2	1	0	1	0	2	0	0	0
Arabako Lautada	0	1	1	0	0	2	2	1	0	1
Arabako Mendialdea	0	0	0	0	0	0	2	0	0	1
Añanaldea	1	0	0	0	0	1	0	0	0	0
Gasteizaldea	12	4	5	2	1	0	3	1	1	5
Trebiñuko Konderrria	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0
Zuia-Gorbeialdea	2	3	12	1	1	0	6	1	0	5
GUZTIRA	21	13	23	3	3	3	17	4	1	16

Baxenabarre	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Agaramont	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Amikuze	0	0	1	0	1	0	0	1	0	2
Arberoa	1	1	1	0	1	0	0	1	0	3
Baigorri-Ortzaize	3	4	5	0	0	0	1	0	0	2
Garazi	0	1	1	0	0	0	0	0	0	1
Oztibarre	1	0	0	0	0	0	0	0	0	4
GUZTIRA	5	6	8	0	2	0	1	2	0	12

Bizkaia	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Arratia-Nerbioi	8	7	10	0	0	0	1	1	0	2
Bilboaldea	24	18	21	3	0	0	6	10	1	23
Busturialdea	13	15	9	2	1	0	1	9	1	6
Durangaldea	28	10	12	1	0	0	3	1	1	8
Enkarterri	4	10	10	0	0	0	1	1	0	2
Lea-Artibai	10	12	14	1	1	0	0	3	0	10
Uribe-Butroe	14	13	9	0	0	0	0	1	1	5
Uribe-Kosta	16	13	4	1	1	1	4	9	0	2
GUZTIRA	117	98	89	8	3	1	16	35	4	58

Gipuzkoa	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Bidasoaldea	5	5	6	1	0	0	2	0	0	0
Buruntzaldea	22	17	22	2	1	2	5	3	1	13
Debabarrena	8	17	13	0	5	10	5	1	2	22
Debagoiena	9	14	10	2	1	0	5	5	0	7
Donostialdea	18	13	18	2	1	0	1	0	0	13
Goierri	20	24	33	1	3	0	8	9	1	12
Oarsoaldea	20	8	17	0	2	0	4	4	1	14
Tolosaldea	32	13	21	0	1	1	4	1	0	11
Urola Kosta	22	26	34	0	5	0	7	10	1	13
GUZTIRA	156	137	174	8	19	13	41	33	6	105

Lapurdi	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Biarritz-Angelu-Baiona	3	1	2	0	1	1	0	0	0	3
Lapurdi Beherea	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Lapurdi Ekialdea	0	2	1	0	1	0	0	0	0	2
Lapurdi Erdialdea	4	1	1	0	2	0	0	1	0	3
Lapurdi Garaia	5	2	2	0	0	0	1	0	0	0
Lapurdi Itsasegia	7	3	1	0	1	3	0	4	0	3
GUZTIRA	20	9	7	0	5	4	1	5	0	12

Nafarroa	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Erriberriko Merindadea	0	1	3	0	0	0	0	0	0	1
Iruñeko Merindadea	35	21	78	1	2	4	3	11	2	25
Lizarrako Merindadea	1	2	3	0	0	0	0	0	0	1
Tuterako Merindadea	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0
Zangozako Merindadea	0	3	7	0	0	0	0	0	0	2
GUZTIRA	36	27	93	1	2	4	3	11	2	29

Zuberoa	Jaialdia	Plaza librea	Lagun-artekoa	Ekitaldipekoa	Eskekoa	Didaktikoa	Txapelketa	Sariketa	Lehiaketa	Berezia
Arbaila	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Basabürüa	0	1	5	0	0	0	0	1	0	2
Pettarra	2	0	1	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	3	1	6	0	0	0	0	1	0	2





Tauletako kontzeptuen azalpena

Araba:

Aiaraldea: Aiara, Amurrio, Artziniega, Audio, Okondo

Añanaldea: Armiñon, Añana, Berantevilla, Erriberabeitia, Erriberagoitia, Gaubea, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Zabrana

Arabako Errioxa: Bastida, Bilar, Ekora, Eltziego, Eskuernaga, Guardia, Kripan, Lantziego, La Puebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego

Arabako Lautada: Agurain, Asparrena, Barrundia, Burgu, Donemillaga, Dulantzi, Iruraitz-Gauna, Zalduondo

Arabako Mendialdea: Arraia-Maeztu, Bernedo, Harana, Kanpezu, Langran, Urizaharra

Gasteizaldea: Arana, Gasteiz, Abetxuku, Gamarra Nagusia, Uribarri Dibiña...

Trebiñuko Konderria: Argantzun, Askartza, Trebiñu

Zuia-Gorbeialdea: Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia

Baxenabarre:

Agaramont: Akamarre, Bidaxune, Burgue-erreiti, Erango, Samatze

Amikuze: Aiziritze-Gamue-Zohazti, Amendüze-Unaso, Amortze-Zokotze, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Arrueta-Sarikota, Behaskane-Laphizketa, Behauze, Bithiriña, Donapaleu, Gabadi, Garruze, Ilharre, Labetze-Bizkai, Larribarre-Sorhapuru, Lukuze-Altzumarta, Martxueta, Oragarre, Ostankoa, Uhartehiri

Arberoa: Aiherra, Armendaritze, Bastida, Donamartiri, Donoztiri, Heleta, Iholdi, Irisarri, Izturitze, Mehaine

Baigorri-Ortzaize: Aldude, Anhauze, Arrosa, Azkarate, Baigorri, Banka, Bidarra, Irulegi, Lasa, Ortzaize, Urepele

Garazi: Donibane Garazi, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Ainhize-Monjolose, Aintzila, Arnegi, Behorlegi, Buztintze-Hiriberri, Donazaharre, Duzunaritze-Sarasketa, Eiheralarre, Ezterenzubi, Gamarte, Izpura, Lakarra, Lekunberri, Mendibe, Suhuskune, Zaro, Jatsu, Uharte-Garazi

Oztibarre: Arhantsusi, Bunuze, Donaixti-Ibarre, Hozta, Ibarrola, Izura-Azme, Jutsi, Larzabale-Arroze-Zibitze

Bizkaia:

Arratia-Nerbioi: Arakaldo, Arantzazu, Arrankudiaga, Arteaga, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Orozko, Otxandio, Ubide, Ugao, Urduña, Zeanuri, Zeberio

Bilboalde: Alonsotegi, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Usansolo, Zaratamo

Busturialdea: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta

Durangaldea: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Zaldibar, Zornotza

Enkarterri: Abanto-Zierbena, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Muskiz, Ortuella, Sopuerta, Trapagaran, Turtzioz, Zalla

Lea-Artibai: Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxabarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar,

Uribe-Butroe: Arrieta, Bakio, Derio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Jatabe, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Meñaka, Morga, Mungia, Sondika, Zamudio

Uribe-Kosta: Barrika, Berango, Getxo, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz

Gipuzkoa:

Bidasoalde: Hondarribia eta Irun.

Buruntzaldea: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil

Debabarrena: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze

Debagoiena: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati

Donostialdea: Donostia

Goierri: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga

- Oarsoaldea:** Errenteria, Lezo, Oiartzun Pasaia
- Tolosaldea:** Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
- Urola Kosta:** Aia, Aizarnazabal, Azkoitia., Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia

Lapurdi:

- Biarritz, Angelu, Baiona:** Angelu, Baiona, Biarritz, Bokale
- Lapurdi Beherea:** Hiriburu, Lehuntze, Milafranga, Mugerre, Urketa
- Lapurdi Ekialdea:** Ahurti, Bardoze, Beskoitze, Gixune, Hazparne, Lekorne, Lekuine, Makea
- Lapurdi Erdialdea:** Ahetze, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Haltsu, Jatsu, Larresoro, Senpere, Uztaritze
- Lapurdi Garaia:** Ainhua, Ezpeleta, Itsasu, Kanbo, Luhuso, Sara, Zuraide
- Lapurdi Itsasagia:** Azkaine, Bidarte, Biriatu, Donibane Lohizune, Getaria, Hendaia, Urruña, Ziburu

Nafarroa:

- Erriberriko Merindadea:** Artaxoa, Azkoien, Caparroso, Erriberri, Faltzes, Funes, Leotz, Martzilla, Mendigorria, Milagro, Miranda Arga, Miranda El Cuende, Miranda El Fruto, Orbaibar, San Martin Unx, Santakara, Tafalla, Uxue
- Iruñeko Merindadea:** Basaburua, Baztan, Zugarramurdi, Bortziriak, Etxauribar, Gares, Iruñerria, Itza, Larraunalde, Leitzalde, Malerreka, Oltza Zendea, Sakana, Txulapain, Ultzamaldea
- Lizarrako Merindadea:** Ameskua, Armañanzas, Azuelo, Deierri, Doneztebe-Iguzkitza, Egaibar, El Busto, Genevilla, Iguskitzaibar, Lana, Lapoblacion, Lizarra, Lizarrako Erribera, Los Arcos, Marañon, San Adrian, Viana, Zirauki
- Tuterako Merindadea:** Ablitas, Alesdes, Arguedas, Barillas, Buñuel, Cadreita,

Cascante, Castejon, Cintruénigo, Corella, Cortes, Erripazuloaga, Fitero, Fontellas, Fustiñana, Melida, Monteagudo, Murchante, Sartaguda, Tulebras, Tuter, Valtierra, Zarrakaztelu

Zangozako Merindadea: Aezkoa, Agoitz, Ardaitz, Artzibar, Auritz, Bizkarret-Gerendain, Erroibar, Erronkariko Ibarra, Esteribar, Ibargoiti, Irunberri, Lizoainibar, Longide. Luzaide, Orreaga, Zangozaldea, Zaraitzu, Zilbeti

Zuberoa:

Arbaila: Altzuruku, Arrokiaga, Garindaine, Gotaine-Iribarne, Idauze-Mendi, Mendikota, Muskildi, Ozaze-Zühura, Pagola, Urdiñarbe, Zalgize-Donztebe,

Basabürüa: Aloze-Ziboze-Onizegaine, Itzai-Altzabeheti-Zunharreta, Atharratze-Sorholüze, Barkoxe, Eskiula, Etxebarre, Gamere-Zihiga, Hauze, Iruri, Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine, Larraine, Eskiula, Etxebarre, Gamere-Zihiga, Hauze, Iruri, Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine, Larraine, Lexantzü-Zunharre, Ligi-Atherei, Liginaga-Astüe, Montori, Santa Grazi

Pettarra: Ainharbe, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Berrogaine-Larüntze, Bildoze-Onizepea, Domintxaine-Berroeta, Etxarri, Ezpeize-Ündüreine, Jeztaze, Lohitzüne-Oihergi, Maule-Lextarre, Mitikile-Larriori-Mendibile, Ospitalepea, Ozaraine-Erribareita, Sarrikotapea, Sohüta, Ürrüstoi-Larrabile



Aldizkako
Ekitaldiak:
txapelketak,
sariketak
eta lehiaketak

Aldizkako Ekitaldiak: txapelketak, sariketak eta lehiaketak

Aldizkako Ekitaldiak deritzon atalean noizbehinka antolatzen diren ekitaldien berri jasotzen da. Ekitaldiok bertsolaritza sustatu eta biziberritzeko ekimen gisa hartu izan dira historian zehar, eta gaur egun ere funtzio hori betetzen dute. Hainbat motakoak izan daitezke. Esaterako, bakoitzaren helburuen arabera: bertsolaritza ezagutzera emateko, bertsolaritza prestigiatzeko, bertsolari gazteak ezagutarazteko... Ezaugarrien arabera, berriz, bestelako multzokatzea dugu: hedadura mailaren arabera, sailkapen modua, lehiakortasun maila, maiztasunaren arabera eta abar. Bertsolaritzaren Datu Basearen bidez Xenpelar Dokumentazio Zentroan jaso diren aldi-zkako ekitaldien informazioa ikus daiteke, helbide honetan: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako>

2024. urtean zehar izan diren txapelketa, sariketa eta lehiaketei buruz bildu ahal izan dugun informazioa honakoa da:

- Txapelketak

Euskal Herri mailan edo herrialde mailan 2024an antolatu diren bat-bateko lehiak:

1. Herrialde mailako txapelketak:

[Arabako Bertsolari Txapelketa \(16. 2024\)](#)

[Bardoak: Nafarroako taldekako bertso ekimena \(7. 2024\)](#)

[Bizkaiko Taldekako Txapelketa \(4. 2024\)](#)

[Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa \(12. 2024\)](#)

[Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa \(12. 2024\) Sailkapen fasea "Gipuzkoa Bertsoan"](#)

- 2.

3. Eskolarteko txapelketak:

[Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(29. 2024\)](#)

[Bertsulari Gazteen Xapelgoa \(31. 2024\)](#)

[Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(41. 2024\)](#)

[Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(36. 2024. Arantza\)](#)

[Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(44. 2024\)](#)

[Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa \(38. 2024. Iruñea\)](#)

- Sariketak

Eremu txikiagoan edo berezitasunen batekin 2024an antolatutako bat-bateko lehiak:

[Abra Saria \(23. 2024. Getxo\)](#)

[Aferak Sariketa \(1. 2024. Deustu\)](#)

[Aixita Bertso Sariketa \(4. 2024. Irurtzun\)](#)

[Akerbeltz Bertso Txapelketa \(14. 2024. Markina-Xemein\)](#)

[Aramaioko Kopla Txapelketa \(5. 2024. Aramaio\)](#)

[Argi Baltza Sariketa \(4. 2024\)](#)

[Argi Berri Saria \(26. 2024. Ordizia\)](#)

[Aztiri Saria \(24. 2024. Gabiria\)](#)

[Barañaingo Kopla Txapelketa Musikatua \(9. 2024. Barañain\)](#)

[Baxe Nafarroako Kopla Txapelketa \(1. 2024. Amendüze-Unaso\)](#)

[Bergarako Bertsolari Txapelketa \(11. 2024. Bergara\)](#)

[Berritxu Saria \(27. 2024. Berriatua\)](#)

[Bertso Erronda \(7. 2024. Bilbo\)](#)

[Bertso Txepelketa \(2. 2024. Aia\)](#)

[Bertsolari Gazteen BBK Sariketa \(32. 2024\)](#)

[Bertx\[h\]ori \(3. 2024. Iruñea\)](#)

[Bertxoko Sariketa \(11. 2024\)](#)

[Bortzirietako Bertso-Eskolaren Taldekako Lehiaketa \(25. 2024. Lesaka\)](#)

[Busturialdeko Bertsolari Txapelketa \(5. 2024\)](#)

[Erniarraitz Sariketa \(12. 2024\)](#)

[Errexil Saria \(2024. Urruña\)](#)

[Galarrena Kopla Txapelketa \(8. 2024. Lekeitio\)](#)

[Gelatik Plazara \(2. 2024\)](#)

[Imanol Lizardi Bertsolari Gazteen Lehenengo Sariketa \(1. 2024. Lasarte-Oria\)](#)

[Ligetx Koblakari Sariketa \(1. 2024. Aloze\)](#)

[Lizardi Saria \(48. 2024. Zarautz\)](#)

[MUXIKATUA: Bertso Sariketa Musikatua \(2. 2024. Lezo\)](#)

[Mariano Izeta \(11. 2024\)](#)

[Martxoan Bertsoa: Taldekako Bertsolari Txapelketa \(22. 2024\)](#)

[Mauri-Apolo Bertso Sariketa \(7. 2024. Bilbo\)](#)

[Osinalde Saria \(52. 2024. Gabiria\)](#)

[Osinberde Saria \(11. 2024. Zaldibia\)](#)

[Señora Sariketa \(4. 2024\)](#)

[Tabernetako Bertsolarien Sariketa \(29. 2024. Hernani\)](#)

[Txana Bertsolari Gazteen Sariketa \(6. 2024. Barañain\)](#)

[Udazkeneko Zapi Janzte \(7. 2024. Zaldibia\)](#)

[Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa \(4. 2024\)](#)

[Zarauzko Kopla Txapelketa \(16. 2024. Zarautz\)](#)

[Zortziko Txiki Txapelketa \(1. 2024. Amallo\)](#)

Lehiaketak

[Aitor Sarasua Bertso-Paper Lehiaketa \(3. 2024\)](#)

[Altzako "Arantxa Hernandez Eceiza" Bertso-Paper Lehiaketa \(14. 2024. Donostia\)](#)

[Arrasate Bertso-Paper Lehiaketa \(37. 2024. Arrasate\)](#)

[Arri-Botx bertso paper lehiaketa \(9. 2024. Ondarroa\)](#)

[Basarri Saria \(40. 2024. Zarautz\)](#)

[Baztan Bidasoko Bertso-Paper Lehiaketa \(37. 2024. Bera\)](#)

[Beasain Idazlehiaketa \(34. 2024. Beasain\)](#)

[Bertsolari Aldizkariaren Bertso Idatzi Lehiaketa \(4. 2024\)](#)

[Bideo-Kopla Lehiaketa \(5. 2024. Gasteiz\)](#)

[Bilboko Aratusteetako Kopla Txikien Lehiaketa \(9. 2024. Bilbo\)](#)

[Bota Bertsoa! Bertso paperen lehiaketa txikia \(10. 2024\)](#)

[Erandioko Bertsopaper Lehiaketa \(16. 2024. Erandio\)](#)


[Eskola-umeen Literatur Lehiaketa \(37. 2024. Orio\)](#)

[Euskaraz Gazte Literatur Lehiaketa \(31. 2024. Orio-Aia\)](#)

[Eva Forest Liburutopia Bertso-Paper Sariketa \(1. 2024. Gasteiz\)](#)

[Florentino Goiburu Bertso-paper Lehiaketa \(1. 2024. Idiazabal\)](#)

[Garriko Bertsolari Eguna: Bertso Idatzien Lehiaketa \(36. 2024. Muxika\)](#)
[Gaztelekuko Bertso-paper Lehiaketa \(13. 2024. Oñati\)](#)
[Getariako Literatur Lehiaketa \(23. 2024. Getaria\)](#)
[Hike Eizan! Bertso-paper Lehiaketa \(3. 2024. Azkoitia\)](#)
[Ibon Zabala Saria \(26. 2024. Erreterria\)](#)
[Iruñeko Bertso-paper Lehiaketa \(5. 2024. Iruñea\)](#)
[Iurretako Literatur Lehiaketa \(21. 2024. Iurretia\)](#)
[Julene Azpeitia Ipuin eta Bertso Lehiaketa \(26. 2024. Durango\)](#)
[Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa \(39. 2024. Bergara\)](#)
[Koldo Mitxelena Literatura Lehiaketa \(35. 2024. Donostia\)](#)
[Lazkao-Txiki Bertso-Paper Lehiaketa \(33. 2024. Ordizia\)](#)
[Literatura Lehiaketa Haurrentzat \(35. 2024. Barañain\)](#)
[Loramendi Literatura Lehiaketa \(2024. Aretxabaleta\)](#)
[Oiartzun Irratiko II.Kopla Txapelketa \(2. 2024. Oiartzun\)](#)
[Orribakar Literatura Lehiaketa \(11. 2024. Lezo\)](#)
[Orribakar Literatura Lehiaketa \(11. 2024. Lezo\)](#)
[San Andres Bertso-Paper Lehiaketa \(30. 2024. Eibar\)](#)
[San Antontxu Bertso-paper Lehiaketa \(26. 2024. Mungia\)](#)
[Txirristaka Bertso-Paper Lehiaketa \(2024. Mendaro\)](#)
[Zapirain Anaiak Bertso-Paper Lehiaketa \(36. 2024. Erreterria\)](#)



Saioen
aurkibidea

PLAZA

AMURRIO, 2024-01-04

A. Mendiluze, B. Gaztelumendi, S. Colina, J. Soto, J. Illarregi, A. Martin, A. Arzallus eta M. Lujanbio 10

ONDARROA, 2024-01-06

M. Akizu, J. M. Irazu, U. Iturriaga eta G. Navarro 12

ZORNOTZA, 2024-01-13

A. Egaña, O. Enbeita, A. Martin, I. Elortza, B. Gaztelumendi eta A. M. Peñagarikano ... 14

SUHUSKUNE, 2024-01-13

N. Elustondo eta A. Arzallus 16

HENDAIA, 2024-01-14

U. Iturriaga, S. Colina, A. Martin, A. Arzallus eta N. Ibarzabal 19

GERNIKA-LUMO, 2024-01-27

S. Colina, S. Alkaiza, M. Lujanbio eta E. Lekue 21

SARA, 2024-02-03

A. Arzallus eta H. Aizpurua 22

PASAIA, 2024-02-03

I. Zubeldia, M. Lujanbio, S. Colina, A. Arzallus, O. Bartra eta O. Iguaran 24

IRUÑEA, 2024-02-08

A. Arzallus, E. Lazkoz, S. Alkaiza, N. Ibarzabal, E. Zapiain eta En. Fernandez 26

SORALUZE, 2024-02-17

S. Robles, E. Zaldúa, M. Artetxe eta N. Ibarzabal 28

IRUÑEA, 2024-02-22

A. Zuazubiskar, X. Illarregi, J. Uria, A. Egaña, S. Karasatorre eta J. Illarregi 29

IRUÑEA, 2024-02-23

E. Mateorena, J. Arrizabalaga, K. Madariaga, S. Abarrategi, J. Mendiluze eta J. Aiestaran .. 32

GABIRIA, 2024-02-23

I. Urdangarin eta A. Mendiluze 34

ARROSA, 2024-02-23

M. Lujanbio eta H. Aizpurua 36

IRUÑEA, 2024-02-28

M. Amuriza, U. Iturriaga eta S. Colina 38

HENDAIA, 2024-03-01

A. Arruti, M. A. Txoperena, H. Aizpurua eta M. Goigana 40

ERRIGOITI, 2024-03-02

N. Ibarzabal eta I. Elortza 42

LAUDIO, 2024-03-07

A. Martin, A. Labaka, J. Uria eta O. Iguaran 44

PORTUGALETE, 2024-03-09

J. Soto eta A. Intxausti 46

GASTEIZ, 2024-03-16

M. Agirre, A. Arrizubieta, P. Abarrategi, I. Viñaspre, A. Otamendi eta P. Amilburu 48

AMASA-VILLABONA, 2024-03-23

S. Colina eta M. Artetxe 49

DONOSTIA, 2024-04-19

A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus eta S. Lizaso 50

ODIETA (Erripa), 2024-04-27

M. Amuriza eta U. Alberdi 53

IRUN, 2024-04-27

S. Lizaso, A. Egaña eta A. M. Peñagarikano 55

BAIONA, 2024-05-04

O. Enbeita eta H. Aizpurua 57

AIZARNAZABAL, 2024-05-10

I. Zubeldia eta A. Mendiluze 58

OIARTZUN, 2024-05-11

U. Agirre eta A. Mendiluze 60

BILBO, 2024-05-21

A. Intxausti, A. Martin, M. Arregi eta S. Robles 62

LEITZA, 2024-05-25

J. Illarregi eta A. Mendiluze 64

AMASA-VILLABONA, 2024-06-07

N. Ibarzabal, A. Martin eta O. Iguaran 67

BAKAIKU, 2024-06-14

S. Karasatorre eta X. Illarregi 69

USURBIL, 2024-06-15
J. M. Irazu eta A. Mendiluze..... 71

TOLOSA, 2024-06-16
N. Ibarzabal, U. Mendizabal, O. Iguaran eta S. Colina 73

IRURA, 2024-06-21
J. Soto eta N. Elustondo 74

DONEZTEBE, 2024-06-28
J. Soto, M. Lujanbio eta A. Martin 76

LASARTE-ORIA, 2024-06-29
A. Peritz *Euzkitze*, A. Egaña, N. Ibarzabal, A. Labaka, M. Lujanbio eta L. Rekondo 77

USURBIL, 2024-06-30
U. Alberdi, M. Arregi, X. Gallettebeitia eta B. Gaztelumendi 80

MUXIKA, 2024-07-04
U. Alberdi, M. Amuriza, O. Enbeita eta N. Ibarzabal 83

LESAKA, 2024-07-07
J. Uria, A. Egaña, K. Madariaga, M. Lujanbio eta J. Sanjurjo 86

ZORNOTZA, 2024-07-18
M. Amuriza eta I. Elortza 88

ARANO, 2024-07-27
M. Arregi, S. Colina, A. Laburu, J. Illarregi 89.

GASTEIZ, 2024-08-05
A. Arrizubieta eta U. Iturriaga 90

ETXARRI-ARANATZ, 2024-08-07
E. Lazkoz, M. Artetxe, S. Alkaiza eta A. Sarriegi 92

GERNIKA-LUMO, 2024-08-15
K. Gezuraga, N. Ibarzabal, A. Martin eta J. Soto 94

DONOSTIA, 2024-08-29
N. Elustondo, J. Maia eta O. Iguaran 95

HERNANI, 2024-08-31
E. Araiztegi, N. Elustondo, X. Silveira eta E. Zapiain 96

PLENTZIA, 2024-09-01
A. Arrizubieta, O. Enbeita, B. Gaztelumendi, J. Soto 99

ALKIZA, 2024-09-13

M. Lujanbio, A. Egaña, S. Lizaso, O. Iguaran, J. M. Irazu eta A. Arzallus 101

GALDAKAO, 2024-09-15

N. Ibarzabal, M. Lujanbio, U. Iturriaga eta S. Colina 102

LOIU (Lauroeta), 2024-09-27

E. Lekue, A. Etxebarriazarraga, O. Bartra eta I. Elortza 104

BILBO, 2024-10-06

N. Ibarzabal eta J. Uria 106

OTXANDIO (Mekoleta), 2024-10-26

U. Iturriaga eta A. Egaña 108

BILBO, 2024-11-27

E. Pagola, J. Uria, H. Aizpurua eta I. Altzerreka 110

LESAKA, 2024-11-28

K. Madariaga, J. Zelaieta eta M. Arozena 111

BILBO, 2024-11-29

I. Vidal, J. Arrizabalaga eta I. Amillategi 113

MARKINA-XEMEIN, 2024-12-08

N. Ibarzabal, J. Aramendi, M. Lujanbio, S. Colina, A. Egaña eta U. Iturriaga 114

LEXANTZÜ-ZUNHARRE, 2024-12-08

M. A. Txoperena eta I. Elortza 117

DONOSTIA, 2024-12-14B. Gaztelumendi, A. Martin, O. Iguaran, A. Labaka, N. Elustondo, E. Artetxe, A. Rekondo eta A. Peritz *Euzkitze* 118

SARIKETAK

GETXO (Algorta), 2024-02-23

H. Telleria, I. Idoate, J. Diaz, E. Zaldua, I. Granizo eta D. Etxeberria 120

BILBO, 2024-03-15

I. Bilbao, B. Altube, K. Gezuraga eta A. Intxausti 121

AZPEITIA, 2024-03-22

A. Rekondo, A. Tatiegi, I. Idoate, G. Pagonabarraga, E. Mateorena eta M. Sarasola ... 122

GABIRIA, 2024-04-06

A. Peritz *Euzkitze*, A. Tatiegi, M. Aiestaran, B. Altube, E. Mateorena eta A. Ugarte 124

SENPERE, 2024-05-11

M. Aiestaran, D. Herrarte, I. Idoate, I. Bilbao, H. Aizpurua eta J. Mendiluze 126

IRURTZUN, 2024-05-18

M. Arregi, A. Ieregi, J. Txoperena, P. Castillo, P. Amilburu eta A. Bizkarra 127

PORTUGALETE, 2024-06-08

M. Akizu, A. Zuazubiskar, A. Katarain, I. Lekuona, E. de los Aires, I. Majuelo, J. Uria eta H. Aizpurua 129

MUXIKA, 2024-06-22

E. Pagola, A. Galarza, I. Altzerreka, M. Aiestaran, G. Pagonabarraga eta I. Idoate 131

BERRIATUA, 2024-06-27

J. Aiestaran, K. Abaitua, H. Amabizka, N. Jaio, E. Gallastegi, E. Zuluaga, H. Aizpurua eta U. Aizpurua 133

ZARAUTZ, 2024-09-06

A. Mujika *Anatx*, I. Altzerreka, L. Goenaga, A. Tatiegi, A. Rekondo eta A. Katarain 134

URRUÑA, 2024-10-04

A. Intxausti, E. Artetxe, R. Christy, E. Lazkoz, M. Sarasua eta E. Abasolo *Abarkas* 135

BARAÑAIN, 2024-10-25

S. Abarrategi, J. Aiestaran, H. Aizpurua eta K. Madariaga 136

ZALDIBIA, 2024-11-09

J. Soto, J.M. Irazu, G. Navarro eta A. Labaka 137

AMENDÜZE-UNASO, 2024-12-07

B. Crouspeyre, N. Etxeberri-Lopepe, R. Christy, P. Minhondo, G. Elizondo, O. Urreizti, P. Moal-Darrigade, M. Mateo, J. M. Oillarburu, P. Prebende, B. Thikoipe, E. Etxandi eta X. Alkhat 139



Bertsolarien
aurkibidea

- A. Arrizubieta** 48 (H), 90 (BI), 99 (BI)
- A. Arzallus** 10 (BI), 16 (BI), 19 (BI), 22 (BI), 24 (BI), 50 (BI)
- A. Bizkarra** 127 (BI)
- A. Egaña** 29 (BI), 55 (BI), 101 (BI), 108 (BI)
- A. Etxebarriazarraga** 104 (B)
- A. Galarza** 131 (BI)
- A. Intxausti** 46 (BI), 62 (BI), 121 (BI)
- A. Ugarte** 124 (BI)
- A. Labaka** 44 (BI), 79 (BI), 137 (BI)
- A. Laburu** 89 (BI)
- A. Martin** 19 (BI), 45 (B), 67 (BI), 94 (B), 118 (H)
- A. Mendiluze** 34 (GL), 58 (BI), 60 (GL), 64 (BI), 71 (GL)
- A. Peritz *Euzkitze*** 124 (BI), 125 (PE)
- A. Rekondo** 123 (B)
- A. Sarriegi** 92 (BI)
- A. Tatiegi** 134 (BI)
- A. Zuazubiskar** 29 (BI)
- A. M. Peñagarikano** 50 (BI)
- B. Altube** 121 (BI)
- B. Thikoipe** 139 (BI)
- B. Gaztelumendi** 10 (BI), 80 (BI), 81 (BI), 100 (B)
- E. Araiztegi** 96 (BI)
- E. Etxandi** 139 (BI)
- E. Lazkoz** 26 (BI), 135 (B)
- E. Lekue** 105 (BI)
- E. Mateorena** 32 (BI), 122 (BI)
- E. Pagola** 110 (B), 131 (BI)
- E. Zapiain** 98 (BI)

G. Navarro 12 (BI), 137 (BI)
H. Aizpurua 22 (BI), 36 (BI), 40 (BI), 129 (BI), 133 (B), 136 (BI)
I. Altzerreka 134 (BI)
I. Amillategi 113 (BI)
I. Elortza 14 (BI), 42 (GL), 88 (GL)
I. Idoate 120 (B), 126 (BI)
I. Urdangarin 34 (GL)
I. Zubeldia 24 (BI), 58 (BI)
J. Aiestaran 32 (BI), 136 (BI)
J. Aramendi 114 (B)
J. Arrizabalaga 32 (BI), 113 (BI)
J. Illarregi 30 (BI), 64 (BI), 89 (BI)
J. Maia 95 (BI)
J. Mendiluze 32 (BI)
J. Soto 10 (BI), 46 (BI), 74 (BI), 76 (BI), 99 (BI), 137 (BI)
J. Uria 30 (BI), 106 (BI), 129 (BI)
J. Zelaieta 111 (BI)
J. M. Irazu 71 (GL), 137 (BI)
K. Madariaga 32 (BI), 86 (BI)
L. Rekondo 77 (BI), 79 (BI)
M. Aiestaran 126 (BI)
M. Akizu 12 (BI)
M. Amuriza 38 (BI), 39 (B), 53 (BI), 88 (GL)
M. Arozena 111 (BI)
M. Arregi 89 (BI), 126 (BI), 127 (B)
M. Artetxe 49 (BI), 92 (BI)
M. Lujanbio 24 (BI), 36 (BI), 76 (BI), 77 (BI), 86 (BI), 101 (BI), 115 (BI)
M. Sarasola 122 (BI)

- M. A. Txoperena** 40 (BI), 117 (B)
- N. Elustondo** 16 (BI), 74 (BI), 95 (BI), 96 (BI), 98 (BI)
- N. Ibarzabal** 19 (BI), 42 (GL), 67 (BI), 83 (BI), 85 (B), 102 (BI), 106 (BI), 115 (BI)
- O. Bartra** 24 (BI), 105 (BI)
- O. Iguaran** 24 (BI), 44 (BI), 67 (BI), 95 (BI)
- On. Enbeita** 14 (BI), 57 (B), 83 (BI)
- S. Abarrategi** 32 (BI)
- S. Alkaiza** 21 (BI), 26 (BI)
- S. Colina** 19 (BI), 21 (BI), 24 (BI), 38 (BI), 49 (BI), 102 (BI)
- S. Karasatorre** 30 (BI), 69 (GL)
- S. Lizaso** 50 (BI), 55 (BI)
- S. Robles** 28 (BI), 62 (BI)
- U. Agirre** 60 (GL)
- U. Alberdi** 53 (BI), 81 (BI)
- U. Iturriaga** 19 (BI), 90 (BI), 108 (BI)
- U. Mendizabal** 73 (PE)
- X. Gallettebeitia** 80 (BI)
- X. Illarregi** 69 (GL)

IKURRAK

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka, edo talde handiagoan, egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(GL): Gai librean egindako saioa.

(H): Bestelako ariketak.

izen
eta
izen goi-
tien
deskribapena



Liburuan

Abarrategi, S.
 Agirre, U.
 Aiestaran, J.
 Aiestaran, M.
 Aizpurua, H.
 Akizu, M.
 Alberdi, U.
 Alkaiza, S.
 Altzerreka, I.
 Altube, B.
 Amillategi, I.
 Amuriza, M.
 Araiztegi, E.
 Aramendi, J.
 Arozena, M.
 Arregi, M.
 Arrizabalaga, J.
 Arrizubieta, A.
 Artetxe, M.
 Arzallus, A.
 Bartra, O.
 Bizkarra, A.
 Colina, S.
 Egaña, A.
 Elortza, I.
 Elustondo, N.
 Enbeita, On.
 Etxandi, E.
 Etxebarriazarraga, A.
 Galarza, A.
 Gallettebeitia, X.
 Gaztelumendi, B.
 Ibarzabal, N.
 Idoate, I.
 Iguaran, O.
 Illarregi, J.

Izen-deiturak

Sabin Abarrategi Sarrionandia
 Unai Agirre Goia
 June Aiestaran Iparragirre
 Maddi Aiestaran Iparragirre
 Haira Aizpurua Ibargarai
 Maialen Akizu Bidegain
 Uxue Alberdi Estibaritz
 Saioa Alkaiza Guallar
 Iruri Alzerreka Martinez
 Bittor Altube Sarrionandia
 Ibai Amillategi Omaetxebarria
 Miren Amuriza Plaza
 Eneko Araiztegi Agirre
 Josune Aramendi Perez
 Manolo Arozena Mitxelena
 Maider Arregi Markuleta
 Janire Arrizabalaga Munduate
 Aroa Arrizubieta Barredo
 Miren Artetxe Sarasola
 Amets Arzallus Antia
 Oihana Bartra Arenas
 Aitor Bizkarra Ruiz
 Sustrai Colina Acordarrementeria
 Andoni Egaña Makazaga
 Igor Elortza Aranoa
 Nerea Elustondo Plazaola
 Onintza Enbeita Maguregi
 Elixabet Etxandi Goienetxe
 Aitor Etxebarriazarraga Gabiola
 Asier Galarza Garai
 Xabat Gallettebeitia Abaroa
 Beñat Gaztelumendi Arandia
 Nerea Ibarzabal Salegi
 Irantzu Idoate Funosas
 Oihana Iguaran Barandiaran
 Joanes Illarregi Marzol

Herria

Aramaio
 Hernani
 Beasain
 Beasain
 Sara
 Urretxu
 Elgoibar
 Iruñea
 Garai
 Abadiño
 Gernika-Lumo
 Berriz
 Segura
 Markina-Xemein
 Goizueta
 Oñati
 Gernika-Lumo
 Gasteiz
 Hendaia
 Hendaia
 Bilbo
 Abadiño
 Urruña
 Zarautz
 Durango
 Legazpi
 Muxika
 Izpura
 Gernika-Lumo
 Muxika
 Lekeitio
 Añorga
 Markina- Xemein
 Hazparne
 Amasa-Villabona
 Leitz

Illarregi, X.	Xabat Illarregi Marzol	Leitza
Intxausti, A.	Aissa Intxausti Aburruza	Lekeitio
Irazu, J. M.	Jesus Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zugaza-Artaza	Durango
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Karasatorre, S.	Saats Karasatorre Martinez	Etxarri-Aranatz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayoz	Lasarte
Laburu, A.	Agin Laburu Rezola	Astigarraga
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxarri-Aranatz
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Madariaga, K.	Kattin Madariaga Apaolaza	Arantza
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mateorena, E.	Eki Mateorena Zozia	Leitza
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendiluze, J.	Jon Mendiluze Mujika	Irura
Mendizabal, U.	Unai Mendizabal Jauregi	Zizurkil
Navarro, G.	Garazi Navarro Ugarteburu	Amoroto
Pagola, E.	Elixabet Pagola Apezetxea	Hernani
Peñagarikano, A. M.	Anjel Mari Peñagarikano Labaka	Albiztur
Peritz, A. <i>Euzkitze</i>	Aner Peritz Manterola	Zarautz
Rekondo, A	Andoni Rekondo Izagirre	Hernani
Rekondo, L.	Lierni Rekondo Villaron	Lasarte
Robles, S.	Sarai Robles Vitas	Barañain
Sarasola, M.	Maite Sarasola Isazelaia	Bilbo
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Sarriugarte, A.	Ander Sarriugarte Garcia	Durango
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Tatiegi, A.	Aitor Tatiegi Loidi	Oñati
Thikoipe, B.	Bittor Thikoipe Leizagoien	Amendüze-Unaso
Txoperena, M. A.	Maddi Ane Txoperena Iribarren	Hendaia
Ugarte, A.	Aitor Ugarte Eriz	Aramaio
Uria, J.	Jone Uri Albizuri	Algorta
Zapiain, E.	Ekhiñe Zapiain Arlegi	Bera
Zuazubiskar, A.	Ane Zuazubiskar Iñarra	Arrasate
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama



bertsozale
elkartea



9788482983688